

# goiena

2011-02-18  
EGUBAKITZA  
453. ZENBAKIA  
11. URTEA  
DOANEKOA  
GOIENA.NET  
TOKIKOM

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



## Bergarako orkestrak 25 urte

Bailarako orkestra sinfoniko bakarrak mende laurdena bete du eta ekainean ospatuko dute | 31

Sara Mantxola oñatiarra Goya sariarekin itzuli da etxera | 32

Aramaioko alkatea absolbitu egin dute AHTren auzian | 4



25 urteren ostean, Pizkunde garaiko erretaula Antzuolako parrokiara | 25

## Aizkorri-Aratz parkeko interpretazio zentroa zabalik

Arantzazun zabaldu dute eta dagoeneko bisita daiteke | 5

## Oñati-Arrasate bidegorri tartea prest datorren urterako

7,94 kilometro luze izango da eta lanak irailean hasiko dira | 4

## "Eraginkorragoa da gau guztietan zabalik dagoen farmazia bakarra"



Angel Garai | Gipuzkoako Botikarien Elkarteko presidentea | 8

## Zaharren egoitzarako diru-batzea Eskoriatzan

Fundazioak duen zorrari aurre egitea da helburua | 24



## EUSKAL HERRIKO TXAPELDUNA MENDIKO ESKIAN

Iban Letamendik (Oñati, 1978) mendiko eskian denboraldi erdia bete du, eta ez nolana hiko: bakarka eta bikoteka –Joseba Tobar tolosarrarekin batera– Euskal Herriko txapelkun izan da. Horrez gainera, joan den asteburuan Andorran jokaturako Espainiako txapelketan bederatzigarren izan zen. Euskal Selektzioarekin dihardu eta gogotsu dago denboraldiaren bigarren zatiri ekiteko | 28

Iban Letamendi, Oñatiko plazan, jaioterrian, eskiak ondoan dituela. | MIREIA BIKUÑA



IKER

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza 2/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorenzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

SEAT  
IBIZA



9.900  
eurotik aurrera

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



# Borondatez egindako lana, denondako behar-beharrezkoa

- ▶ Boluntariotzaren Europako Urtea dugu 2011
- ▶ Bailarako elkarteek jende gehiagoren premia dute
- ▶ Ezinbesteko lana egiten dute debagoiendar askok

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Hamar europarretik hiru dabilta boluntario moduan lanean; 10etik zortzik uste dute "garrantzitsua" dela lagun hurkoari laguntzea; eta lautik hiruk uste dute boluntario-tza indartu egin behar dela.

Bazen garaia boluntarioek aitoren eta bultzada berezia jaso zezaten, eta hori eman gura die-te Europako erakundeek, 2011 Boluntariotzaren Urte aitortuta. Lau ardatzen inguruan lan egin-gudo dute: boluntarioei euren jar-dunean lagundu, elkarteei baliabide gehiago eman, boluntarioen errekonozimendu handiagoa lortu, eta jendea sentsibilizatu. Ekintza bereziak egingo dituzte; tartean, ordezkari politikoek Europan barrena bira bat egingo dute, boluntarioen lana gertutik ezagutzeko.

Debagoiengan ere ahalegin berezia egingo dute aurten hainbat elkartek, indarrak batuta. Horren asmatan batzartu ziren urtarrilean bailarako hainbat elkarte—Elkarheitzan, Nagusilan, San Juan de Dios, Hurkoa, Caritas, Harreman eta Gurutze Gorria—eta Gipuzkoan boluntariotza bultzatzen duen Gizalde elkarte.

Hurkoa elkarteko Mirari Korta han izan zen, eta hauxe diosku: "Arlo asko daude, eta mota askotakoak, nork bere gustuen eta ahalmenen arabera, eta atek zabalik dituzte. Premia handiak ditugu, eta aukera polita da animatzen direnendako".

## 17 eta 66 urte artekoak

Boluntarioaren lanak baditu ezaugarri batzuk: ez dira bere kabuz aritzen, baizik eta modu antolatuan, elkarte edo fundazioetan parte hartuz. Bestalde, boluntarioaren lanak onura zuzena dauka besteengan; hau da, ez da denbora-pasa bat. Musu-truk egindako lana da, modu altruis-

## ESANAK

**"Konpromisoa hartzeko ez nuen birritan pentsatu"**

ANGELITA MENDIARATZ  
OÑATIKO CARITASKO BOLUNTARIOA

**"17 eta 66 urte arteko boluntarioak ditugu"**

SANTI SARMIENTO  
GURUTZE GORRIKO ARDURADUNA

**"Ez dago abilezia berezirik izan beharrik"**

MIRARI KORTA  
HURKOAKO ARDURADUNA

**"Bihotzez egiten dut lana eta erabat aberasten nau"**

PALOMA MARTINEZ PEREZ  
BOLUNTARIOA

tan. Azkenik, konpromisoa beharrezkoa da; modu jarraian egiten den lana da.

Gizaldeko Miren Gurrutxagak dioskunez, "mito batzuk apurtu egin behar dira: adibidez, formazio edo abilezia bereziren bat behar dela, gazteak edo adinekoak bakarrik izan daitezkeela, denbora luzea eskaini behar zaiola eta arlo zehatz batzuetan bakarrik lagun daitezkeela".


Debagoiengan hamaika premia mota daude lagundu nahi duten gizon-emakumeendako, edozein direla euren adin eta ezaugarriak.

Horretaz hitz egiten digu Debagoiengo Gurutze Gorriko Boluntariotza zuzendari Santiago Sarmientok: "Orain, 17 urtekoa da gure boluntario gazteena eta 66 urtekoa da nagusia; erdi eta erdi inguru gizonezkoak eta emakumezkoak". Erakunde horren kasuan, boluntariotza handitu egin da: "Azken urtean informazio eskaera gehiago izan ditugu, jendeak, zoritxarrez, krisiaren eraginez, denbora libre luzeagoa duelako. Une jakin baten 55 boluntario inguru izaten ditugu eta orain 80 inguru ditugu".

Elorregiko Gurutze Gorriaren egoitzan izaten da Marta Bermejo oñatiarra. 14 urte daroa lan horretan, eta, esaten duenez, "inoiz" ez du "betebehar" gisa ikusten: "Hilean 12 ordu egiten ditut Gurutze Gorrian. Lagun hurkoari laguntzeko, hori oso denbora laburra da, ez zait batere kostatzen". Hark Erizaintza ikasi zuen, eta Donostiako ospitalean ezagutu zuen Gurutze Gorriaren lana. Orduetik hona dabil boluntario.

## "Behar handiagoa dago"

Oñatiko abade-etxean batzen dira astero-astero hango Caritas taldea osatzen duten lagunak. Aurten batu zataizkie beste bi herritar,



MIRARI ALTUBE



LEIRE KORTABARRIA

## DEBAGOIENEAN, HAMAIKA AUKERA

ELKARTEA	ARLOA	TELEFONOA
<b>Elkarheitzan</b>	Garapenaren gaineko hezkuntza, sentsibilizazioa...	943 77 17 38
<b>Caritas</b>	Pobrezia eta bazterketan daudenei lagundu	943 79 18 87
<b>Gurutze Gorria</b>	Sorospena, etorkinen gizarteratzea, emakumea...	943 76 55 76
<b>Hurkoa</b>	Adinekoak, mendekoak, buru-gaixotasunak	943 77 09 38
<b>Atzegi</b>	Adimen gutxitasuna	943 42 39 42
<b>Nagusilan</b>	Nagusiak boluntario eta nagusiondako ekintzak	943 79 25 85
<b>San Juan de Dios</b>	Gaixo psikiatrikoek zerbitzua eta laguntza	943 79 39 00
<b>Harreman</b>	Pobreziaz eta Ipar-Hego kontrasteaz kontzientzia	943 79 81 14
<b>Gizalde</b>	Orientazioa boluntario izan nahi duenari	943 42 80 13
<b>Haces Falta</b>	GKEak ( <a href="http://www.hacesfalta.org/opportunidades/">www.hacesfalta.org/opportunidades/</a> )	-

**Ouiame Ouchen-ek eta Paloma Martinez Perezek Hemen aldizkaria egiten dute.**



LEIRE KORTABARRIA

**Oñatiko Caritasko kideak, parrokiaren egoitzan.**



eta pozik daude. Angelita Mendiartz kideak dioskunez, bere motibazioa izan zen "beste bati laguntzea" eta bere fedea bultzatuta erabaki zuen "konpromiso" hori hartzea. "Ez nuen bi aldiz pentsatu", esaten digu.

Euren ohiko lana izaten da hainbat premia dituzten laguni "harrera egitea, laguntasuna ematea eta, askotan, entzutea", esaten dute Oñatiko kideek. Laguntza materiala ematen dute: arropak, jendeak emandakoak; eta jatera joateko txartelak. "Norberak ikusi arte ez gara konturatzen zelako beharra dagoen", esaten digute. Laguntza eske doazenak ere aldatu egin dira: "Lehen eskaleak etortzen ziren, batik bat. Orain bestelako jendea ere etortzen da. Beharra handitu egin da".

Ateak zabalik dituzte eurekin bat egin gura duenarendako. "Gazte gutxi inguratzen dira, beharbada Eliza barruko elkarte bat delako-edo. Nik uste dut gobernu kanpoko erakunde batera samurrago joango lirakeela", dio Angelita Mendiartzek.

#### **Debagoieneko bost hizkuntza**

Paloma Martinez Perez Aretxabaletan bizi den mexikarrak eta Ouiame Ouchen Arrasaten bizi den berbereak etxean egiten dute lan, eguneko ardura guztiak bete ondoren geratzen zaien denbora euren proiektuari ilusio handiz eskaintzen. Euren ideia izan zen "bertakoondako eta etorkinendako, denondako" aldizkari bat egitea. *Hemen* du izena eta otsailean argitaratu dute

## Zer egiten dute boluntarioek?

**ANTOLATU** Ez dute euren kabuz lan egiten, elkarte edo fundazio baten baizik.

**KONPROMETITU** Hitza emandako denbora eman behar zaio, eta modu jarraian lan egin.

**HOBETU** Jendartea arlo batean edo bestean hobetzeko lan egiten dute.

**EMAN** Ez boluntarioak ez erakundeak ez dute irabazi asmorik. Dediakzio altruista da.

**SALATU** Lagun hurkoari laguntzeaz gain, bidegabekeria salatzen dute eta hura zuzentzen ahalegintzen dira.

**ERAGIN** Ingurukoan kontzientzia esnatzea eta haiek mobilizatzeko lan egiten dute.

hirugarren zenbakia. Mila ale ateratzea lortu dute, eta Arrasate eta Aretxabaletako udal-txeetan, tabernetan, elkarteetan... banatu dituzte. Honakoa diosku Martinezek: "Herriko informazioa, batik bat, euskaraz dago, eta kanpotik etorri den bati oso zaila egiten zaio hori jasotzea. Ni Txinan bizi izan nintzen, eta norbaitek zure hizkuntzan berba egiten dizunean sekulako poza sentitzen duzu. Horregatik, aldizkaria dago euskaraz, espainolez, frantsesez, arabieraz eta txinatarrez, orain hizkuntza horiek guztiak egiten ditugunok bizi garelako hemen". Ouchene-k gaineratzen duenez: "Integratzen lagundu nahi dugu, eta oso aberasgarria da".

Dena eurek egin eta ordaindu dute. Orain, Elkarheitzaren taldean dagoen AMS gobernu kanpoko erakundearen babesa dute. Elkarheitzaren taldearekin lan egin gura duenak beste aukera asko ditu: Zero Pobrezia taldean jardun, gutxitasunak dituzten gazteei lagundu, bidezko merkataritza dendan lan egin...

#### **Etengabeko lana**

Atzegi da Gipuzkoako adimen urritasuna duten pertsonen aldeko erakunde, eta Debagoieneko ordezkarietako bat da Jokin Antxia. Aretxabaletako Aratz elkartearekin egiten du lan. "Aisialdirako jendea behar izaten dugu; zapatuoro txolarteetan gure bazkideekin egoteko eta gure konpromisoetan eta ekintzetan laguntzeko gertu dagoena", dio.

Eurek ez dute kanpaina berezirik egingo: "Jendea kontzientziaztea eta boluntario gehiago erakartzeko saiatzea etengabeko lana da guretzako. Iaz kanpaina bat egin genuen. Dena dela, jendeak kostata laguntzen du; gero eta gehiago kostatzen da boluntarioak topatzea".

DATUA

**%10**

GIPUZKOAR

Elkarteren baten parte hartzen -zentzu zabalean- dutenen kopurua da horixe.

DATUA

**%5**

DA EKARPENA

Boluntariotzak herrialde baten Barne Produktu Gordinaren %5 sortzen du.



2011 Boluntariotzaren Europako urtea

Parte hartu eta eraldatu!

Boluntariotzaren Urtearen logotipoa. | GIZALDE

## Boluntario bazara, zator lip-dubera!

Boluntario guztiak dei egiten diete martxoaren 12an BECen grabatuko duten lip-dub solidario baten parte hartzeko. Horretarako, mezua bidali behar da [bilbaoeventos@hotmail.com](mailto:bilbaoeventos@hotmail.com) helbide elektronikora, norberaren izen-abizen, jaiotze data, telefono zenbaki eta posta elektronikorekin. Lehenbailehen erantzunok diote antolatzaileek. Bestalde, zerbait berezia egiten dakitene hori aipa dezakete mezuan, eta paper nagusiren bat emango diote bideoan. Adibideak: buruz behera jartzen jakitea, saltari edo malabarista izatea (orekaria), dantza jakin bat ondo jakitea...

**Gipuzkoa**  
elkarlanaren emaitza



2011 Krisiaren aurkako Plana

100 milioi euro

2010ean, honetarako neurriak bultzatu ditugu:

- 5.000 enplegu baino gehiagori eutsi.
- 200dik gora enpresa-proiekturi.
- 181 gazte gaitu kontratatu.

2011rako, plan berri bat daukagu:

- Enplegua sortzea.
- Lan-munduratzeari bultzatzea.
- Mikropresak sortzea.
- Autonomoei laguntzea.
- Nazioartekotzea eta berrikuntza sustatzea.

**GIPUZKOA**  
zurekin, aurrera

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA  
DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

[www.2011krisiarenaurkakoplana.net](http://www.2011krisiarenaurkakoplana.net)

# Datorren urterako gertu egongo da Oñati eta Arrasate arteko bidegorria

Oñati eta Zubillaga lotuko dituen zatiko lanak irailean hastekoak dira

MIRIAN BITERI | BERGARA

Oñati eta Arrasate lotuko dituen bidegorria errealitate bihurtuko da datorren urtean. Horixe da, behintzat, Diputazioko Landa Ingurumen Departamentutik jakinarazi digutena. Irailean Oñati eta Zubillaga arteko zatia egiten hasteko asmoa dute.

Esandako zati horren proiektuaren lizitazioa martxorako onartuta egon dadila espero dute; orduan zehaztuko da lan horien aurrekontua, baina Diputaziotik aurreratu digute 2,5 milioi inguru izango dela. Jarraian, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, interesa duten enpresek euren eskaintzak aurkez ditzaten. Horiek aztertu eta esleitu ostean, esandako moduan, irailean hasiko dituzte 10 hilabete iraungo duten lanak.

## Zubillaga-Arrasate, 2012an

Zubillaga, Elorregi eta Arrasate arteko zatia datorren urtean hasteko asmoa dute; hain justu



Hodiak sartzen bukatu ostean hasiko dira bidegorria egiten. | UBANE MADERA

ere, Oñatiko ur-zikinak Epeleko araztegiara eroateko hodiak sartzen bukatu bezain laster; zati handi baten, hodi horien gainetik joango da hori. Urtea amaitu baino lehen hodiak sartzen amaituko dutela uste dute, eta bidegorria 2012ean egingo litzaket. Lanok 9 hilabete iraungo

dute eta aurrekontua 2,9 milioi euro da.

Oñati-Arrasate arteko bidegorriaren trazatua honako hau izango da: Oñatiko bidegorri sarearekin bat eginez, Kurtzekuan hasiko da eta Auntzokua baserriaren parean saihebidera hartuko du. Errepide azpitik



segituko du bideak, San Pedroko bidegurutzeraino; handik Madalen aldera egingo du, eta Uriazpikua baserrira heldu baino lehen, ezkerrean hartu eta Fagor Industriaren atzetik joango da.

Fagorko biribilgunea lur azpitik pasatuko du, eta Zubillagara hartuko du. Auzoa gurutzatuz ostean, Altunako zubia zeharkatu eta trenbide zaharra hartuko du Epeleko araztegiaraino. Orain negoziatzen dabilta bidegorria Eroskiraino luza-tzea.



Hedabideen hainbat ordezkari, martitzenean Donostian egindako agerraldian. | DANI BLANCO

## Euskarazko hedabideek laguntza eskatu diete erakundeei

M.B. | BERGARA

Euskarazko hedabide ez publikoek dei egin diete asteon erakunde publikoei sektorearen aldeko apustu sendoa egin dezaten. Salatu dute krisi ekonomikoak eta komu-

nikazioaren alorrean izaten ari diren aldaketek "gogor" astindu dituztela euskarazko hedabideak eta bizirik irautea hedabideon "erdigunean kokatu" dela. Aipatu dute egungo laguntzek, "kasurik

onenean, prekarietatean bizirik irauteko" aukera eskaintzen ditela, eta, hori dela-eta, laguntzetan baliabide handiagoak jar ditzaten eskatu dute. Euskal Herriko 80 hedabide baino gehiagoren eskae-

ra da; tartean da Goiena Komunikazio Zerbitzuak.

### Ekimen bateratuak

Egoerari eta zailtasunei aurre egiteko, euskarazko hedabideok hainbat ekimen elkarrekin egitea erabaki dute. Horren ondorio dira otsailaren 1ean argitaratutako editorial bateratua eta martitzenean Donostian egindako agerraldia. Iragarri dute aurrerantzean ere ekimenak egiten jarraituko dutela, eta horien berri emateko [www.blogak.com/ehedabideak](http://www.blogak.com/ehedabideak) webgunea sortu dute.

Horretaz gain, jakinarazi dute otsaila eta martxo bitartean instituzio nagusienetako eta alderdi politikoetako ordezkariekin elkar-tzeko asmoa dutela. Batzar horien helburua da sektorearen berri zuzenean eman eta politika aldatetarako proposamenak lantzea. Adostasunak lortzeko "prestasun osoa" agertu dute.

## Asier Agirre: "Ni ez naiz epaitua sentitzen, herria izan da epaitua"

M.B. | ARAMAIO

Arabako Auzitegi Probintzialak Aramaioko alkate Asier Agirre absolutu egin du Aramaion herri galdeketa egiteagatik. Agirrek azpimarratu gura izan du bera ez dela sentitzen epaitua, baizik eta Aramaioko herria izan dela epaitua. Haren esanetan, "garbi utzi behar dena da herri batek galdeketa egin zuela, herriak galdetu zuela, herriak erantzun zuela eta erantzun bat egon zela: parte hartu zuten %98k esan zuten Abiadura Handiko Trenik ez zutela nahi, eta hori da inportantea. Horregatik, herriko alkatea izan edo Asier Agirre izan, berez epaitua izatea lotsagarria da demokrazian".

Absoluzioa dela eta, AHT Gelditu! Elkarlanak esan du "benetako demokrazia" nahi izanez gero, non herritarrek lehentasuna izango duten, Aramaiokoa bezalako ekimenek adibide izan beharko luketela, "eta ez salaketa eta auzi penalen objektu".

## MUko errektore izaten jarraituko du beste lau urtez Josu Zabalak

Josu Zabala beste lau urterako izendatu dute Mondragon Unibertsitateko (MU) errektore. Erabakia hartzerakoan, "egungo Plan Estrategikoaren proiektu garrantzitsuak abian jarri eta garatzerakoan errektoreak izandako jokaera" nabarmendu du MUko Errektore Kontseiluak. Baita "taldeei eta proiektuei adorea eta bultzada emateko izan duen gaitasuna".

Aurretik egin duen "lan bikaina" aitortuz eta unibertsitatea zuzentzeko pertsona egokiena hura dela uste dutelako berretsi dute karguan Zabala. 2006a ezkerreko errektore; aurretik, teknologia, ikerketa eta kudeaketaren eremuetan jardun du.



## IKASTAROAK

- **MINTZAPRAKTIKA INGELESEZ**  
Erdi/Goi mailako ezagupena dutenentzako.  
**Hasiera:** Martxoak 2.  
**Klase eguna:** asteazkena  
**Ordutegia:** 18:15 - 20:45  
**Matrikula epea:** Otsailaren 26ra arte.

**Informazio gehiagorako:**  
Tel.: 943 76 90 33  
[info@bergara.uned.es](mailto:info@bergara.uned.es)

## Zubietako errauste plantaren eraikuntza esleitu dute gaur

M.B. | BERGARA

Gaur, egubakoitza, emango dio behin betiko onarpena Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak, joan den astean EAJ, PSE eta H1! taldeek kontratazio mahaian oniritzia eman ostean. FCC, Altuna-Uria, Murias, Zerbitzu eta AE&E Inovak osatu duten ABEE da zerrendaren buru Zubietan erraus-

tegia eraikitzeko. Adjudikazioa 223.446.500 euro da eta, eraikuntzaz gain, 5 urterako mantentze-lan eta operazio kontratua ere sartzen da; 53.225.849 euro da.

Horren finantzaketa dela-eta, Gipuzkoako hainbat alkatek biler bat egitea eskatu diote Markel Olano ahaldun nagusiari; horien artean daude Eskoriatza eta

Antzuolako alkateak, Pedro Lasagabaster eta Pedro Iturbe, hurrenez hurren. Haien esanetan: "Gurekin inolako harremanik izan gabe hartutako erabakia izan da. Gu gara kaltetuenak, 21 urtez bankuen morrontzapean jartzen baikaituzte. Gainera, Aldundiak erraustea lehenetsi du zaborra kudeatzeko modu gisa".

Bestalde, Oñati Zero Zabor plataformak erraustegiaren aurkako elkarretaratzea deitu du biharko, zapatua, 12:00etan, La Caixaren aurrekaldean.



8x3 metroko maketak parke natural guztiaren azalera erakusten du. | A.E.

## Idoiaga: "Ametsa errealitate bihurtu da Arantzazuko parketxea inauguratuta"

Gandiaga II eraikinean kokatu dute Aizkorri-Aratz parke naturaleko interpretazio zentroa

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Astelehena ezker, Aizkorri Aratz parke naturalak badu interpretazio zentroa Arantzazun. Gandiaga II eraikinean dago kokatuta Arantzazuko parketxea. Inaugurazio ekitaldian, Rafa Uribarren Landa Ingurumeneko diputatua,

Markel Olano ahaldun nagusia, Lourdes Idoiaga Oñatiko alkatea eta Jose Mari Arregi Arantzazuko frantziskotarren elkarteko zaindaria izan ziren; haiena izan zen zinta mozteko ardura, eta baita han batu zirenen aurrean hitza hartzeko ardura ere. Par-

ketxean batu ziren, besteak beste, Jabier Arregi Arantzazuko auzo-alkatea; Iñaxio Garro Aretxabaletako alkatea; Oñatiko Natur Eskolako kideak; eta Arantzazuko ostalariak.

Lourdes Idoiaga alkateak esan zuen Oñatirendako egun handia zela: "Amets bat zena errealitate bihurtu da", gaineratu zuen. Alkateak bereziki eskertu gura izan zituen Foru Aldundiko ordezkariak, dirulaguntzak emateaz gain, beti egon direlako gertu lankidetzarako.

### Maketa erraldoia

Parketxearen helburua da lurraldearen natura eta kultura haspenei buruzko hausnarketa egiteko interpretaziozune izatea. Horretarako, ondo bereiztutako hiru gune ditu: harrera eta trantsizio gunea, proiektuaren ardatz diren filosofia eta balioak aurkezten dituen; historia duen naturaren gunea, esperientzian oinarritutako baliabide museo-grafiko ezberdinak dituen (aipagarriena, 8x3 metroko maketa da); eta kultura paisaian gunea: gizakiak ingurunean izan duen jardura eta esku-hartzea lantzen dituen.

Besteak beste, basoaren berregite abstraktua egin dute, sinkronizatutako argi sistema baten bidez; eta, 12x4 metroko proiektio panela ere jarri dute gelaren erdian, artzainen lanbidea erakusteko. Migel Angel Alonso arkitektoak diseinatu du Arantzazuko parketxea.

Ikerne Altube | Oñatiko Garapen eta Turismo Agentzia

## "Garrantzi handia dauka lur azpiko munduak landa-turismoan"

A.E. | OÑATI

Landa turismoaren II. jardunaldiak ospatzen dabilta egunotan Iruñeko Baluartean. Lur azpiko turismoari buruz berba egiteko, Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziako Ikerne Altube dago han. Gaur, 18:00etan, mahai-inguru baten parte hartuko du.

### Zer lantzeko asmotan elkartu zarete Iruñean?

Nafarroako Gobernua aitzindari izan da landa turismoan. Ikusita azkenaldian lur azpiko munduak ze garrantzia daukan landa ingurunean, aurten erabaki dute azaltzea zeintzuk diren proiektu berriak inguru hauean. Horrekin lotuta ikusi dute turismo mota horetan kobak ingurune naturalean kokatuta daudela eta lur azpiko mundua lantzen dabilen sektore bat dagoela. Hori dela-eta gonbidatu gaituzte kongresu horretan parte hartzera.

### Turismo esperientzia berriak sortzeko erronkak aztertuko dituzue jardunaldietan.

Bai, eta erronka horien artean egongo litzateke lur azpiko turismoa.

**Lur azpiko turismoari buruzko mahai-inguruan parte hartuko duzu gaur. Zer azalduko duzu?**



Ikerne Altube. | GOIENA

Oñatiko esperientzia azalduko dut. Arrikutz da azkenaldian egin den proiektu berriena: teknologia eta material berrienak erabilia. Horregatik gonbidatu gaituzte, parte hartu eta gure esperientzia berri hau azaltzeko.

### Lur azpiko turismoa nola landu eta zein den etorkizuna zehaztuko duzue. Zeintzuk dira Arrikutzek dituen erronkak?

Koba batzuek 40 urte inguru dituzte; hortaz, gu oraindik oso gazteak gara, jaioberriak.

Guk Oñatiko esperientzia azalduko dugu, naturgune hau eta Oñatiko kultura ondarea aprobetxatu dugu lur azpiko munduarekin osatzeko.

## Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

### ABOKATUAK

#### BERNARDINO MAIZTEGI

Bergara / Irizar 5  
T: 943 76 10 81

#### JUAN ANTONIO SIERRA

Bergara / Irizar 2  
T: 943 76 03 35

#### BEGOÑA LASAGABASTER

Arrasate / Iturriotz 15, 1 A  
T: 943 79 98 86  
F: 943 77 01 08  
blasaga@conet.es

#### RAFAEL ARANBURU

Bergara / Irizar 5  
T: 943 76 10 81

#### ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

Aretxabaleta / Basabe ind. f-0-10-pab.  
T: 943 71 21 12  
zenbaki@zenbaki.es

### AHOLKULARITZAK

#### AIERDI AHOLKULARITZA

Bergara / Artekale 1  
T: 943 76 03 50

#### ANDRA MARI AHOLKULARITZA

aretxabaleta / Andra Mari auzunea 3  
T/F: 943 79 29 26  
andrama@arrakis.es

#### ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4  
T: 943 71 25 49  
F: 943 71 17 79  
asegi@asegim.com

#### TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36  
T: 943 76 90 83

#### ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.  
T: 943 71 21 12  
F: 943 71 22 68  
zenbaki@zenbaki.es

### ARKITEKTO TEKNIKOAK

#### JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4  
T: 943 76 53 53

### ETXE ADMINISTRAZIOAK

#### URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.  
T: 943 79 51 25  
F: 943 71 19 85  
uribesalgo@telefonica.net

### PROKURADOREAK

#### JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

DONOSTIA / Easo 57-3 esk.  
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

## ZABALIK

TXIPI ORMAETXEA  
'http://goiena.net/iritzia/'



## Gonbidatu bakoak etxean

Astelehenean, auzoak telefonoz: inguruan lapurretan dabilzala eta badaezpada etxetik pasatzeko. Beti pentsatu izan duzu gerta litekeena dela, baina aldi berean zuri ez zai-zula tokatuko sinetsaraziz engainatzen duzu zeure burua. Ba, oraingoan bai, loteria ez zaizu egokitu, baina etxean sartu zaizkizu. Atea zabaldu orduko ohartu zara norbait ibili dela barruan, ordena zure bertute nagusia ez bada ere dena baitago nahas-mahasean. Film batzuk ikusiak zarenez, ez duzu ezer ukitzen eta ertzainei deitu diezu, nahiz eta jakin ez dizutela asko konponduko. Arratsaldea izorratu dizute (ez, ertzainek ez, etxean sartu direnek). Eta gauean ere ez dakizu lo lasai egingo duzun; izan ere, ertzainetako adituenak dioenez, lapurrek bidea prestatu dute hurrengo batean sartzeko eta gauza pisuagoak (oraingoan diru eta bitxien bila sartu dira, antza) eroateko.

Oroitzapenetan atzera egin duzu eta gogora ekarri duzu orain hogeitaka urte New Yorken egon zineneko hura. Hango gauza ederrez gozatzeaz landa, han bizitzerik ez zuela merezi ere akorduan duzu: hango bizimodu azkarra, jendearen beldurra, hango alarma eta segurtasun-kontuak. "Askoz hobeto bizi naiz nire Tobera maitean", zuk zeure artean.

Akorduetan gertuago, Puerto Ricon ikusiak ere asaldatu zintuen: etxeetako leihoak burdinazko barra lodiz josita. Egia osoa esateko, han delinkuentzia handiagoa da hemen baino, egunero daude hildakoak.

Baina nago hemen ere kanpoko eredu horiek nagusitzen ari ez ote diren. Gero eta alarma gehiago ikusten da bazterretan (neu ere pentsatzen ari naiz gutxienez alarma-papera ipintzeaz), ateko morroiloari hainbat buelta ematen dizkiogu, baita etxe barruan gaudenean ere...

Akorduekin jarraituz, nire ametsa haurtzaroan dago: orduan beldur gutxiagorekin bizi ginela uste dut, etxeko atea zabalik egoten ziren egun osoan... Edo idealizatzen ari naiz?

"Haurtzaroan beldur gutxiagorekin bizi ginela uste dut"

## USTEAK USTE

TXOMIN MADINA | 'tmadina@goiena.com'

## 'Bielieber'-en beldur

Inguruan nerabeak badituzue bai; bestela, baliteke Justin Bieber nor den ez jakitea. 16 urteko umemoko kanadarra da, Interneti esker fama mundiala lortu duen abeslaria. Haren zaleak, *bielieber*-ak, ez dira nolana hikoak: Bieberren kontrako edozein kritikaren aurrean bortizki erantzuten dute, batez ere Interneten. Azken ekintza? Grammyetan euren idoloaren partez saria lortu zuenaren Wikipediako orriari eraso egitea. "Umeke-riak...", esango dute askok, eta halaxe da. Baina ez al da kezka-garria iritzi bera ez duenari era anonimoan erasotzeko Internetek ematen duen askatasuna? Erasotzeko beharrea, zerbaiten alde egiteko erabiliko balitz, behintzat...

## MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | 'http://goiena.net/iritzia/'



## HANDIK ETA HEMENDIK

## Periferikoa

Anjel Lertxundi Esnal  
http://berria.info/blogak/lertxundi/

Zentroaren distira itsugarririk gabe ez baitago periferiarik, zentrotik gero eta gehiago urrutiratu, periferiak orduan eta ahulago jasotzen du hango argia. [...]

Herenegungo teleberriak *periferikoa* deitu zion Agustí Villarongari. Alex de la Iglesia galtzaileari, ez. Sariak Madrilek emanak izaki, biak dira periferikoak bai geografiaz, bai antolamendu politikoaren arabera.

Orduan, zergatik Villaronga periferikoa da eta de la Iglesia ez? *Pa negra* (Ogi beltza) saritua katalanez dagoelako, ez zait besterik bururatzen. EITBrentzat katalana periferia linguistikoa baldin bada, logikaren alde maltzurak iradokitzen du euskara ere ez ote duen halatsu. Eta arropaladan dator galdera: txoritxoak non dauzka zentro politikoa, kulturala eta linguistikoa?

Oharrak (Post scriptum):  
Periferikoa: bigarren mailakoa, garrantzi gutxiagokoa, boteretik urrutiratu, marjinatu... (hiztegietatik).

Periferia kulturala: estatuko kultura indartsu hemenogikoaren menpe bizi nahi ez duten kulturen erresistentzia... (hiztegiatiko lerro artean irakurri daiteke).

## Zikloturistak, ziklo asko, turismo gutxi

Jon Torner  
http://argia.com/erredakzio-mahaia/jon-torner/

Ekainean Quebrantahuesos bizikleta martxa ezaguna egingo da Jaca (Espainia) inguruan. Ahal den moduan bukatzeko helburuarekin aterako dira batzuk, ahalik eta denbora onena egiteko asmoz besteak. Irabaztea izango dute batzuek xede.

Quebrantahuesos martxa bat baita, baina (profesional frustratu batzuentzat) lasterketa izaera hartu duena, denbora eta sailkapen ofizialekin. "Zikloturistaren eredu zaharkiturik dago", diote Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako txirrindularitza federazioetatik: "Eredua berplanteatu behar da, Europa ispilu gisa hartuta. Ez daude irteera bateratuak -tropelak banatuta abiatzen dira-, ez

denborarik, ez sailkapenik". Gurean, zikloturista asko lehiatzera ateratzen dira horrelako probetan, markak apurtzera. Entrenamenduetan 3.000 kilometro ez dira paisaiaz gozatzeko egiten.

Sarri entzun dugu martxa zikloturistak konpetizio bihurtu direla, baina harritu egin gara etiketa hori Jaurlaritzaren Barne Sailak bere egin duela irakurtzean. "Araudi berriak proba zikloturistak lasterketatat joko ditu", dio *Deia*-k. Horrek esan nahi du litekeena dela martxa ugari bertan behera uztea, Gipuzkoako guztiak, adibidez, ez dagoelako nahikoa ertzain ohiko lasterketen eta hala izendatu berri dituzten proben beharrianak kubritzeko. Barne Sailak ez du ziklistengatik ertzain gehiago mobilizatu nahi: asteburu lau lasterketa egin ahal izango dira herrialde bakoitzean. [...]

Barne Sailaren -eta federazioen- erabakia neurritz kanpoko da, zentzugabea eta mingarria, baina gure burua zikloturista gisa hartzen dugun askorentzat ikasgai ona izan daiteke. Agian, irteera lerroan ordulariari beste begi batzuekin begiratuko diogu. Edo etxean lagako dugu, nork daki.

goiena  
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatibea Elkarteak  
E05 Basabe Poligonoa,  
20550 ARETXABALETA  
Lehendakaria Estepan Plazaola  
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate  
Erredaktore burua Monika Belastegi  
Sailak arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diselina), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.  
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiriano, Zorrotza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.  
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate  
Harpidetza eta banaketa Maria Leturia  
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA  
BERGARA 20570: Ibarra, 6  
Tel.: 943 25 05 05 | Fax: 943 25 05 12  
papera@goiena.com

ORDEZKARITZAK  
ARRASATE 20500:  
Otalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05 | Fax: 943 25 05 00  
arrasate@goiena.com  
ARETXABALETA 20550: Durana 11  
Tel.: 943 79 86 21 | Fax: 943 77 18 54  
aretxabaleta@goiena.com


Publizitatea Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
Fax: 943 25 05 09 | publi@goiena.com  
Harpidetza Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50  
harpidetza@goiena.com  
Lege Gordailua: NA-3329/2000  
ISSN: 1571-1210  
Tirada: 20.100 ale.  
Difusioa: 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

LAGUNTZAILEAK



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



**Angel Garai** | Gipuzkoako Botikarien Elkarteko presidentea

# "Eraginkorragoa da gau guztietan zabalik dagoen farmazia bakarra"

- ▶ Eskualde osorako gauzez zerbitzu emango lukeen farmazia bakarraren aldekoa da Garai
- ▶ Gaur egun lau farmaziak ematen dute zerbitzua gauero; oso jende gutxik darabilte

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Errezeta elektronikoa, gaueko guardiako zerbitzuez eta biharamuneko pilulaz dihardu, besteak beste, Angel Garai mondragoe-tarrak. Gipuzkoako botikarien burua da.

**Zertan da Eusko Jaurlaritzarekin sinatu duzuen hitzarmena errezeta elektronikoa abian jartzeko?**

Finantzazio iturriak hitzartu ditugu. Alde teknikoarekin gabilta orain botikariok eta Jaurlaritzako Osasun Saila. Abendurako abian jarri nahiko luke Jaurlaritzak, baina uste dut datorren urtera arte ez dela izango errealitate.

**Ze izango da?**

Informazio sistema bat da eta kudeatzen du herritarren tratamenduaren historikoa. Medikuek botika bat agintzen duenetik farmazian erosten denera arte. Informazio guztia gordeta geratuko da sendagai historiko elektronikoen baten. Fitxa bakarrean. Datu guztiak sistema informatiko baten gordeko dira. Paperik barik.

**Konplikatu da sistema abian jarri eta kudeatzea?**

Bai. Osasun datuek segurtasun handia behar dute. Ondo egin behar dira gauzak. Osasun sisteman daude lehen arreta, espezializatua, zaharren egoitzak, erizaintza... Agente guztiek, hau da, medikuek, erizainek, botikariek, erabiltzaileek... izango dute informazioa fitxa bakarrean.

**Zein da botiken eta osasun etxeen arteko harremana?**

Txarra ez da, baina ezta oso estua ere. Errezeta elektronikoa tresna izango da harreman hori sendotzeko. Botikariak izango du pazientearen tratamendu terapeutiko osoa ikusteko aukera. Horretaz gain, errezetarik behar ez duen botikaren bat erosten badu bezeroak, hori ere fitxan sartuko da eta, hartara, medikuek izango du informazio hori ere. Oso lagungarria izango da medikuarendako.

**Erabiltzaileari ze onura ekarriko dio errezeta elektronikoa?**

Bereziki gaixo kronikoei lagunduko die. Errezetaren bila ambulatorki zertan joan ez dute izango. Bestetik, sistema oso zehatz eta segurua izango da. Eta, horretaz gain, informazioa kudeatuz, urte osorako terapia plana antolatu ahal izango du medikuek. Buruan horrenbeste datu eduki beharrik ez du izango. Informazio guztia fitxa elektronikoa izango du: botika zelan erabili, ze dosi, zertarako, zen-



Angel Garai, Goienaren Arrasateko egoitzan, martitzenean. | ENEKO AZKARATE

batean behin... Medikuek, botikariak eta erabiltzaileak konpartituko dute informazioa.

**Txartel bat izango da?**

Ez. Txip batek jasoko du sistemara sartzeko gako. Sinadura digitalarekin sartu ahal izango dira pazientearen fitxara medikuek, botikariak eta erabiltzaile bera. **Gure eskualdean zenbat botika daude?**

23 dira, guztira: 8 Arrasaten, 5 Bergaran, 4 Oñatin, 2 Aretxabaletan eta gainerako herrietan bana, baita Aramaion ere; Leintz Gatzaga-

**"Errezeta elektronikoa abian jarri nahi dute abenduan"**

**"Botikariak izango du pazientearen tratamendu terapeutiko osoa"**

gan izan ezik. Ondo hornituta dago alde horretatik eskualdea. **Eskualdeko zein herritan eskaintzen dituzue guardiako farmaziak?**

Debagoienean bost herritan ematen dugu gaueko guardiako farmazia zerbitzua eta gauero lau botika ditugu zabalik. Beste lurralde batzuetan ez da horrenbeste farmazia zabalik egoten gauzez. Aretxabaletako eta Eskoriatzako hiru botikarien artean, urteko 365 egunetan eman behar dute gaueko zerbitzua.

**Zenbat erabiltzen da?**

Oso gutxi. Ia ez du zerbitzurik ematen. Alderantziz izango balitz, ulergarria izango litzateke, baina errealitatea da oso jende gutxik darabilela eta bertako botikariei buruhauste handiak sortzen dizkietela. Osasun arazoren bat, larrialdi bat daukanak, jeneralean, Arrasateko eskualde ospitalera jotzen du gauzez. Eta han jartzen diote medikamentua. Hortaz, ez da logikoagoa eta eraginkorragoa, denondako, ospitaletik gertu eta gau guztietan zabalik egongo den farmazia bakarra? Baina Eusko Jaurlaritzak ez digu baimenik eman horretarako.

**Tabakoaren Legea dela-eta, errezetari lagatzeko, botika, produktu edo bestelako gailuen salmenta handitu egin da?**

Bai, batez ere zigarro elektronikoen salmenta. Partxeak, txikleak... gutxiago saltzen dira, baina erremedio hobeak direla iruditzen zait. Erretzeari uzteko nahia edo borondatea da garrantzitsua, eta zigarro elektrikoak ez ditu jarrerak aldatzen.

**Zela eragiten dizue botikariei osasun arloan gobernuek-eta azkenaldian hartu dituzten neurriek?**

Ekonomikoki, triskantza handia izan da. Krisi ekonomikoa dela-eta, gobernuek hartu dituzten neurriek zuzen-zuzenean eragin digute. %90 jaitsi dira irabaziak. Farmazia itxi beharrean izan dira batzuk.

**Sendagaien dosia ere mugatu nahi dute.**

Ez dakigu zela bideratu nahi duten. Helburua botikak norberaren beharren arabera saltzea da. Zortzi pastilla behar badituzu, ba zortzi erosi, kaxak 10 ekarri arren. Ikusi behar.

**Eskuko telefonoetan guardiako farmazien eta bestelako zerbitzuen gaineko informazioa eskaintzen duzue. Erabilia da zerbitzu hori?**

Gehienbat gazteek darabilte. Gipuzkoan, 5.000 lagun-edo izango dira. Oso zerbitzu-informazio zehatz, egiazko eta ona eskaintzen dugu. **Biharamuneko pilula errezeta barik saltzen duzue botiketan. Arazorik sortu dizue horrek?**

Ez. Lehen baino gehiago saltzen da. Medikuek doan ematen dute botika hori, baina farmazietara errazago joaten da jendea biharamuneko pilularen bila, ordaindu beharra badauka ere. Hau ez da, hala ere, antisorgailu sistema, larrialdiko neurria baizik. Hormonen lehegailu bihur daitezke txarto erabiliz gero.





# Goiena telebista ikusten ez baduzu, berriro sintonizatu

**Hainbat aldaketa egin ditugu Muruko antenan; hori dela eta, baliteke Goiena telebista ikusten zenuten hainbat etxetan orain ez ikustea.**

**Ondorengo herrietan bakarrik dute eragina:**

Leintz Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Aramaio eta Oñatin.

Kasu honetan, zure telebista berriro sintonizatu beharko duzu. Hau da, zure telebistak berriro bilatu beharko du automatikoki (edo bestela zu zeuk eskuz) Goiena telebista.

**Berriz sintonizatu, baldin-eta:**

- Aipatutako herriren batean bizi bazara.
- Telebista LTD bitartez ikusten baduzu.
- Orain arte Goiena telebista ikusi baduzu, baina orain ikusten ez baduzu.

## DUELA 10 URTE

2001-02-16

## Oñatiko lau erretaula, kultura ondasun

Oñatiko lau erretaula kultura ondasun izendatu zituen Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak: San Migel parrokiako Pietateko kaperako erretaula; Unibertsitateko Sancti Spiritus kaperakoa; parrokiako erretaula nagusia; eta Bidaurreta elizakoa. Guztira, Euskal Autonomia Erkidegoko 66 erretaula sartu zituzten kultura ondasunen erroldan. Hori horrela, erretaula horiek guztiak bereziki zaindu dituzte ordutik hona.



San Migel parrokiako erretaula nagusia. | GOIENA

2001-02-13

## Lausardi koru sinfonikoaren sorrera

Debagoieneko Abesbatza izateko bokazioarekin jaio zen Lausardi koru sinfonikoa. Bergarako Orfeoia eta Arrasateko Goikobalu abesbatzak sortu zuten, baina bailarako gainerako abesbatzei ireki zizkieten ateak. David Azurtza eta Iñaki Maidagan izan ziren Lausardi koru sinfonikoaren zuzendariak. Lehen kontzertua Bergarako San Pedro elizan egin zuten 2001eko otsailaren 17an.

## DUELA 5 URTE

2006-02-17

## Gartziak alkatetza utzi zuen

Oñatiko alkate Andoni Gartziak alkatetza uztea erabaki zuen kar-gua hartu eta 33 hilabetera. Haren lekua Lourdes Idoiak hartu zuen. "Aberasgarria izan da, jende asko ezagutu dudalako, baina era berean gogorra izan da", esan zuen alkatetza utzi zuenean. Ordutik hona zinegotzi lanak bete ditu.

## OÑATI

**Joxe Junko** Argiketaria da Joxe Junko oñatiarra, baina mila saltsatan sartuta ibiltzen delako ezagutzen dute askok. Aratuste-martitzenean bikote egingo du Anton Bengoarekin | MIREIA BIKUÑA

# "26 urterekin utzi nituen futbola eta kirola; izan ere, bateraezinak ziren parrandarekin"

**M**ozorrotuta joanda ere, berehala ezagutzen dute Joxe Junko (Oñati, 1950) Aratuste-martitzenean eta Bixamon Egunean. Egun horiek gorritz markatzen ditu egutegian, baita irailaren 28a ere: San Migel jailetako danborrada.

## Prest duzu Aratusteetarako mozorroa?

Beste behin, Anton Bengoarekin mozorrotuko naiz, baina oraindik ez dakigu zertaz. Izan ere, Antonek anaia bikia du Aretxabaletan, eta eurek erabiltzen duten mozorroa janzten dugu guk. Hori horrela, oraingoaz, sorpresa...Iaz, adibidez, sardinak saltzen ibili ginen.

## Baina mozorrotuta ere ezagutzen zaituzte.

20. aldiz irtengo gara Anton eta biok; eta bai, bikote bat mozorrotuta ikusten dutenean, bada-kite Anton eta biok gabela.

## Dena den, Aratuste-martitzenak indarra galdu du herrian.

Bai. Lantegietan lan egiten dute eguaztenean, eta horrek eragina dauka. Autonomo garenok jai hartzeko aukera gehiago ditugu. Umeek disfrutatzen dute gehien egun horretan. Adibidez, Bixamon Eguna berpiztu egin da, enpresa gehienek hurrengo egunean jai dutenetik.

**Mozorro guztiak probatu dituzu?** Guztiak ez dakit, baina asko: peruarra izan naiz, japoniarra, Pancho Villa, jazz taldeko kidea, mariachia, emakumea... Etxean 12 bat mozorro ditut.

## Originala izan daiteke mozorro bat egiterakoan?

Nik uste du baietz. Begira, bestela, Tolosan eta Aratusteez tradizioa duten lekuetan zer-nolako mozorroak egiten dituzten.

## Bixamon Egunean taldean mozorrotzen zarete.

Urteko beste egun inportantea da. Egun horretarako mozorroak erosi egiten ditugu. Irailean hasten naiz gaia lantzen. Ni ardurtzen naiz taldeko kideendako mozorroak erostez. Iaz mariachi mozorroa erosi genuen: 80 euro ordaindu genituen. Taldeko kideak gara: Kepa Txintxurreta, Kalin Agirre, Juanra Biain, Fernando Diaz, Anton Bengoa eta ni neu. Egutegian kolore gorritz duzun beste egunetako bat irailaren 28a da, danborrada eguna.

Danborradan 32 urterekin hasi nintzen, eta 60 ditut. Danborra jotzen ikasi nuen soldadutza egin nuenean, Melillan. Banda militarreko kide izan nintzen. Oñatira itzuli nintzenean, Urrutia zen danbor-jotzaile nagusia eta haren bidez sartu nintzen.

## HERRITARRAK



Joxe Junko, bere bulegoaren sarreran. | MIREIA BIKUÑA

## "20. urtez jarraian mozorrotuko naiz Aratusteetan Anton Bengoarekin"

## "Danborra jotzen ikasi nuen Melillan, soldadutza egin nuenean"

## Agian jendeak ez dakiena da futbol jokalaria izan zinela?

Eta oso ona, gainera [Barre]. Aurrelari moduan jokatu nuen Aloñan 11 urtean, eta maila handiko jokalariek: Santi Idigoras taldekide izan nuen eta Inazio Kortabarría aurkari, Mondran. Soldadutza joan nintzenean, hirugarren mailan jokatu nuen, Melilla Industrial taldean.

## Zergatik utzi zenuen?

26 urterekin erabaki latzaren aurrean nengo [Barre]: futbola edo parranda. Biak bateraezinak ziren, eta bigarrenaren alde egin nuen. Dena den, futbola utzi eta urte berean, beterranoen lehen txapelketa antolatu nuen: zortzi talde lehiatu ziren. Herriko futbol txapelketako lehen presidentea izan nintzen, eta begira zer-nolako bilakaera izan duen txapelketak: gaur egun, 11 talde eta 500 lagun baino gehiago dabilta.

## NIRE HERRIAN

### HERRI EDERRA

Herri dotorea dugu: ingurune eta paraje ederrak eta giro jatorra dituen. Nire emaztea Eskoriatzakoa da eta Arrasaten egiten du lan, baina oso gustura bizi da Oñatin. Herri lasaia da, zerbitzu asko dituen... Egia esatearren, ez nuke bizilekua aldatuko ezergatik. Oso gustura bizi naiz.

### AUTONOMOEN TRABAK

Autonomoa naiz, argiketaria, eta askotan kexatu naiz traba asko ditugulako. Zamaketa lanak egiteko toki gutxi ditugu, eta, Herriko Plazan lanen bat egin behar badut, ez daukat autoa uzteko lekurik. Bestalde, Errekalden bizi naiz, eta eraberritze lanekin aparkaleku asko kendu dituzte.

## Hamabost egunean behin Anoetara joaten zara Reala ikustera.

Aloñaren jarraitzaile eta Realaren bazkide naiz. Anoetara joaten naiz disfrutatzen. Aurten, gainera, joko polita egiten dihardu taldeak, eta gehienok espero baino puntu gehiago batu ditugu dagoeneko. Hori horrela, mailari eusteko arazorik izango ez dugula uste dut. Eta, akaso, beste helburu batzuk planteatu beharko ditugu.

## Reala bigarren mailan egon zenean ere bazkide zinen?

Bai. Urte gogorrak izan ziren, baina dagoeneko ahaztu ditugu. Duela urte asko egin nintzen bazkide, baina atzerritarrak kontratatzeke galdeketa egin zutenean, kontrako botoa eman nuen. Orduan, Aldridge fitxatu zuten, eta bazkide izateari utzi nion. Urte batzuk geroago, berriz egin nintzen bazkide, eta oso gustura joaten naiz.

# HERRIAK



Aita Gabriel Jauregi kaleko etxebizitzaren auzia agintaldi amaierarako konpontzea espero du Aramaiok Udalak. | JOKIN BEREZIARTUA

## ARAMAIO

# Pribatu izatearen onura barik, gune publiko bihurtu nahian

- ▶ Aita Gabriel Jauregi kaleko U-E-4 eta U-E-6 blokeetan dago arazoa
- ▶ Legez pribatua da; 14 urteren ostean, Udala publiko egiteko bidean dago

### JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Aita Gabriel Jauregi kaleko etxebizitzaren auzia soluzio bidean dago. U-E-4 eta U-E-6 deritzen lursailetan dago arazoa: etxeak egiteko lizentziak 1997ko otsailaren 5ean eman ziren eta egin beharreko tramitazio pauso bat eman ez zelako, legez pribatuak dira bi lursailak. Praktikan, baina, erabilera publikoa ematen zaie bertako espaloi, lorategi eta gainerako hiri-altzariei.

Legez, enpresa eraikitzailea derrigortuta dago erosi duen lursailaren barruan etxebizitzak inguratzen dituen gunea Udalaren esku uzteko. Baina pauso administratibo hori ez zen eman bere garaian. Elza izan zen enpresa eraikitzailea, eta, Asier Agirre alkatearen arabera, enpresa horren eta Udalaren arteko hanka-sartzeak eragin du arazoa: "Orduko Udala Gobernuak egindako hanka-sartze bat konpondu beharrean izan gara. Orain, behintzat, soluzioaren bidean dago arazoa, osoko bilkuran onartu genuen-eta erabilera publikoa duen gunea Udalaren esku uztea".

### Agintaldi amaierarako konpondu

Esan bezala, auzia soluzio bidean dago. Astelehenean egindako ezohiko bilkuran, lursailak Udalaren esku uzteko dokumentua aho batez onartu zen. Udalak espero du agintaldi amaierarako lursailak Udalaren esku uztea.

Oraindik, baina, bide luzea dago egiteko, Jesus Larrañaga bizilagunaren arabera: "Oraingoan, ez da arazo handirik izan Udalarekin. Are gehiago, egungo Udala lan ona ari da egiten eta baikorrak gara konponbide bat emango diotela. Baina orain, eskriturak aldatu beharko dira eta horrek gastu bat ekarriko du. Ez dakigu guk ordaindu beharko

dugun, eta hor arazoak sor ditezke. Baina hori etorkizuna da eta ez dezagun gertakaririk aurreratu".

### "Utzikeria eta inkompetentzia"

Arazoa sortu duten arrazoi gainean, alkateak uste du hanka-sartzea "utzikeriak eta inkompetentziak" eragindakoa izan zela: "Esperientzia faltak eragindako akatsa izan zela uste dugu, inork ez du-eta interesik Aita Gabriel Jauregiko etxeak pribatuak izan daitezzen; ez da inor irabazle irreten".

Auziak gastu batzuk ekarri dizkio Udalari, besteak beste, bertako abokatuak "lan asko"

egin behar izan duelako. Larrañagak, bestalde, presea eta presioak eragindako akatsa izan zela suposatzen du: "Etxebizitzak lehenbailehen eraikitzen hasteko presioak irabaziko zion seguruenik tramite guztiak ondo egitearen aukerari".

### 27 etxebizitza

Eta gaur egun, zein da egoera? Jesus Larrañagak adierazi duenez, Aita Gabriel Jauregi kaleko farolen kontsumoa, esaterako, bizilagunek ordaindu beharko lukete. Horrez gain, lursail horietan edozein ezbehar egonez gero salaketa etxebizitzaren jabeen joango litzaiekeela ere ez dute ulertzen. Oraingoan, Larrañagak dakiela, behintzat, ez da ezer larririk gertatu, baina ezer gertatu baino lehen lurren lagapena egin gura dute.

27 etxebizitza daude Aita Gabriel Jauregi kaleko E-U-4 blokean. 27 familia, beraz. Gainera, lursail horietan bestelako ondasunak -garajeak, esaterako- dituzten beste herritar batzuk ere badaude.

## Akats teknikoek eragindako arriskuak

Aita Gabriel Jauregiko lursailetan akats teknikoak daude. Esaterako, zabaldu berri den eguneko zentro berriaren ondoko eskailerak oso arriskutsuak dira euria egiten duenean. Eskailerak horiek iparraldera ematen dute eta hotz handia egiten du bertan. Hala, ura izozten denean, eskaileretatik ibiltzea oso arriskutsu bihurtzen da, batez ere pertsona edadetuendako.

### JESUS LARRAÑAGA BIZILAGUNA

**"Ez gara mugitu ezbeharren bat gertatu delako, gerta litekeelako baizik"**

Jesus Larrañagak gertutik jarraitu du prozesua, komunitateko administratzaile zela konturatu zen arazoa.

### Nola ohartu zineten zuen etxeekin gertatzen zenaz?

Egoera txarrean zegoen horma bat konpontzeko, norena zen jakin gura genuen. Orduan konturatu ginen horma hori bakarrik ez, gainerako guztia ere gurea zela.

### Beraz, legez etxebizitzaren jabeak zarete arduradun hemen gerta daitekeenaz.

Udaleko abokatuak bere garaian azaldu zidanez, legez, kalea argizatzen duten farolen kontsumoa guk ordaindu behar dugu, adibidez. Horrek ez du zentzurik. Ez gara mugitu ezbeharren bat gertatu delako, gerta litekeelako baizik.

Gainera, demagun izotza dela -eta eroriko batengatik salaketa jartzen dutela. Jabeon kontra litzateke? Ez du zentzurik. Bestalde, edonork erabil dezakeen espaloiak apurketak badaude, guk ordaindu behar ditugu? Bada, ez. Lursaila hesi batez inguratuta balego ulertzekoa da, baina ez da hala. Kalea erabat publikoa da.



J.B.

## ESANAK

**"Orduko Udala Gobernuaren hanka-sartze bat konpondu behar izan dugu"**

**"Inork ez du interesik etxeok pribatuak izan daitezzen, ez dago irabazlerik"**

ASIER AGIRRE | ARAMAIOKO ALKATEA



Udalatxeko mendi magalean agerikoak dira mendi barrura sartzen diren galeriak. | UBANE MADERA

# Harrobiaren etorkizuna, agintari berrien menpe

Industria Sailak hilabete pare baten jakinaraziko du mendi barruko meategirako baimena ematen duen edo ez

UBANE MADERA | ARRASATE

Arrasateko Udalak hiruzpalau hilabeteko epea eman dio Kanpanzar Harrobiari Udalatx barruko ikerketarekin amai dezan. Bestela esanda, mendi barruan harrobia egitea bideragarria den edo ez jakiteko 2005ean abiarazitako ikerketa amai dezan.

Epe hori bukatuta, harrobiko arduradunek beste baimen bat eskatu beharko diote Arrasateko Udalari. Oraingo honetan, baina ikerketa baimen barik, ustiapen baimena eskuratu eta, hala, mendi barruko meategi bilakatzeko, mota horretako Estatuko lehena.

## Oraingo Gobernu ados ez

Oraingo Udal Gobernu ados ez dago ados meategi mota horrekin, eta ez du halako baimenik emango. Baina legealdi amaiera da; beraz, Udalera sartuko diren agintari berrien esku geratuko da baimena eman edo ez erabakitzea.

## Zigor espedienteak

Bien bitartean, Arrasateko Udalak harrobi horren kontra zabalik duen zigor espedienteak aurrera egingo

du. Ino Galparsoro alkatearen esanetan, Udal Gobernuak ikusi du harrobiak ikerketa proiektutik kanpo dauden lanak egin dituela eta aurreikusitakoa baino gehiago zulatu dutela mendia; horretxegatik gura diote isuna ipini.

## Errekurtsioa ipinita

Juan Luis Etxebarria harrobiko kudeatzaileak onartu egin du gehiago zulatu izana, baina adierazi du horri esker orain "informazio askoz gehiago" dutela proiektu berria diseinatzeko. "Fagorrek garbigailu berezi bat

egiteko baimena balu, eta garbigailuaz gain labea ere egingo balu, hori ona izango litzateke, ezta? Ba gauza bera da", adierazi du.

Horrela, Udalaren zigor espedienteari buruz adierazi du ez daudela ados eta errekurtsioa dutela ipinita administrazioarekiko auzietako auzitegian. "Gero, Udalaren baimena lortzen badugu, ikusiko dugu erretiratu edo zer egin", gaineratu du.

## Udalarekin adostasuna gura

Kanpanzar Harrobiko gerentek emandako informazioaren arabera, harrobiak badauka Jaurlaritzaren ingurumen eraginaren gaineko aldeko txostena meategi moduan mendi barrutik harria ateratzeko. Orain, berriz, esploatazio proiektua tramitatzen dabil, Industria Sailean. "Hilabete pare baten jakingo dugu onartzen duten edo ez; hala ere, argi daukagu oso inportantea dela Udalarekin ere ados egotea, eta bertara ere joko dugu lizentzia eske. Baina legealdia bukatzeaz dagoenez, hori agintari berriek erabaki beharko dute".

## Baserriko produktuak, bertatik bertara, Seber Altuben

U.M. | ARRASATE

Hileko hirugarren zapatua izanda, bihar, 09:30ean hasi eta 14:00ak arte baserriko kalera eroango dituzte bertan ekoiztutako produktuak.

Oraingo honetan, 11 baserriar elkartuko dira Seber Altube plazan. Horietatik sei etxeok, Arrasatekoak: Ikutixoko, Etxe-

barriko, Euzketa Aldeko eta Mietzako barazkiak izango dira; Askasibarko barazki ekologikoak; eta Bidasoroko barazkiak eta gazta.

## Kanpoko gonbidatuak

Kanpoko gonbidatuen artean, berriz, Tolosatik ahuntz-gazta ekarriko dute, Zarautzik landare

ekologikoak eta gertuagotik, gure ibarretik alegia, Bergaratik fruta eta baso-landareak eta Aretxabaletatik haragi ekologikoa.

## Otarre zozketa

Bestalde, ohi bezala, 13:30 inguruan baserriko produktuz osatutako otarrea zozketatuko dute azokan parte hartzen dutenen artean. Egunean bertan entregatuko dute otarrea.

Baserritarren azokako hurrengo hitzordua martxoaren 19an izango da.

## Irrati-zaleek Gatzagainera irteera egingo dute domekan

U.M. | ARRASATE

Uhin bitartez bestelako irrati-zaleekin berba egiteko asmoarekin, Gatzagainera ingurura (Marisa jatetxe ondora) joko dute Arrasateko Irrati-zale kultura elkarteok etzi, domeka.

## Mundu guztiarekin

Euren antena eta komunikazio ekipoak aldean hartu, eta asmoa da ahalik eta urrunen bidaltzeko hemengo uhinak. "Bi ekipo muntatuko ditugu, bata VHFn transmititzeko eta bestea HF bandan transmititzeko. Lehenengo erabilia, propagazio troposferikoaren bitartez, 1.000-2.000 kilometroko distantzia lor daiteke.

Bigarren kasuan, eguzkiaren laguntzarekin (propagazio ionosferikoa) mundu guztiarekin berba egiteko erabil daiteke", adierazi dute.

Adibide moduan ipini dituzte Mexiko, Argentina eta halako herrialdeetako irrati-zaleekin berba egitea lortu dutela egin izan dituzten irteeretan.

## Lokal barik

Arrasateko Irrati-zale kultura elkarteak 20 urte pasatxo ditu. 15 bat lagun dira bertako kide, eta, azkenaldian lokal barik geratu diren arren, eskerrak eman gura dizkiote Udalarirekin duen jarrerarengatik eta orain arte egindako irteeretan laguntzeagatik.



Irrati-zaleak, Udalara egin zuten irteeran. | GOIENA

## Aratustetarako gonbidapenak martxoaren 1a aurretik

Martxoaren 8an, martitzena, 18:30ean ospatuko dituzte Aratustek Abaroa zaharren egoitzan. Baina parte hartzeko beharrezkoa izango da gonbidapena eramatea. Bada Abaroatik gogora ekarri gura dute dagoeneko eskura daitzekela gonbidapenak, martxoaren 1era bitartean, bazkide txartela aurkeztuta.

## Korrika 17ko herri batzordea datorren astean egingo dute

Korrika Batzordearen hurrengo batzarrerako deialdia egin dute: martitzenean egingo dute, otsailaren 22an, AEDko egoitzan, Pablo Uranga kalean. "Batzar irekia denez, norbaitek ideien bat badauka, etor dadila", esan dute. Batzar horietan, Korrikarekin lotutako ekitaldiak antolatzen dituzte.



UBANE MADERA

## Agertokia bizi-bizi Monterronen

Erabili deigun lelopean, Arrasateko Helduen Heziketako 20 bat ikasleek Monterrongo agertokia oinarri hartu eta artelana osatzeko erabili zuten eguaztenean. Garaion Naturatea proiektuaren barruan ohi duten moduan, naturak emandako elementuak erabilia (egurra, lastoa, zumea, soka...) instrumentu musikalez bete zuten Monterrongo agertokia, gutxiegi erabiltzen den agertokia delako, gazteen iritziz.

## Aritz Arrieta "gogotsu" dator sozialisten alkategai moduan

Herria garbitu, segurtasuna bermatu eta, besteak beste, gainerako erakundeekiko harremanak indartu gura ditu

UBANE MADERA | ARRASATE

Alderdi sozialistak Aritz Arrieta musakolarra aurkeztu du maiatzaren 22ko hauteskundeetan Arrasateko alkate izateko. Miguel Buen Gipuzkoako diputatu nagusi izateko hautagaiak egin zituen aurkezpen lanak martitzenean Kulturaten; nabarmendu zuen Arrieta gaztea dela, baina "politikan eta bizitzan esperientzia" baduena.

### Herriaren "gainbehera"

Aritz Arrietari dagokionez, hark azpimarratu zuen Arrasateko Gobernuan aldaketa etorriko den "sentsazioa" duela, eta hori sozialista baten eskutik etorriko dela.

Azpimarratu zuen "ardura" handia dela berak hartu duena, baina "lanerako gogotsu" eta "guztia lortzeko gertu" gertu datorrela, "Arrasateko duena baino gehiago merezi duelako".

Udal Gobernuaren jardunaren gainean, berriaz, salatu zuen Eusko Abertzale Ekintzak (Alternatiba-Zutik koalizioa, Aralar eta EAren laguntzarekin eta EAJren ausentziarekin) Gobernu hartu zuenetik, herriak "gainbehera izugarria" jasan duela, bereziki "zikinkeria eta segurtasun faltari" begira. Gainerako erakundeekin (Batzar Nagusiak, Jaurilaritza...) duen harreman falta ere nabarmendu zuen.



Alderdi sozialistako militante bat, Miguel Buen, Paco Garcia, Aritz Arrieta eta Miren Lorea Lana. | UBANE MADERA

### Sozialisten programaren pintzeladak

#### AUZOAK INDARTU

Sozialisten asmoetako bat izango da herriko auzoak indartzea, bereziki irisgarritasunari dagokionez.

#### ZIKINKERIA ETA

**SEGURTASUNA** Herriaren garbitasunean lan egin gura dute, eta baita "askok salatu duten segurtasun faltari" aurre egin.

#### TURISMOA BULTZATU

Uste dute Arrasatek erakargarriago izan behar duela turistiko.

#### KULTURA

Ekintza kulturalak indartzeko asmoa dute, kulturen arteko harremana bultzatuz eta, besteak beste, Erdi Aroko azoka berreskuratuz.

#### LANA TOPATZEKO

**JARDUNALDIAK** Enpresak bertara erakarrita, lan eskaintzak trukatzeko jardunaldiak egin gura dituzte.

#### HIRIBURU IZAERA

Arrasatek "galduta duen" bailarako hiriburu izaera berreskuratzen ahaleginduko dira.

### Diputazioaren konpromiso falta

Diputatu nagusi izateko Miguel Buen hautagaiak, berriaz, esan zuen Arrasaten Gobernu aldaketa egotea "baltzamikoa" izango litzatekeela herriarendako, eta herritarrek gonbidatu ditu "sozialistek egin zuten moduan, beldurrak uxatzen eta maiatzaren 22an botoa ematera joan daitezten".

Bestalde, salatu zuen Diputazioak konpromiso falta duela Arrasateko. Adibide moduan, besteak beste, aipatu zituen mendebaleko saihebidia (Olandixo) 6-8 urteko atzerapenarekin zabaldu izana; geraleku intermodala egin ez izana; eta Bizkaiko herriekin garraio publikoaren bidez dagoen komunikazio falta.

## Euskal Herri osoko ia 50 palindromo jaso ditu AEDk

U.M. | ARRASATE

Pozik daude AEDn palindromoen gaineko lehiaketaren erantzunarekin, 47 halako jaso dituzte-eta. "Hasierako deialdia izateko, ez da kopuru makala. Helburua zen lehiaketaren berri ondo hedatzea, eta uste dugu lortu egin dugula; oso pozik gaude eta aurrera segitzeko gogoia ematen du", adierazi du Melina Lopezek, lehiaketako arduradunak.

Eta hala erakusten dute palindromoen jatorriek: Pasai Donibanetik, Donostiatik, Iruratik, Bilbotik, Eibartik eta Aretxabaletatik aurkeztu dituzte, besteak beste. "Gutxien Arrasateetik jaso ditugu, bi bakarrik", gaineratu du Melina Lopezek.

Parte-hartzaileei dagokionez, berriaz, gehienak mutilak dira, 19 eta 39 urte bitartekoak.

### Saridunak, astelehenean

Orain, jasotako palindromoak epaimahaiari bidali, eta hark otsailaren 21ean (astelehena) jakinaraziko du zeintzuk diren irabazleak.

## Ispiluarekin ondo moldatzen zara? Ondo sentitzeko presta zaitez!

### Gorputz tratamenduak

- Lokatz terapia.
- SPA urbanoa.
- Bakunterapia eta ultrasoinuak.
- Gorputz masajea...

### Terapia medikoak

(Arruabarrena doktorea, elkargokide-zk.: 6073)

- Dieta pertsonalizatua.
- Mesoterapia...



Amagara

Erdiko kalea 54 behea  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 79 09 09

### Kabitazioa



Udaberriko  
promozioa  
Kontsultatu  
konpromiso  
barik

**ZALDIBAR**

**EMAITZAK**

Iluntz-Abokajarro	4-4
Dribling-Ekaintz	3-4
Fidel & Disc-Dublin	5-5
Iriztu-Steaua del Grifo	6-2
Betrayer-McAwenDauen	9-8
Lasagabaster-Cipris	4-4
Fuxxion-Portaboleiros	3-6

**SAILKAPENA**

TALDEA	P	J
1 Ekaintz	33	13
2 Dribling	29	13
3 Cipris	28	13
4 Lasagabaster	26	13
5 Abokajarro	24	13
6 Iriztu	24	13
7 McAwenDauen	23	13
8 Dublin	21	13
9 Betrayer	18	13
10 Portaboleiros	15	13
11 Iluntz	14	13
12 Fidel & Disc.	7	13
13 Fuxxion	3	13
14 Steaua del Grifo	0	13

**PARTIDUAK (KOPA)**

OTSAILAK 19, ZAPATUA

10:00 (C) Steaua del G.-Iluntz / McAwen

11:00 (F) Iriztu-Steaua del Grifo. / \*

12:00 (D) Lasagabaster-Dublin / \*

13:00 (A) Ekaintz-Cipris / \*

16:00 (E) Fuxxion-Dribling / Fidel & Disc

17:00 (B) Fidel & Disc.-Portabol / \*

OTSAILAK 20, DOMEKA

10:00 Betrayer-A sailkatua / Abokajarro

11:00 Abokajarro-D sailkatua / \*

12:00 B sailkatua-D sailkatua / \*

13:00 E sailkatua-F sailkatua / \*

**Kopa txapelketako lehen jardunaldia asteburuan**

Liga erregularra atzean utzi -Ekaintz izan da lehen faseko onena- eta datozen bi jardunaldietan kopa txapelketak hartuko du protagonismoa.

Aurreko edizioekin alderatuta, berritasuna da bi jardunalditan erabakiko dela txapel-duna nor den; horrek bizitasuna emango dio torneoari. Hala, adi asteburuko partiduei. Izan ere, zapatuko norgehiagoka bakoitza hizki batekin dago izendatuta, eta kanporaketa bakoitzeko onena domekako kanporaketarako sailkatuko da. Bestalde, \*ikurrak esan nahi du aurreko partiduko irabazleak egingo dituela epaile lanak.



Jonathan Perez, jauzia egiten. | GOIENA

# Pertikako beteranoa "gerra" emateko asmoz doa Valentziara

Jonathan Perezek zortzigarren aldiz hartuko du esku Espainiakoan

**XABIER URTZELAI** | ARRASATE  
 "Espainiako txapelketan beternoetako izango naiz!", dio, barrez, Jonathan Perezek. Eguazten arratsaldea da, eta martitzenean Anoetan entrenatzen egon eta gero, eguaztena atsedean eguna du Euskal Herriko azken urteotako pertikalari onenak -joan den astean defendatu zuen, arazo barik, titulua-. Hala, Arrasatekoa Mojategin harrapatu du gu pertikak prestatzen, entrenatzaila ere badelako: "Eskerrak emakumezkoetan harrobi ederra

dugula, gizonezkoetan oraingo ez dago-eta erreleboa hartuko duenik. Euskal Herrian nire kontrario izan zitezkeen gazteak 20 urte betetakoan nekatu egin dira, eta pertika saltoa alde batera utzi

**"Akaso ezustea emango dut Valentzian, asmo horrekin noa"**

dute, pena handia ematen dit".

Arrasatekoa, baina, motibata dabil, oraindik gerra emateko gauza dela erakutsi nahi du-eta: "Espainiako hautatzaileak epelak esaten dizkie Jonathanen aurretik daudenei, 20 zentimetro gehiagoko saltoak egiten dituztelako, baina haiek ez dute Polmetasan zortzi ordu lan egiten, atletismotik bizi dira", adierazi digu, barrez, Perez ondo ezagutzen duen Fernando Zufiriak. Asteburuan zortzigarren aldiz hartuko du parte Espainiako txapelketan, Valentzian: "Serio nabil azkenaldian, eta gazteago nintzeneko marketatik oso gertu nago [4,91]. Nork daki, akaso ezustea emango dut Valentzian [Barre]". Jonathan Perezekin batera joango da, baita ere, Malen Ruiz de Azua: "Txapelketako atleta gazteen artean egongo da, eta pertika jauzilarien artean gazteena da, seguru. Guztira, 17 neska ibiliko dira lehian, zenbateko polita da, eta adin horrekin txapelketaz gozatzea da garrantzitsuena, txapelketan egoten den giro politaz gozatzea".

Arrasate Atletiko taldeko gaitzako atletak Gasteizen eta Donostian lehiatuko dira.

## Ford Mugarri: galdutako lidergoaren bila bihar

X.U. | ARRASATE

Ford Mugarri Arrasate eta Corazonistas gainontzekoak baino koska bat gorago daude Euskadiko txapelketan. Bost puntuko aldea dute hirugarrenarekiko; ondo bidean, bi talde horiek igoera fasean izango dira.


Baina joan den asteburuan biek ala biek ezustea izan zuten: gasteiztarrek Bergaren kantxan (34-34) eta arrasatearrek Urdulizen. Egia esateko, bizkaitarren kantxan galtzea ez da horrenbesteko ezustea, etxetik kanpo eta laugarren sailkatuaren kantxan galtzea gerta daitekeen zerbait da-eta. Arrasatekoak bihar ahaleginduko dira Askartzaren kontra Corazonistasek hartutako lehen postua erreuperatzen (16:30, Iturripe).

## Salaberri eta Azkarraga selekzioarekin egon dira

X.U. | ARRASATE

Arrasate Errugbi Taldeko jokalaria Joseba Azkarragak Euskadiko selekzioaren deia jaso du. Orain dela bi aste entrenamendua egin zuten Mojategin, eta orduan egingo dako lanari esker jaso du selekzioaren deia. Azkarragarekin batera herriko beste hiru jokalaria izan ziren lansaio hartan: Aitor Lizartazaburu, Asier Delgado eta Peru Altube.

Bestalde, ikustekoa da gazte mailakoa izan arren talde nagusian dabilen Beñat Salaberri izan duen progresioa. Iaz hasi zen errugbian, eta dagoeneko Aratz Gallastegiren deia jaso du Durangorekin ohorezko ligan lehiatzeko. Asteburuan, berriz, Maulen izan da, Euskal selekzioarekin kontzentratuta.



Joseba Azkarraga. | ART

### ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotrizitatea eta ogopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

Restaurante

UGARAN

Jatetxea

Garagartza auzoa

Tel.: 943 79 76 58

ARRASATE



Arrasateko big band taldeak Antzuolan eskaini zuen kontzertua urtarrilean. | GOIENA

# Maila handiko big band taldeak gaur Amaian

20:00etan hasiko den saioak bi zati izango ditu; etxeakoak arituko dira lehenengo eta Leioakoak gero

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Big band kontzertua eskainiko dute Arrasateko Amaia antzokian gaur iluntzean Arrasate Musikaleko big band taldeak eta Leioako taldeak. 20:00etan hasiko dute kontzertua.

Bi zati izango ditu emanaldiak: lehenengoan, Arrasateko taldeak joko du. Lau pieza eskainiko ditu Zigor Martinezek zuzentzen duen taldeak: *Sandunga*, Arturo Sandovalena: *Blue Skaies*, Irving Berlinena: *The 8<sup>a</sup> avenue March*, Bob Mintzerrena; eta *Fever*, John Davenportena.

**Leioako taldean 21 musikari**

Leioako big bandak izango du kontzertuaren bigarren zatia girotzeko ardura.

2007an sortutako taldearen zuzendaria Oskar Gartzia da. Leioako musika kontserbatorioan dabilzan lagunek sortu zuten taldea; gaur egun, 21 lagunek osatzen dute. Musika modernoa jotzen dute, musika modernoan

sartzen diren estilo guztiak, baina beti dute jazz estiloa ardatz; besteak beste, Brasilgo bossa-nova eta swinga eta baladak eta Amerikako funka.

Saxofoia, tronpeta, pianoa, gitarra, baxua, bateria eta perkusioa jotzen dute. Gainera, Ana Bejaranok ahotsa jartzen die musika piezei.

Taldea osatzen duten 21 lagunetik 14 musika eskolako ikasleak dira eta gainerako zazpiak, musika eskolatik kanpokoak izan arren, proiektuan buru-belarri sartuta daude.

Adin tarte zabala hartzen du Leioako big bandak; hain zuzen, 13 eta 60 urte bitarteko lagunak daude taldean. Bizkaiko big band taldeetan aitzindariak izan ziren Leioakoak.

**Getxoko jazzaldian jo dute**

Leioako taldeak hainbat kontzertu eskaini ditu azkenaldian. Aipatzekoak dira Bilboko Euskalduna jauregian eskainitako hiru kontzertuak. Durangoko jazz zirkloan

ere jo dute leioarrek, baina euren kontzertu aipagarriena 2010ean Getxon eskainitakoa izan zen. Getxoko 34. nazioarteko jaialdian jo zuen Leioako big bandak. Haien esanetan: "Bai ikusleek eta baita antolatzaileek ere oso ondo hartu gintuzten".

Gainera, Bilboko Doctor Deseo taldearen azken lanean kolaboratu dute Leioako musikariek. Ziurrenik, ahaztu ezinezko esperientzia izango zen.

**Elkartrukea hiru taldek**

Arrasateko, Leioako eta Amurrioko taldeak dabilza elkartrukea egiten. Leioako taldeak Arrasaten joko du gaur; ondoren, Arrasatekoak joko du Amurrioren; eta azkenik, Amurriokoak Leioan joko du. Elkartrukea Leioako taldearen ideia izan da, hiru taldeen arteko "harremana sendotzeko" asmoz.

Gainera, Arrasateko taldeak aurten 10 urte beteko ditu. Asmoa da ikasturte amaieran kontzertu berezia eskaintzea.

## Gaztetxeak eta Askapenak Mexikori buruzko ekitaldiak antolatu dituzte

A.E. | ARRASATE

Bihar eta etzi Mexikoren gaineko eskaintza izango da gaztetxean. Gaztetxeako lagunek Debagoieneko Askapeneko lagunekin elkarlanean antolatu duten jaialdi alternatiboa izango da aste bukaerakoa.

Bihar, zapatua, 22:00etan kontzertua eskainiko dute La Mejicana Clandestina taldeko

kideek. Gaztetxea dantzan jarriko dute.

**Domekan, dokumentala**

Domekan, ostera, 18:00etan, *Zapatistas. Crónica de una rebelión* dokumentala eskainiko dute gaztetxean bertan. Bi ordu irauten du aipatutako dokumentalak eta indigenen altxamendua azaltzen du.

## La Banda del Abuelo taldeak musika jarri dio errezitaldi bati

A.E. | ARRASATE

Arrasateko La Banda del Abuelo punk-rock taldea bestelako formatu eta doinu baten murgildu da. Hain zuzen, *Las moscas lo devorarán todo* liburuaren errezitaldiari musika jarri diote arrasatearrek.

**Mareako Kutxi Romero**

Marea taldeko Kutxi Romero eta Sor Kampana poetarekin batera egin dute liburuaren

aurkezpenaren errezitaldia. Errezitaldi osoa laster jarriko dute ikusgai, gainera.

*Las moscas lo devorarán todo* blogean honela aurkezten dute Arrasateko taldea: Piltrafilla Bone, harpa bokala; Pier-naslocas Klaine, gitarra; Hijo Chirikaua del Viento, didjeridua eta harmonika; eta Joshua Flanagan, baxua. *Myspace*-eko atarian ikus daiteke errezitaldiaren zati bat.



La banda del abuelo taldea. | GOIENA

## Lehenengo eta oraingo emakumeen gaineko argazkiak erakusgai

Ekin Emakumeak elkarrekin zabalduzako erakusketa Kulturategiaren 25era arte. 17:30etik 20:30era egongo da zabalik, martitzenetik domekara. Argazkietan erakutsiko dute lehenengo eta oraingo emakumeen bizi-modua.

## Angelina Jolie eta Johnny Depp 'El turista' filmean

Aste bukaeran *El turista* filma eskainiko dute Amaia antzokian. Zapatuan izango da emanaldia, 19:30ean. Zapatuan bertan, 17:00etan, *Midas erregearen altxorra* eskainiko dute. Maite Ruiz de Austri zuzendariaren lanak 71 minutu irauten du eta ikusle guztiekin zuzenduta dago.

*Sipi Sipi*

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

arbolapeta

arrasate

beinke

BASATI

TABERNA

943 71 17 68

# Udalean etorkinekin komunikatzeko interprete zerbitzua jarriko dute

Gizarte Zerbitzuetan erabiliko dute, hizkuntzaren muga gainditzeko; telefono bidezko aldi bereko itzultzaile zerbitzua izango da

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Gero eta gehiago dira munduko leku ezberdinetatik Euskal Herri-ra bizi izatera datozen pertsonak. Giza migrazioak lehen mailako gizarte fenomeno dira egungo munduan eta Bergaran ere nabari da hori. Jardun elkarteak egindako Auzoko egitasmoaren arabera, 50 bat hizkuntza ezberdin berba egiten dira Bergaran.

Ezberdintasun eta aniztasun horrek aberastu egiten du herria, baina ohitura eta hizkuntza ezberdinak izateak arazoak ere susta ditzake. Hala, migrazio fenomenoaren kudeaketa erronka bihurtu da gizartearendako, administrazio publikoarendako eta udal administrazioarendako.



Gizarte Zerbitzuen lehiatilan jendea artatzen. | MONIKA BELASTEGI

## Datu esanguratsuak

2009ko datuei erreparatu gero, 769 etorkin zeuden Bergaran; edo, bestela esanda, biztanleriaren %5,23 zen atzerritarra. Jatorriari begiratu gero, Bolivia, Portugal, Pakistan eta Maroko dira nagusienak, hurrenez hurren.

Hizkuntzaren kasuan, gehien-goak hizkuntza ofizialetako bat ezagutu arren (gaztelania hitz egiten den herrialdeetatik etorri direlako), Portugal, Pakistan eta Marokotik etorri direnek normalean ez dute hemengo hizkuntza ofizialik ezagutzen.

Eta errealtate horren aurrean, interprete zerbitzu baten beharra ikusi dute udal arduradunek, Gizarte Zerbitzuetan "komunikaziorako eta esku-hartzeetarako beharrezko instrumentu moduan", Gizarte Zerbitzuetako batzordeburu Roberto Martinezen esanetan. Eta gehitu du: "Gero eta kasu gehiago daude beste hizkuntza batzuk berba egiteagatik komunikazioa ezinezkoa edo oso zaila bihurtzen direnak".

Horrekin batera, emakumeen egoerak aipamen berezia merezi du, Gizarte Zerbitzuetako batzordeburuaren esanetan: "Gizonezko gehiago moldatzen dira hizkuntzarekin emakumezkoak baino;

izan ere, kasu askotan, kultura dela eta, emakumeek ez dute hizkuntzarik ezagutzen eta ezinezkoa egiten da jarraipena egitea edo esku hartzea".

Datuei erreparatu gero, etorkinen kopuru osoa aintzat hartuta, emakumezkoak %50,8 dira eta gizonezkoak %48,2. Baina jatorri zehatzari begiratu, desorekak izaten dira: Pakistandik etorritako %10 dira emakumeak eta %90 gizonezkoak; eta Marokotik etorritako pertsonen %56 dira emakumeak eta %44 gizonezkoak.

## Hainbat helburu

Horren aurrean, telefono bidezko aldi bereko interpretazio zerbitzua da Udalean ezarriko

dutena. Poltsikoko telefono bati konektatutako esku-libre bikoitzari esker funtzionatu du, eta horri esker hizkuntza ezberdinak berba egiten dituzten bi solaskidek elkar ulertu ahal izango dute, bertan ez dagoen itzultzaile bati esker. 51 hizkuntzatan erabiltzeko dago prestatuta eta hil bukaera alderako martxan egotea nahi dute.

## Hainbat helburu

Itzulpen zerbitzuarekin hainbat helburu lortu nahi dituzte eta horietako bat konfidentzialtasuna da: hizkuntza ofizialik ez dakitenak ezagutzen duten itzultzaile batekin joaten dira gaur egun Gizarte Zerbitzuetara eta itzultzaile erokan ez duten kasu

berezietan, Gizarte Zerbitzuek aurkitu diete itzultzaileak. Bi kasuetan, ordea, herritarren konfidentzialtasun eskubidea urratu egin da: "Urraketa are larriagoa izan da, gainera, erabiltzaileak itzultzaileak ekarri duenetan, ez dakigulako pertsonari buruz jasotzen den informazioaren ze erabilpen egingo den. Gizarte Zerbitzuetan, gainera, gai oso pertsonalekin egiten da lan", diote Gizarte Zerbitzuetatik.

Bestetik, kasuan kasuko jarraipen eta esku-hartzeetarako, gutxieneko komunikaziorako hizkuntzarik izan ezean, ezinezkoa da erabiltzaileekin prozesuak zehaztea, garatzea eta jarraipena egitea. "Zer esanik ez, laguntza bereziren bat behar duten kasu larriagoetan; adingabeen babesgabetasun egoerak direla, emakumeen aurkako tratatu txar kasuak direla, drogamenpekotasun egoerak..."

## Emakumeen egoera

Gizarte Zerbitzuetako iturriek herrian detektatutako errealtate bat ere azpimarratu dute: "Oso esanguratsua da, batez ere Pakistan eta Marokotik etorritako artean, dirulaguntzak gizonen eskatzen dituztela, normalean emakumeek ez dutelako hizkuntza ezagutzen".

Eta gehitu dute horrek hainbat ondorio dakartzala: "Alde batetik, gizonak maneiatzen ditu dirua eta laguntzen nondik norakoak (informazioa); bestetik, emakumeak hizkuntza ezagutu ezean, gizonarekin edo lagunduta etorri behar du eta hori traba handi bihurtzen da esku-hartze pertsonalizaturako eta detekzio-rako; eta horrekin batera, emakumea zapalduta dagoen herrialde eta kultura batetik datozenez, hemen onartezinak diren jarraera eta jokaerak errepikatu eta jarraitzeko aukera handia dago. Pentsa, egoera horietan hizkuntza jakinda ere zaila bada lan egitea, hizkuntza ezagutzeke ezinezkoa da".

## Gaztelekuko izen eta logo lehiaketa deitu dute

M.B. | BERGARA

Udala maiatzean gaztelekua zabaltzekotan da gaur egun Udal Euskaltegia dagoen erai-kinean, eta harendako izena eta irudia aukeratzeko izen eta logo lehiaketa deitu du. Lehiaketan Bergaran bizi edo erroldatutako edonork har dezake parte. Diseinuen kartelak kolore eta teknika libreak eta A3 neurriko kartoizko oinarri baten aurkeztu behar dira. Era berean, CD baten ere aurkeztu behar da. Logotipo diseinuak gaztelekuarentzako aukeraturako izena izan beharko du atzealdean. Lanak Bergarako kultura etxean aurkeztu behar dira, martxoaren 25eko 13:00ak baino lehen. Irabazleak Netbook bat eskuratuko du. Informazio gehiago, honako telefonoan: 943 77 91 60.

## OHARRAK

### KORRIKA BATZORDEAREN BIGARREN BATZARRA

Hilaren 22an, martitzena, batuko da Korrika Batzordea, kultura etxean, 19:00etan. Interesa duten guztiak daude gonbidatuta.

### INAUTERI-BAZKARIA SAN JOXEPEREKIN

Erretiratuen elkarteak urtero egiten duen moduan, Inauteri-martitzeneko bazkaria antolatu dute. Bazkariaren ostean dantzaldia egongo da, egoitzan bertan. Izenematea atzo ezker (eguna) dago zabalik elkartearen bulegoan; martxoaren 3an itxiko dute.

### BETERANOEN LEHEN IRTEERA HILAREN 27AN

Pol-Pol mendi taldeak eta Gorla Alpino taldeak betanoen lehen irteera egingo dute hilaren 27an. Goizeko ibilaldia hau da: Itziartik Madarixara. 08:00etan abiatuko dira, Fraiskozuritik. Txartelak dagoneko salgai daude bulego ordutegian: astelehen, martitzen eta eguaztenetan, 18:45etik 19:45era.

### REAL ZALEEN IRTEERA MARTXOAREN 12-13RAKO

Realak martxoaren 12-13ko asteburuan Malagaren kontra jokatu duen partidurako irteera eta bazkaria antolatu dute Real Zaleek. Bazkaria Astigarragako Rezola sagardotegian izango da eta prezioa 30 euro da, autobusa barne. Partidurako txartela aparte ordainduko da. Interesa dutenek Matxiategi elektrizitate dendan eman dezakete izena, martxoaren 9a baino lehen.

# JOXAN

## ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29



Gosari bereziak  
09:00etatik zabalik!

Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitarkekoak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak



# Etorkizuna aztertzeke beste batzar bat izango da datorren astean

Plan estrategikoaren baitako saioetan 110 lagunek parte hartu dute orain arte

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Bergararen etorkizuna aztertzeke herritarren artean egiten diharduten plan estrategikoak hirugarren bilera-saioa izango du datorren astean. Bilera horietan parte hartzeko ez dago zertan aurretik parte hartu izan behar eta Udalak gazteak ere gonbidatu nahi ditu parte hartzera.

Bilerak otsailaren 22an, 23an eta 24an izango dira, eta partaideak auzoka edo bizi diren tokia- ren arabera banatuta egongo dira.

## Bergara 10 urte barru

Udalaren asmoa da herritarrek Bergara gaur egun nola ikusten duten aztertzea eta 10 urte barruko Bergara irudikatzea eta egoera hori lortzeko estrategiak proposatzea.

Udalak apirilera bitartean landuko du 2020. urtera arteko udalerriko plan estrategikoa. Horretarako, baina, herritarren parte-hartzea eskatu du, plan estrategikoa herritarren parte-hartzearekin egin nahi du-eta.

## Begararen indarguneak

Urtarrilean ekin zieten herritarren bilerei eta bi egin dira dagoeneko. 110 lagunek inguruk parte hartu dute bileretan. Bertan egindako ekarpen eta iritziekin diagnostiko bat egin dute eta ondorengo zenbait ikuspegi azaldu dira: bizi izateko tamaina egokia du Bergarak, baina azken urteetako populazio jaitsierak kezka sortu du; herriaren kokapena egokia da, aukera berrietarako ate izan daitekeena;

## BILEREN EGUTEGIA

EGUNA	AUZOAK
<b>22, martitzena</b>	Angiozar, Aldaiegia, Aritzeta, Goiauzoa, Elorregi, Arane, San Juan, Ubera, Basalgo, Osintxu, Murinondo eta Elosuko bizilagunentzat.
<b>23, eguaztena</b>	Herriguneko bizilagunentzat.
<b>24, eguena</b>	Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Tokieder, San Lorentzo, Zubieta, Poligonoa eta Boluko bizilagunentzat.

Bilera guztiak 19:00etan izango dira udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

herriaren indargune nagusi- eta ondare arkitektonikoa da; herdoiltze-zantzuak suma daitezke: herri giroan, herri dinamikan, lidergo gaitasunean, elkarleen alorrean, ekonomian...; elkarlaneko kulturaren falta

ikusi da: elkarleen koordinazio eta kohesio falta: ekonomian, hezkuntzan...; euskaltasunak pisu nabarmena du herrian, baina herritarrak arduratuta daude euskararen erabilerari dagokionez.



## Candy ingurua oso zikin dago

Irakurle batek deitu du salatzeke Zurrarako bidea oso zikin dagoela. Hain justu, Zurrarako bidean, Candy parean dagoen pasealekua dago utzita; irudian ikusten denez, espaloia babesteko dagoen hesian batzen da zikinkeria asko. Irakurleak galdetzen du ea zergatik ez duten garbitzen inguru hori, "itxura oso eskasa ematen du-eta".

## Baserri ingurunean sortutako plastikoak jasoko dituzte datorren martitzenean, hilaren 22an

Debagoieneko Landa Garapen Elkarreak egiten du plastiko bilketa. Hain zuzen, datorren martitzenean egingo dute, eta jasoko dute: siloa estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza; belar boletan erabiltzen den plastiko beltza; berotegietan eta ortuan lurra estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza; eta berotegiko plastiko zuria. Ugarrixa (granja aurrealdea), Murinondo (trenbide ondo) eta San Juan auzoko eliza aurrealdea dira bilketa lekuak. Plastikoa arratsaldez utzi behar dira aipatutako lekuetan.

# Unzeta etxeko begiratokia ordezkatzeko proposamena jaso du Udalak

Eskatzaileak obra baimena jasotzeko proiektua aurkeztu beharko du Udalean

A.E. | BERGARA

Bidekurutzeta 46-1 etxebizitzako begiratokia ordezkatzeko proposamena jaso du Udalak. Unzeta jauretxeak duen begiratokia oso ederra da, baina egun, ez dago batere egoera onean. Francisco Pons-Sorolla Ruiz de la Pradaren izenean jaso dute proposamena.

## Proiektua aurkeztu beharra

Udaleko aparejadoreak azaldu du obra baimena eman ahal izateko "proiektua aurkeztea" eskatu zaiola eskatzaileari.

Kontuan hartu behar da aipatutako eraikina udalerriko hirigune historikoan kokatuta dagoela. Hortaz, begiratokia ordezkatzeko proposamena Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentuari bidali zion Udalak. Aldundiak eskaeraren aldeko ebazpena eman du, baina ondorengo baldintzekin: "Ordezkapena egin ahal izateko, dagokion proiektu tekniko aurkeztu beharko da, elementuaren eta esku-hartzearen deskribapen historiko, tekniko eta grafikoa azalduz". Hori kontuan hartuta, Tokiko Gobernu Batzarra osatzen dute-



Bidekurutzetako begiratokiak gaur egun duen egoera. | A.E.

nek hau proposatu diote alkateari: "Dokumentu teknikoa aurkeztutakoan, hala badagokio, udalbaimena emateko".

## Begiratokia

Aro modernoko eraikina da Bidekurutzeta 46 zenbakiko

Unzeta jauretxea, XVII. mende-koa. Udalerriko hirigune historikoan dago, eta babes maila ertaina du.

Begiratokiak dituen hainbat kristal apurtuta daude eta egitura bera ere egoera oso eskasean dago.

# BERGARA

## Margoak



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. [bergara@bergaramargoak.com](mailto:bergara@bergaramargoak.com)



## Estella ortopedia



RPS 421/97



## ZERBITZU BERRIA

### Gurpil-aulkien eta garabien alokairua



Matxiategi 5, Telefonoa: 943 76 19 63  
[consultas@farmaciaestella.com](mailto:consultas@farmaciaestella.com)

## Lokatzak zapatuan aurkeztuko ditu aurtengo denboraldian izango dituen taldeak

Irala kalean aurkeztuko dituzte ziklistak, herritarren aurrean, 13:00etan

X.U. | BERGARA

Joan den astean Dorletako Ama-ko txirrindulariek egin zuten Gatzagan aurkezpen ofiziala, eta bihar, zapatua, Bergarako txirrindularien txanda izango da. Hala, Lokatza Ziklismo Eskolak garbi du egin beharrekoa: txirrindulariak herritarren aurrean aurkeztea.

**Herriko ziklistak ezagutarazi** Gainontzeko kirol jarduera gehienetan kirolariak herritarren aurrean lehiatzen dira, euren babes izaten dute harmailetan, baina ziklismoan ez da horrelakorik. Hala, Lokatzako zuzendaritza taldeak uste du komenigarria dela ziklistak, Bergara Euskal Herriko errepideetan ordezkatuko dutenak, jendeaurrean aurkeztea.

Horregatik egingo dute aurkezpena bihar, 13:00etan, Irala kalean, herritarrek kalean ibiliko direla aprobetxatuta. Iaz egin zuten lehenengoz ekitaldia Iralan, eta, izan zuen harrera ona ikusita, formula errepikatzea erabaki dute.

### Denboraldiko probak

Ziklistak, entrenatzaileak eta taldearen babesleak aurkeztearekin batera, baina, Lokatzako arduradunek 2011n antolatuko dituzten probak ere aurkeztuko dituzte. Iaz, Euskal Herrian lasterketa gehien antolatu zituen klubetako bat izan zen Bergarakoa. Harrobiko ziklismoa eta emakumezkoen ziklismoa bultzatzea izan zuten helburu. Aurtengo erronken berri bihar emango dute.

## Hiercor Goierriren kantxan jokatu du saskibalo taldeak

X.U. | BERGARA

Soraluce BKE saskibalo taldeko seniorrek Goierriera egingo dute bidaia asteburuan (zapatua, 16:00, Urretxu), goialdeko postuei begira jarraitzeko aukera emango dien puntuak batzera. Egia esan, Urbinaren mutilendako ez da lehia erraza izango, sailkapenean parean dagoen taldea da-eta Goierri, puntu bat gutxiago batuta.

Soraluce BKEk, baina, ez du denboraldi hasieran ezarritako helburua baztertzeko asmorik. Baina, emaitzetan horrenbeste itsutu barik, asterokoleanean zentratzeko asmoa era-

kutsi dute, geroago eta talde tinkoagoa izateko lan eginez.

### Garaipen garrantzitsua

Joan den asteburuan partidua garrantzitsua irabazi zuen Soraluce BKEk. Ez horrenbesteraingo jokoan zeuden puntuengatik, baina bai joanekoan azpeitiarren kontra 17 puntuko aldeagatik galdu zutelako; eta itzulikoan, orduko porrot mingarria ahaztu eta askoz ere hobeto jokatzeke gauza direla erakutsi nahi zuten. Bada, lortu egin zuten, Errotaundi taldeari 67-48 irabazi zioten-eta Bergarako mutilak.



Gazte mailako pilotari bergarrek gaur dute hitzordua, herriko zaleen aurrean. | GOIENA

## Euskal Ligako finalean egotearren lehiatuko dira Bergarako pilotariak

Gazte mailakoek gaur jokatuko dute Bergaran, 20:00etan hasita

XABIER URTZELAI | BERGARA

Euskal Ligako finala Bergaran jokatuko dute otsailaren 25ean, eta final horretan egoteko, etxean jokatzeke, irrikan daude Bergarako pilotariak. Hala, gaur, egubakoitza, gazte mailako Mikel Gallastegik eta Beñat Resutzak Mundarroko pilotarien kontra jokatuko dute partidua erabakigarria, 20:00etan hasita: "Hain zuzen, bikote horren kontra galdu genuen Gipuzkoako txapelketan finalerako sailkatzeko txartela, eta pilotariak errebantxa gogoz daude", adierazi digu Reyes Azkoitia entrenatzaileak. Kan-

poraketa, gainera, partidua baka-rrera izango da, eta mahoneroek etxean jokatzearen abantaila dute.

### Mugurutzaren final atarian

Senior mailan Eneko Mugurutzaren finalerako atarian dago. Joan den astean, joaneko partiduan, 15-21 galtzen joan arren Bergarako partidua irabazteko gauza izan zen (22-21), ondo sufrituta. Zapatuan, berriz, itzulerako partidua izango du Ugarte taldeko Errekaren kontra, 12:00etan, Nafarroan. Alde horretatik, Azkoitiak uste du Mugurutzaren badituela

finalerako sailkatzeko aukerak: "Partidua irabazi egin beharko du, edo 21 tanto egin, berdinketa eginez gero Mugurutzaren egingo luke-eta aurrera, gazteagoa da-eta. Oraingoan etxetik kanpo jokatuko du, baina joan den astean partidua irabazi izanak morala emango dio".

### Soraluce torneo, aurrera

Bestalde, Soraluce torneoan final-zortzirenetarako sailkatzeko partidua jokatu zituzten martitzenean. Kanporaketa haietan, Peñasek eta Ezkurdiak egin zuten aurrera.

## Muniategi: "Hurrengo hamar puntuak erabakigarriak dira kategoriari eusteko"

Soraluce BKEk beheko postuetan daudenen kontra jokatuko du asteotan

X.U. | BERGARA

Datozen bost partidua erabakigarriak izango dira Soraluce BKE taldeak kategoriari euts diezaion. Muniategi esaten duen moduan, "kontrario zuzenen kontra" jokatuko dute mahoneroek, oraingo astean hasita.

Izan ere, Deustu Loiola taldearen kantxara joango da zapatuan Soraluce BKE: "Datozen hamar puntuetatik zortzi eskuratzen baditugu, kategoriari eutsiko diogu, seguru. Akaso, oraingo asteburuko partidua izan daiteke gogorrena, Deustu Loiolak lortu dituen 16 puntuetatik gehienak etxean batu ditu-eta. Euren kantxan oso gogor jokatzen dute, indartsuak dira, eta gaitza izango da etekinik lortzea".

Dena dela, taldea zelan dabilen ikusita, ezin da ezer baztertu: "Konfiantza handiarekin gabiltza; joan den astean bertan, Corazo-



Soraluce BKEkoak, Indautxukoaren bisitaren aurrean. | GOIENA

nistas taldeko entrenatzaileak onartu zigun ez zuela horrelako kontrariorik espero, erabat harrituta geratu zela eta ez zuela ulertzen zelan ez geunden sailkapenean aurrerago [Bergarak 34-34 berdindu zuen Corazonistas lide-

rraren kontra]". Hala, sentsazio on horiek beharko dituzte mahoneroek datozen asteotarako: Deustu, Usurbil, Basauri, Urola, Gure... dena beharko dute zortzi puntu horiek batzeko.



### Bergarako Udala

#### OHARRA

Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan xedatutakoa betez, ondoko hau erabaki da behin-behineko izaeraz:

Zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeagatik ezarrita dauden tasak arautzen dituen ordenantza fiskala aldatzea.

Hori guztia, Udabatzako Osoak 2011ko otsailaren 7ko bileran hartutako erabakiari jarraituz egiten da. Erabaki hori behin betiko bihurtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

11/1989 Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorritik, behin-behineko erabaki hau 30 lanegun jarriko da ikusgai jendaurrean Udaletxeko iragarki taulan, interesatuek espedienteaz aztertu eta egoki deritzoten erreklamazioak aurkeztu ahal ditzaten.

Erakustaldia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean jakinarazi zaio jendeari 2011ko otsailaren 11n argitaratutako iragarkiaren bitartez eta otsailaren 12tik aurrera hasiko da epea kontatzen. Informazio honen arauko epea erreklamaziorik gabe igaro ondoren, hartutako akordioak eta adierazitako agiriak behin betirako onartuak izango dira akordio berriak hartu beharrik izan gabe.

Bergara, 2011ko otsailak 11

Alkatea

# Hiria eta haurrak uztartzen dituen lana

Zabalotegin izango da ikuskizuna, 3 euroren truke

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Bihar, zapatua, haurrei zuzendutako *Tira aurrera* antzerkia eskainiko du Gasteizko Panta Rhei taldeak. 5 eta 10 urte bitarteko haurrei zuzendutako antzezlanak da. Panpinak izango dira antzezlaneko protagonistak; eta, hain zuzen ere, protagonismo berezia izango du *Pailazo* izeneko panpinak.

*Pailazo*-ren helburu bakarra pozik bizi izatea da; eta, era berean, ingurukoak pozik ikustea. Baina, egun baten, hura eta haren koadrila zabor edukiontzira botako dituzte. Hala, euren burua arriskuan ikusiko dute panpinek; izan ere, zaborra jasotzen duen kamioia bidean da.

## Bi aktore taula gainean

Zabalotegi aretoan izango da antzezlanak, bihar, zapatua, 18:00etan. Taula gainean bi lagun ari tuko dira: Emilio Fernandez de Pinedo eta Idoia Aiestaran aktoreak, hain zuzen. Fernandez de Pinedo bera eta Juan Rodriguez dira antzezlaneko zuzendariak.

Antzezlanak haurrak eta hiria uztartzen ditu. Bi gai nagusi dira ikusleari erakutsi gura diotenak: batetik, hiriak etxean gero eta bakarrago dauden haurrak ahaztu dituela; eta, bestetik, hiriak haurra ahaztu duela. Hirian bizirik irautea zein zaila den erakutsiko digute *Pailazo*-k eta haren lagunak. Panpina koadrilak bere burua arriskuan ikusi eta lagun-



Ikuskizuneko irudia. | GOIENA

tza eskatuko du. Horretarako, *Pailazo*-k hiri guztia zeharkatuko du, eurak hartuko dituzten haurren bila. Gertatzen dena da haur horiek panpinak hartu gura dituztela, baina ezin dutela.

## Eskuzabaltasuna

Antzezlanak eman gura duen mezua da bizitzak proban jartzeko dituela ameslariak; kasu honetan, *Pailazo*-k aurrera egingo du, eskuzabaltasuna eta solidaritatea eredu izanda.

## Panta Rhei antzerki taldea

1988an sortu zuten Panta Rhei antzerki taldea; orduan, ikuskizunen ekoitze eta banatzaile enpresa moduan eratu zuten. 22 urteren ondoren, hainbat ikuskizunekin indartsu dator berriro ere Panta

Rhei; izan ere, *Tira aurrera*-ren gaztelaniazko bertsioa Latinoamerikan aurkeztuko dute 2012an.

## Umeendako 'El super canguro' eta nagusiendako euskarazko '80 egunean' filmak aste bukaeran

*El super canguro* filma domekan eskainiko dute, 17:00etan. Ikusle guztiei zuzendutako komedia dramatikoak da. Domekan, 19:30ean, *80 egunean* filma eskainiko dute. Gaztetxeko zineklubean, *Metal: a headbanger's journey* musika dokumentala eskainiko dute domekan, 18:00etan. Eguaztenean, hilaren 23an, *Carancho* filma eskainiko dute Zabalotegiko zineklubean.

## Nekane Lazkanoren argazkiak daude ikusgai Nahikari tabernan: 'La pobreza de Roma' da izena

Nahikari tabernan *La pobreza de Roma* argazki erakusketa dago ikusgai egunotan. Erakusketa osatzen dute Nekane Lazkano gaztearen hamar argazkiak. Nekane Lazkanok 21 urte besterik ez du eta Nahikari haren bigarren erakusketa da. Batez ere, moda eta erretratuak egiten ditu Lazkanok, hori da haren espezializazioa. Gaur egun Donostiako Argazki Eskolan ikasten jarraitzen du Lazkanok.

## Domekan itxiko dute Aroztegin ikusgai dagoen Juan Aiestaren 'Bide batez' margo erakusketa

*Bide batez* margo erakusketa etzira arte, domeka, egongo da zabalik Aroztegi aretoan. Pinturaren esparruan bururatutako esperimentazio plastikoa da erakusketaren ezaugarri nagusia. Egileak berak azaldu duenez, kalean aurkitzen dituen gauzei zentzu estetikoak bilatzen saiatzen da. Gaur 18:00etatik 20:30era, bihar 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era eta domekan 12:00etatik 14:00etara egongo da zabalik erakusketa.

## Interesatuek maiatzaren 6ra arte aurkez ditzakete lanak Koldo Eleizalde lehiaketan

Lehiaketa horretan, Bergaran jaio, bizi edo lan egiten duen edonork parte har dezake

A.E. | BERGARA

Dagoeneko martxan da Koldo Eleizalde lehiaketa. Udaleko Euskara batzordeak antolatuta, ipuin idatzia, bertsoa, komiki tira, ipuin kontaketa edo antzerkia, txiste eta umorezko pasadizoak eta eskola-irratia saritzea da lehiaketaren helburua.

## Epea: maiatzak 6

Lehiaketan parte hartu gura dutenek maiatzaren 6ra arte izango dute aukera euren lanak aurkezteko. Lanak kartazal handi batean bidali edo entregatu beharko dira Bergarako Udaleko Euskara batzordean. Lanek originalak eta inoiz argitaratu bakoak izan beharko dute; gainera, lehiaketaren oinarrietan argi jartzen du lana

originala ez dela frogatuz gero, lan hori aurkeztu duenak 50 euro ordaindu beharko dizkiola Udalari.

Lehiaketa horretan, Bergaran jaio, bizi edo lan egiten duen edonork parte har dezake, baina zein taldeka.


## Lanak sare bidez ere bai

Ahozko generoen kasuan (ipuin-kontaktetan, antzerkian, bertsoetan, txiste lehiaketa-pasadizoetan eta irrati-emankizunean), lanak sare bidez ere aurkezteko aukera egongo da, udal webgunean horretarako gertatutako inprimakia erabilita.

Epaimahaia Bergarako Udaleko Euskara batzordeak aukeratutako pertsonak osatuko dute.

AZOKA TXIKIA KALEAN

otsailak  
**25**  
**26**



IZUGARRIZKO  
BEHERAPENAK

Musika Eskolako Gazte  
txarangaren emanaldia  
Bergarako kaleetan zehar.

EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SALA  
Haberria Politikoa

GOBIERNO VASCO  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística

# Zirkulazio aldaketak hainbat kaletan, Atzeko kaleko lanengatik

Ramon Irizarko noranzkoa aldatu egingo dute, Eskolatxoko zubia itxi eta Motxon kalean kamioiek bira egiteko gunea egokituko dute

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Atzeko kalea oinezkoendako egokitze lanak hasi dituzte. Hori horrela, inguruko hainbat kaletan zirkulazioaren noranzkoa aldatu egingo dute. Construcciones Goitu enpresak egingo ditu eraberritze lanak lau hilabetetan. Lanon helburua da zirkulazioa txikitu eta oinezkoendako gunea egokitzea.

## Ramon Irizartik plazara

Asteon, Ramon Irizar kalea zabaldu egin dute, kamioiek biratzeko arazorik izan ez dezaten. Izan ere, kale horren noranzkoa aldatu egin dute; hau da, Ultzein kaletik datozen autoek Atzeko kalera edo Bidebarrietara hartzeko aukera izango dute. Aldaketa egin dute, Atzeko kaleko goiko aldea zamaketa orduetatik kanpo itxita egongo delako.

## Eskolatxoko zubia itxita

Beste aldaketa nabarmen bat Motxon kalean igarriko dute auto-gidariak aurrerantzean. Izan ere, Eskolatxoko zubia itxi egingo dute autoendako, eraberritze lanak dauden bitartean. Hori horrela, pibotea jarriko dute zubira heldu baino lehen. Gainera, autoek eta



Ramon Irizar kalea zulatzen, kamioiek bira egin ahal dezaten. | MIREIA BIKUÑA

kamioi handiek bira egin dezaten gunea egokituko dituzte, eta, ondorioz, Motxon kalean dauden edukiontzia lekuz aldatuko dituzte.

## Zabalik ordu batzuetan

Atzeko kalea eraberritzeko lanak bi zatitan egingo dituzte: lehe-

nengoan, Kirringoeko kantoitik Eskolatxo okindegirainoko zatia egingo dute eta bigarrean, Iturritxorainoko tartea. Herriguneko kaleek duten itxura bera izango du kaleak, eta zabalik egongo da 08:00etatik 12:00etara; gainerako orduetan oinezkoendako izango da.

## Batzuk, kezkatuta

Zirkulazioa txikitu eta oinezkoendako gunea egokitze helburuarekin berrituko dute Atzeko kalea, baina merkatari guztiak ez daude erabat ados. Zamaketa lanetarako zehaztutako orduetarako kezka sortu du merkatari batzuetan. "Herritar asko dator gurera eguerdian, lanetik irteten direnean, eta goizean, lanera joan aurretik. Aurrerantzean, ordu horietan kalea itxita badago, guregan eragina izango du, eta kezkatuta gaude. Zamaketarako orduetara zabaltea eskatu dugu. Oraingoan, lortu duguna da jaiegunetan kalea zabaltea 08:00etatik 12:00etara", esan digu Eskolatxoko Mari Carmen Urkiak.

## NIRE USTEZ



IÑIGO BIAIS

Edukiontzia eta euskarriak

Goya sarien banaketa zela-eta, aurreko domekan ikusmin handia sortu zitzaidan Alex de la Iglesiak esango zuenaren inguruan. Agur esanez egin zuen hitzaldia bilbotarrak, eta Sinde legearen inguruan gako garrantzitsu bat baino gehiago bota zizkion Espainiako Kultura Ministroari aurpegira.

Baina badirudi inork ez duela arazoaren muina benetan ukitu nahi. Izan gaitetzen zintzoak, eta zabal ditzagun burmuin, belarri eta begiak: eztabaida honen sustraiak ez dira kultura, sormena edo artistaren duintasuna, "euskarriak" baizik, produktuak, eta ondorioz, industria. Izan ere, artearen historian mantendu diren euskarri bakarrak burmuina, belarriak eta begiak dira, eta horiei esker ezagutu dugu belaunaldiz belaunaldi gure aurrekoen ondare kulturala.

Garai moderno hauetan ere, gure burmuinean pilotzen ditugu gure begiek eta belarriak jasotakoak, kulturaren industriak sortutako "euskarri" guztiak edukiontzi hutsean gelditzen dira, edukiontzi oso garestiak. Eta noski artista sortzaileak dagokion jaso behar duela sortu duenarengatik, baina ez dezagun merkatu artifizial bat sortu.

Izan ere, eredu kanonizatu eta zigortzaile honen bideetik jarraituz gero, belarriak, begiak eta burmuina izate hutsagatik ere kanon bat ordaindu beharko dugu jaiotzen garenean.

Gu piratak? Eurak kortsarioak!

**"Belarriak eta begiak izatearren kanona ordaindu beharko dugu!"**



ARRATE MARKIEGI  
JUANITOSAKO ARDURADUNA

"Hilabete batzuetan zarata eta hautsa izango dira nagusi, baina ni oso pozik nago. Denda barruraino autoarekin joaten gara, eta askotan kalera ezin irten egon gara autoak aurrean aparkatuta zeudelako"



JOSU CAMBESES  
GALIZIA TABERNAKO ARDURADUNA

"Bazen garaia; ordu askoan kaosa izan da nagusi Atzeko kalean, bai merkatariendako, baita bezeroendako ere. Marra horiak ere margotu zituzten, baina autoak espaloi gainean uzten zituzten, berdin-berdin."



IZASKUN ALDANONDO  
SESIÑEÑA ILE-APAINDEGIKO JABEA

"Oso pozik nago lanekin, nahiz eta hasieran traba asko izango ditugun. Dena den, etorkizunari begira ona izango da kalea biziberritzeko; eta, akaso, negozio berriak zabalduko dituzte. Ea horrela den!"

## Landareak eta fruta-arbolak ikusgai eta salgai bihar zuhaitz azokan

M.B. | OÑATI

Natur Eskolak antolatutako Ingurumen Astearren barruan zuhaitz azoka egingo dute bihar Herriko Plazan. Besteak beste, landareak, fruta-arbolak eta koniferoak ikusgai eta salgai jarriko dituzte 09:00etatik 13:30era. Sei postu jarriko dituzte: hain zuzen ere, Ane Idigoras oñatiarrak; Zega-

mako Arakama anaiek; Zaldibar-ko Junkal Areitiok eta Joseba Belarrek; Aginagako Aranburu Mintegiak; eta Tafallako Viveros El Montañes-ek.

## Life proiektua

Bestalde, Ingurumen Astearren barruan, hilaren 26rako Life proiektua ezagutzeko irteera

antolatu dute Iturrigorrira. Ez da izenik eman behar, egunean bertan 09:00etan elkartuko dira plazan. Era berean, Zuhaitz Egunean parte hartu gura dutenak hilaren 27an plazan batuko dira, 10:00etan. Herri barruko berdeguneetan landatuko dituzte zuhaitzak.

## Iturrigorriren gainean

Bestalde, astelehenean, hilaren 21ean, Iturrigorriri buruz egingo dute berba hainbat herritarrek Natur Eskolan, 19:00etan.

## Baserrietan sortutako plastikoak batuko dituzte hilaren 22an

Baserrietan sortutako plastikoak bigarren bilketa egingo dute hilaren 22an. Oñatin lau lekutan batuko dituzte: Zañartun, Zuazola inguruan; Murgian, Asentzio ermitan; Olabarrietan, autobus geltokian; eta ETEO atzealdean. Plastikokoak bilketaren aurreko egunean atera beharko dira, 17:00etatik aurrera.

## Elkarretaratzea egingo du bihar Oñatiko Zero Zabor taldeak

Oñatiko Zero Zabor taldeak elkarretaratzea egingo du bihar, 12:00etan, La Caixaren aurrean. Helburua da La Caixa eta Banestoren kontra egitea. Aipatu banketxeek Zubietako errauskailua egiteko beharrezkoa den dirutzaren zati bat -60 milioi- negoziatzen dihardute Gipuzkoako Hondakine Partzuergoarekin.



Angel Biain diruzaina, Inaxio Gereta egungo presidentea eta Angel Zelaia bazkidea, elkarteko barraren atzean. | M.B.

## Gure Txoko elkartearen 75 urteak liburuxka baten jasota

200 ale argitaratu dituzte, eta bazkideen artean banatu

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

2010eko maiatzaren 27an bete zuten Patrua kalean dagoen Gure Txoko elkarteak 75. urteurrena. Ospakizunetan eman dituzte azken hilabeteak, eta, urtemuga borobiltzeko, aurrez pentsatu barik zuten liburuxka egin dute. "Kaleko elkarerik zaharrena izanda, liburu gutxi genituen gordeta. Halako baten, bazkide bat etorri zitzaigun esanez liburuak etxean zituela, argazki zaharrak eta elkartearen sorrerako dokumentua barne", esan digu Angel Biain diruzainak.

Guztira, 200 ale argitaratu dituzte, eta bazkideen artean banatu.

### Sorburua, Sevillan

Gure Txoko elkartearen ibilbidea ezagutzen ez duenak liburuxka irakurtzea du onena. Baina jakin dezala Gure Txoko elkarteak

Sevillara egindako bidaia baten duela hazia: Edmundo Geretak lau lagunekin egindako bidaian, hain zuzen. "Aitaita Edmundo

Gereta eta beste lagun batzuk Aste Santua ezagutzera joan ziren Sevillara. Txundituta geratu ziren hango kasetetan zegoen giroare-



GURE TXOKO ELKARTEA

**SORTZAILEAK** Argazkian daude Jesus Garaikoetxea, Pedro Altuna, Pedro Arrue, Gregorio Altuna, Lauriano Altuna, Txomin Galdos, sevillar bat, Joxe Astigarraga, sevillar bat, Felix Altuna, Gregorio Atxa eta Hilarion Umerez, 1935. urtean Sevillara egindako bidaian.

DATUA

# 50

BAZKIDE

Horiek dira Gure Txoko elkarteko bazkideak; hiru emakumeak dira.

kin. Oñatira bueltan elkartearen sortu zuten, egun dagoen etxe berean", esan digu elkarteko presidentea Inaxio Geretak.

Lokala Patrua kaleko 2. zenbakian hartu zioten errentan Luis Maiztegi, hilerio 20 pezeta ordainduta. Etxea *Patroiaren etxea* izenez ezaguna da, garai baten han bizi izan izan zirelako Araotz-Lazarraga familiako jauntxoak. Eraikin berean, elkartearen sortu aurretik, jesuiten egoitza eta ikastetxea egon ziren.

### 50 bazkide: hiru emakumeak

Estatutuaren jasotakoari zintzo jarraituz, 50 bazkide dira Gure Txokon. Azken hiru urteotan hamabi bazkide berri iritsi dira elkartera. Eta 2009a ezkerreko emakumeek ere badute aukera Gure Txokoko bazkide izateko; lehena Marilu Uribeberria izan zen. Egun, hiru dira emakume bazkideak. Zuzendaritza batzordeko kideek emandako datuen arabera, bazkide gehienak 50-60 urte bitartekoak dira; zaharrenak, bazkide beterranoenak, Jose Mari Altuna, Felix Altuna eta Felix Agirre ditugu.

### Armarria Aconcaguan

Gure Txoko elkarteak armari propioa du. Hain zuzen ere, 1960ko hamarkadan Felix Aiala *Feliko* arrasatearrak egindakoa. Oñatiko armariaren antzekoa da, baina herriko armariaren oreina eta arranoa borrokan ari dira eta elkartearen armariaren, berriz, aldarte onean daude biak, ura edaten. Bada, Borja Azpeitia bazkideak Amerikako mendirik altuenera eroan zuten armaria: Aconcaguako (6.962 metro) gailurrean erakutsi zuten.

### BETERANUAK

#### EMAITZAK, "A" ETA "B" TALDEAK

Xaguxar-Txuskos	1-1
Doolygans-Ankarko	3-1
Lozoromo-Etxaizat	3-2
Albok-Zorrobero	0-2
Sasquatch-Txarrixak	2-6
Kalañatasaray-Jai Ari	4-0

#### SAILKAPENA, "A" TALDEA

TALDEA	P	J
1 The Gibel Boys	17	7
2 Indar 85	15	7
3 Xaguxar	13	6
4 Joxely	12	7
5 Doolygans	9	6
6 Bundeswehr	8	7
7 Gaur Bai	7	7
8 Nandrolona	7	7
9 Txuskos	4	6
10 Ankarko	-3	6

#### SAILKAPENA, "B" TALDEA

TALDEA	P	J
1 Kalañatasaray	16	7
2 Txarrixak	15	6
3 Zorrobero	14	6
4 Albok	13	6
5 Sasquatch	9	7
6 Lozoromo	8	6
7 Paketinaikos	3	6
8 Etxaizat	3	6
9 Jai Ari	0	6

#### PARTIDUAK, "A" TALDEA

7 JARDUNALDIA

Zapateria 13:00	Nandrolona-Gibel Boys
Zapateria 14:30	Indar 85-Gaur Bai
Zapateria 18:30	Txuskos-Bundeswehr
Zapateria 20:00	Xaguxar-Ankarko
Domeka 13:00	TJoxely-Doolygans

### Liderrak hasiko du jardunaldia

The Gibel Boys da oraingoz A multzoko talde indartsuena, eta euren jokatu dute lehen partidua. Nandrolona izango dute aurkari. Lehen partiduko emaitza ezagututa, eta liderrak galdu egiten badu, aukera paregabera izango du Indar 85 talde lehen lekura salto egiteko.

Bestalde, zuzendaritza batzordeak Iker Berrocal jokalaria zigortu du hiru txartel hori ikustegatik.

### OHARRAK

#### ARETO-BIZIKLETA

Zubikoan egingo duten I. areto-bizikleta maratoirako izenematea zabalik dago hilaren 23ra arte. Bailerako kirol zerbitzuetako bazkideek 12 euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek, 18 euro. Hiru orduko saioa egingo dute.

#### HITZALDI TAILERRA

Elkar Hezik antolatuta, Izar Mendia psikologoak frustrazioaren gainean egingo du berba hilaren 24an, 18:30ean.

#### KONTZERTUA

Oñatiko Amnistiaren Aldeko Mugimenduen eskutik, kontzertua egingo du Mahaster Riverrek hilaren 25ean. Arrano tabernan izango da, 22:00etan.

#### MOZORRO TAILERRA

Arrano tabernaren otsaileko kultura egitarauko azken ekitaldia hilaren 27ko mozorro tailerra izango da. 17:00etan egingo dute, tabernan.

#### IPUIN KONTAKETA

Boni Ofogo ipuin kontalari afrikarrak emanaldia egingo du Elkar Hezi ikastetxean hilaren 28an. 6-9 urte arteko neska-mutikoendako eta haien gurasoendako ipuin kontaketa saioa da.

#### ODOL-ATERATZEA

Martxoaren 11n egingo dute hurrengo odol-ateratzea. Txantxiku ikastolako aretoan egingo dituzte ateratzeak, 18:00etatik 20:00etara arte.



### Musika eskolakoak Andoaingo jaialdian

Jose de Azpizu musika eskolako hiru ikasle Andoaingo piano jaialdian parte hartuko dute aste bukaeran. Aritz Gerrickagoitia, Marta Igartzabal eta Sara Mantxola A mailan lehiatuko dira. Lehenengo aldiz parte hartuko dute, eta "urdu baina gogotsu" daudela esan digute haien irakasle Izaskun Barreñak eta Arazeli Guridik. Aurretik, urtarilaren 28an, Arrasateko jaialdian parte hartu zuten Bergarako, Arrasateko eta Eskoriatzako pianistekin.

Olaia Sagredo | Iesbaa elkarteko arduraduna

# "Beldurgarria izan zen Marokon bizi izandakoa"

- ▶ Erakusketa eta film emanaldia antolatu ditu
- ▶ Giza eskubideen urraketak salatzea da helburua

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Orain dela bost urte sortu zuen Iesbaa elkarte Olaia Sagredok, eta geratu barik dabil sahararren alde lanean. Otsail osoan izango da Arkupen *Hodeien seme-alabak* erakusketa, eta martitzenean, Saharako egoeraren berri ematen duen filma emango dute.

**Erakusketarekin zer erakutsi gura diezue aretxabaletarrei?**

Zein latza izan den eta oraindik den Saharako herriaren bizitza. Giza eskubideak bortxatzen dizkiete, ez bakarrik okupatzaile ilegala den Marokok, baita nazioarteko komunitateak ere, ez duela nazioarteko legea betearaztea exijitzen.

**Afapredesa elkarteak egindako erakusketa da (Saharako desagertutako preso senideen elkarteak); zelako lana egiten du elkarteak?**

Bertako kideak lurralde okupatuetatik ihes egindakoak dira eta senideen artean desagerturen bat daukate, kartzelan dagoena edo torturatuta izan dena. Euren lana lurralde okupatuetatik datorren informazioa zabaltzea da, ikuskatzaileei kontuak erraztea, kanpalekuetara doazen ordezkariak bortxaketan berri ematea...

Duela urte batzuk, Afapredesa kereila jarri zuen Marokoren kontra, genozidioa egotzita. Kereila hori onartu egin zuen Garzonek, eta orain beste epaile bat dabil kasuarekin. Datorren hilabetean 14 sahararrek deklaratu dute Auzitegi Nazionalan; tartean, Amineta Haidar dago.

**Orain arte Aretxabaletan egindako lana zelan baloratzen duzu?**

Oso ondo; herritarrek ahal duten heinean laguntzen dute. Orain, *El problema* filma ikustera animatuko nituzke, hobeto ulertuko dutelako sahararren aldarrikapena, haserrearen arrazoia eta Gdeim Izik kanpamentua eraiki izana protesta moduan; baita Iesbaa elkarteak giza eskubideak lan-tzearen arrazoia ere.

**Orain baduzue ekimenik abian edo laster antolatzen hastekotan?**

Euskadiko mahaian hainbat ditugu; bihar gauean, Erromoko gaztetxean itxialdia egingo dugu;



Olaia Sagredo, Arkupeneko erakusketa dagoen aretoan. | M.A.

**"Filmarekin hobeto uler daiteke sahararren aldarrikapena"**

**"Baliteke erregeari boterea kentzea, baina ez dut uste bota ahalko dutenik"**

martxoan, elikagai bilketa hasiko dugu *Piztu itxaropena* proiektuaren barruan; apirilean, ikasleekin kanpalekuetara joango gara; maiatzean, Aretxabaletan egiten dugun krosa 22rako genuen antolatuta, baina eguna aldatuko dugu, hauteskundeengatik. Karabana maia-

tzaren 28an irtengo da, Tolosatik.

**Iaz azaroan Saharako egoeraren berri jasotzera zindoazela, gelditu egin zintuzten Marokon.**

Bai; ezintasuna, haserrea, amorrua... sentitu nuen. Gainera, ez zen izan hori bakarrik; hiru egun egin nituen nik Casablancan epaiketa baten ikuskatzaile, eta epaitegian bizitakoa gogorra izan zen, sei ordu erretentuta egon ginelako. Marokoko abokatuek preso sahararrak jipoitu egiten zituzten, gu jotzen ere saiatu ziren, txua bota, irainak... Gurekin zeunden sahararrak kolpeka ateratzen zituzten epaitegiko gelatik. Benetan beldurgarria izan zen han bizitakoa.

**Tunisian eta Egipton gertatutakoak ikusita, Marokon ere antzekoren bat sor daitekeela uste duzu?**

Ez daukat argi; prentsan irakurri dut, baina ez nago ziur. Kontuan izan behar da Tunisian eta Egipton diktadurak zeudela, baina Marokon monarkia dago, nahiz eta mozarrotutako diktadura izan. Baliteke erregeari botere judiziala eta politikoa kentzea, baina ez dut uste erregea bota ahalko dutenik. Mohamed VI.ak badaki nola erosi herria. Uste dut erregea desagertuz gero nazioarteko komunitateak legea betearaztea exijituko lukeela, baina erregeak jarraitzen badu, hori ez da gertatuko.



Gernikako Akordioaren eragileak elkarteetako ordezkariak. | GERNIKAKO AKORDIOA

## Gernikako Akordioa aurkeztuko diete herritarrei gaur Arkupen

M.A. | ARETXABALETA

Gernikako Akordioaren berri eman gura diete herritarrei horren bultzatzaile diren Aretxabaletako eragileek, tartean EAK, Ezker Abertzaleak, Alternatibak eta Aralarrek. Ekitaldi apal baina dotorea egingo dute gaur (19:00) Arkupen, eta bake bidean aterabide demokratikoa bultzatzen duen akordio horrekin bat egin duten herriko hainbat elkarte eta taldek babesa eskainiko diote.

**Herriko elkarteek babestua**

Akordioa gizarteratzeko hartutako konpromisoa beteko dute gaurko ekitaldiarekin. Gorka Etxabe kazetariak aurkeztuko

du eta Oier Sarasua eta Aitor Ziardegi aretxabaletarren doinuek girotuko dute. Ondoren, Gernikako Akordioa zer den argitzen duen bideoa eskainiko diete elkartutakoei. Elkarte, talde eta aretxabaletarren atxikimendu eske jardun dute azken asteotan sinadurak batuta, eta zein elkarte eta taldek eman dieten babesa jakinaraziko dute gero. Bi elkarte horietako ordezkariak Gernikako Akordioak jasotzen dituen konpromisoak irakurriko dituzte.

Aurkezpen ekitaldia bukatu aurretik otsailaren 26an izango den ekitaldi nazionalen parte hartzera gonbidatuko dituzte herritarrek.

## Herrian kontsumo taldea sortzeko hitzaldia martxoaren 2an

M.A. | ARETXABALETA

Gipuzkoako Biolur elkarte eta EHNE sindikatua kontsumo taldeak sustatzen dabilta herriz herri eta gurean ere sortu gura dute. Kontsumo taldeak zer diren argibideak eman eta taldea sortzeko asmoarekin berbaldia egingo dute martxoaren 2an, eguaztena, Arkupen (19:00). Bertan izango dira Biolurko, EHNE sindikatuko eta Udaleko ordezkariak.

**Zuzeneko salmenta**

Biolurrek eta EHNEk kontsumo taldeen ereduaren gaineko argibideak emango dizkiete herri-

tarrei, Debagoieneko hainbat herritan dagoeneko abian daudenak, eta Aretxabaletako BASHERRI kontsumo taldea aurkeztuko dute.

Talde hori ekoizle eta kontsumitzaileak batuko dituen kooperatiba izango da. Zuzeneko salmenta bultzatuko dute modu horretan; izan ere, taldeko baserriarrek astero otarre bat prestatuko dute eta erosleak horixe jasoko du etxean. Otarreak sasoiko produktuak izango ditu, eta guztiak herrian ekoiztutakoak: era askotako barazkiak, esnea, arrautzak, ogia, sagardoa...

### OHARRAK

**DANTZA SAIOA**

1992an jaiotako neska-mutilek dantza saioa eskainiko dute domekan Herriko Plazan (19:00).

**ZERO ZABOR TALDEA ARGIBIDEAK EMATEN**

Aretxabaleta Zero Zabor taldeko kideak izango dira domekan, hilak 20, Herriko Plazan (18:30), hondakinen kudeaketaren gainean argibideak ematen.

**EZKER ABERTZALEA ARGIBIDEAK EMATEN**

Ezker Abertzaleko kideak izango dira eguaztenean, hilak 23, Mitarte kalean hauteskunde begira herritarren zalantzak argitzen (18:00-20:00).

**JOLASAK LUDOTEKAN**

Txantxa jolasak egingo dituzte 8 eta 12 urte arteko gaztetxoek domekan, Algara ludotekan (17:00-19:30).

### 'El problema' filma martitzenean

Martitzenean, hilak 21, *El problema* filma emango dute Arkupen. Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan gertatzen diren giza eskubideen urraketak erakutsiko ditu filmak, baita nazioarteko legeen bortxaketak ere. Asmoa da filmaren bi zuzendariak izatea emanaldian, baita EHUko irakasle Juan Soroeta ere —nazioarteko legeetan irakaslea eta Mendebaleko Sahararen aditua—, eta eztabaida bultzatuko dute bukaeran.

# Sarea jarriko dute pilotalekuan, usoendako

Herritar askok salatu dute uso mordo dabilela barruan eta zikin-zikin eginda uzten dutela guztia

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Iturri gorri pilotalekuko sabaia usoen bizileku bilakatu da azken hilabeteotan eta arazoa, gainera, larritzen doa. Hainbat herritarren eta batez ere bertako erabiltzaile diren pilota elkarteko kideen partetik kexa asko jaso dituzte Udalean. Izan ere, bazter guztiak zikin-zikin eginda uzten dituzte, eta pilotan eta jolasean dabilzanek ere zirina jasotzeko arrisku handia izan ohi dute.

Arazoa ez dela berria aitortu dute udal ordezkariak, baina bai "azkenaldian larritzen" joan dena. Zein irtenbide eman arazo horri aztertzen jardun dute azken asteotan, eta sarea jartzea erabaki dute, azkenean.

Sare hori usoak sartzen diren parean jarriko dute, pilotalekuan zabalera guztian; hain zuzen ere, sabaiko argiteria fokuak dauden parean. Menchaca izeneko enpresari eman diote lanen ardura, eta jakinarazi dute Bilboko Miribilla frontoian egiten dabilzan lanak bukatutakoan



Usoak bizi diren Iturrigorri pilotalekuko harmailak, zikinduta | M.A.

etorriko direla gurera. Jarraipena egingo diote gero, arazoa behin betiko konpondu den jakiteko.

## Birmoldatzeko asmoa

Goiko sarea jarri arren, pilotalekua ez dute guztiz itxiko oraingoz. Hala ere, Iturrigorri birmol-

datzeko egitasmoa lantzen dabiltzala aitortu du Inaxio Garro alkateak, eta proiektua egiten hasita daudela. Birmoldatzeko proiektu horren barruan, pilotalekua guztiz itxtea, aldagelak egitea eta beste hainbat hobekuntza lan egongo lirake.

## Aretxarte zozketarako txartelak banatzen dabil

M.A. | ARETXABALETA

Martitzena ezker berririo hasi dira zozketa txartelak banatzen Aretxarte merkatarien elkarteko komertzio eta ostalaritza zerbitzuak. Iazko abendutik ekimenik egin barik zegoen merkatarien elkartea, eta urteko lehenengoa berezia izatea gura izan dute. Hala, bada, saria izango da 1 Formulako Espainiako Sari Nagusia ikustera joateko bi sarrera (tribuna), eta bertan bi gau pasatzeko hoteleko egonaldia. Maiatzeko hirugarren aste bukaeran jokatuko dute txapelketa Montmelo zirkuituan (Bartzelona). Martxoaren 31ra arte banatuko dituzte zozketa txartel horiek, Aretxarteko komertzioetan erostekak eginda.

Bestalde, bigarren Ixade balde azoka antolatze lanetan dabil Aretxarte egunotan. Oraindik ez dute erabaki data-rik, baina martxoan izango dela aurreratu dute. Lehenengoa iaz irailean egin zuten eta herritarrek harrera bikaina egin zioten merkealdien azoka txikiari.

## NIRE USTEZ

ANJEL BERGARETXE



Ez da nahikoa

Hau da azken hilabeteetan ezker abertzaleak edo ETak emandako pauso bakoitzaren aurrean PSOEek eta PPK emandako erantzun ia automatikoa. Berdin erantzun dute PNVk eta baita neurri baten Aralarrek ere. Eta antza denez, azken bi alderdi hauek gustua hartu diote esaldi horri, eta orain EAri ere aplikatu diote.

Baina jakina, behin gustua hartuta, ezin horrekin bakarrik geratu, eta errepertorio osoa jaurti diote: ezker abertzalearekiko harremanak apurtu behar dituela, alderdia deuseztatu behar dutela...

NaBairen asmoa Nafarroara aldaketa eramatea ei da. Aldiz, oraingoan metodo berdinak erabiltzen dituztela ikusirik (xantxia, inposaketa, bazterketa...), zaila egiten da aldaketan sinistea. Zaila egiten zaidan bezala eskumako alderdi baten helburua "eskuma gobernutik kentzea" izan daitekeenik. Beste eskuma bat jartzeko ez bada, noski.

Bestalde, hartutako bidea ez dakit egokiena den sostengua handitzeko. Eskolan nabilela, behintzat, kopuru handiagoa lortzeko egin beharrekoak batuketa eta biderketa ziren. Azkenaldian, berriz, kenketa eta zatiketa basterik ez dut ikusten Nafarroan. Lelo zahar batek "zatitu eta garaituko dituzu" dio, baina ez dut uste norberaren burua zatitzeaz ari denik. Pozik eta esku igurtzika imajina ditzakedan bakarrik, NAFARROA BAI barik NAVARRA SI (antivasca y española, jakina) bultzatzen dutenak dira. Lastima!

**"Hartutako bidea ez dakit egokiena den sostengua handitzeko"**

## Antzerki, dantza eta gitarra ikastaroak antolatu ditu Loramendik martxorako

Izenemate epea zabalik dago, Loramendi Elkartearen bertan

M.A. | ARETXABALETA

Hiru ikastaro iragarri ditu egunotan Loramendi Elkarteak martxoan egiteko: gitarra astintzen hasteko; antzerkigintza gazte-oxendako; eta larrin-dantza. Kultur Eskola barruan daude hirurak eta izenemate epea zabalik daukate.

### Larrin-dantza eskolak

Martxoko eguazten guztietan (18:30-20:00) emango dituzte gitarra eskolak. Igor San Juan musikari aretxabaletarra izango dute

irakasle eta oinarrizko akordeak irakatsiko dizkie gitarrazaleei, baita abesti samur batzuk jotzen ere. Gitarra ikasleek eroatea komeni dela esan dute antolatzaileek, baina, izan ezean, Loramendiko kideei jakinarazi behar zaie. Izena emateko azken eguna otsailaren 25a da, egubakoitza; bazkideek 10 euro ordaindu behar dituzte eta gainerakoek, 15 euro.

Martxoko egubakoitzetan (19:00-20:30), osterara, antzerki eskolak jasotzeko aukera izango dute

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza dauden gaztetxoek. Antzerkigintza ezagutu eta gorputz adierazpena landuko dute Jurgi Etxebarria aktorearekin, Arkupeko Zaratia aretoko taula gainean. Debalde da izenemate epea azken eguna martxoaren 2a da.

Eta martxoaren 11tik 25era bitartean larrin-dantza eskolak emango ditu Maialen Elortza dantzari aretxabaletarrak, egubakoitz (18:00-19:30) eta astelehenean (19:00-20:30). Bost saio izango dira eta izenemate epea

martxoaren 9an bukatuko da. Bazkideek 10 euro ordaindu behar dituzte; gainerakoek, 15 euro.

Argibide gehiago gura dituztenak, edo izena eman, Loramendira jo dezala (16:00-20:00) -943 77 09 70 edo 685 75 67 29 eta [loramendielkarte@gmail.com](mailto:loramendielkarte@gmail.com).

### Bertso afaria 25ean

Gaur, osterara, Loramendi literatura lehiaketara aurkezteko epea bukatuko da. 8 eta 16 urte arteko ikasleei egin diete deialdia.

Eta datorren egubakoitzean, hilak 25, Hibaik Gain elkartearen egingo duten bertso afarirako txartelak salgai dituzte oraindik Loramendin eta Gurea tabernan. Maialen Lujanbio eta Uxue Alberdi bertsolariak gonbidatu dituzte afarira eta giro ezin hobea sortuko dela ziurtatu dute.



Santa Kurtz 24, behea ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21  
[garbittu@euskalnet.net](mailto:garbittu@euskalnet.net)

Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak  
•  
Obra bukaerako garbiketak  
•  
Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak  
•  
Kristalen garbiketak  
•  
Arropa garbiketak

**BENGOA**  
**URDAITEGIA**

Bertako okelak eta odolosteak

Durana 9. Aretxabaleta - Tel.: 943 79 19 79

# Zaharren egoitzaren egoerari buelta emateko, dirua batzen hasiko dira

Patronatuko kideek agerraldia egin zuten martitzenean; egungo egoeraren berri emateaz gain, esku artean dituzten proiektuak azaldu zituzten

J. IRIONDO/M. BITERI | ESKORIATZA

Eskoriatzako zaharren egoitzak egoera zaila bizi du; zerbitzuaren ardura duen Mesedetako Amaren fundazioak zor handiak ditu; urrian Eibarko Lan Arloko lehen epaitegiak ebatzi zuenez, egoitzaren zuzendari izan zenaren kudeaketa txarragatik. Fundazioaren zorra 345.000 euro da egun, eta kopuru horri aurre egiteko eta eraikinean birgaitze lan minimoak egin ahal izateko diru-bilketa kanpaina jarriko dute martxan.

Martitzenean horren berri eman zuten fundazioko kideek. Egoitzaren funtzionamendua birbideratzeko garaia dela aipatu zuen patronatuko presidente Angel Elortzak. Haren esanetan, "hartutako neurriek ez dira nahikoa zorra ordaintzeko" zorraren zati handienari eta 2010eko maiatzetik hona gastu arrunt osoari aurre egin ahal izan zaio. Hala ere, diruzaintzako egoerak eta diru-sarreraren eta gastuen egungo balantzeak ez dira nahi-

koa egindako zorra epe motzean ordaintzeko".

Esandako kanpaina herritar, administrazio publiko nahiz enpresa pribatuei zuzenduta dago, eta horretarako, Kutxan (2101 0038 57 0012756144) eta Euskadiko Kutxan (3035 0044 82 0440028200) kontu zenbaki bana ireki dituzte.

## Astelehenean hitzaldia

Bestalde, egoitzaren egoera ekonomikoaren gainean informazio gehiago ezagutu nahi dutenendako hitzaldi informatiboa egin-

go dute astelehenean egoitzako kaperan, 19:30ean. Hitzaldi horren gaineko informazioa banatzen ari dira egunotan etxeetan.

Kanpaina aurkezteaz gain, gaur egun esku artean dituzten proiektuen berri ere eman zuten martitzenean. Estatutuak eta paperak eguneratzen ari dira, eta patronatuaren kideen izendapenak aldatzen. Horretaz gain, egoitza Euskal Autonomia Erki-degoko Fundazioen Legeari egokitzeko egin beharreko gestioekin dabilta, eta egoitzaren izena aldatzeko aukera ere aztertzen dihardute. Egoitzari Jose Arana izena ematea pentsatu dute, egoitza egiteko dirua eman zuen zizonaren omenez.

Bestalde, lanpostu berri bat kontratatuko dute; hain justu, erizain/kudeatzaile lanpostua. Dagoeneko kalean daude horretarako oinarriak. Martxoaren 4a baino lehen aurkeztu behar da curriculum egoitzan bertan.

**ESANAK**

**"Hartutako neurriak ez dira nahikoa zorra ordaintzeko"**

**ANGEL ELORTZA | PATRONATUKO KIDE**



Lanean dabilen taldea. | HERRI PROGRAMA 2011

## Herri programa osatzen ari da ezker abertzalea

Herritarren ekarpenak jasotze aldera, mintegiak, inkestak eta webgunea gertatu dituzte

M.B. | ESKORIATZA

Ezker abertzalea hauteskondeei begira herri programa osatzen ari da. Orain arte, agintaldiko hasierako balorazioa eta ebaluazioa egin dute, eta hemendik aurrera, herri programa osatze aldera, herritarren ekarpenak jasoko dituzte.

Horretarako, hainbat ekimen antolatu dituzte: batetik, mintegiak daude; herriko elkarte, eragile eta pertsonen zuzenduta daude, elkarrekin herriaren gaineko diagnostiko bat egin eta etorkizunari begira lan-ildoak zehazteko. Hirulan talde osatu dira, eta horietan hainbat gai jorratuko dira: ongizatea (gizartea, emakumea, etorkinak, langabezia, adineko pertsonak, GKEak...); hirigintza, ingurumena, turismoa eta elizateak; eta kultura (gazteria, euskara,

hezkuntza eta kirola). Kultura landuko duen taldea hilaren 26an, 12:00etan, batuko da; hirigintzarena, martxoaren 1ean, 19:00etan; eta ongizatearena, martxoaren 2an, eguaztenean, 20:00etan. Batzar guztiak kultura etxean izango dira.

### Inkestak etxeetara

Lantaldeez gain, inkestak bidez ekarpenak egiteko aukera egongo da. Etxe guztietara banatuko dira inkestak, eta buzoiak jarriko dira oraindik zehazteko dauden herriko hainbat lekutan inkestak emaitzak jasotzeko. Azkenik, [www.herriprograma2011.net](http://www.herriprograma2011.net) webgunean aurki daitezke mintegietan jorratutako gaiak. Bestalde, iradokizunak eta ekarpenak egin gura dituztenek [eskoriatza@herriprograma2011.net](mailto:eskoriatza@herriprograma2011.net) helbidea dute eskura.



Patronatuko kideak martitzenean egindako agerraldian. | ANABEL DOMINGUEZ

## OHARRAK

### GO CHIC GAUR INKERNUN

Gaur, egubakoitza, kontzertua dago Inkernu tabernan. Taipeiko (Taiwan) elektro-pop taldeak zuzeneko emanaldia egingo du, 23:00etan.

### ASTEBURUKO KIROL HITZORDUAK

Bihar, zapatua, hiru kirol hitzordu daude Intxaurtxuetako kiroldegian. Goizean, 11:00etan, gazteen mailako areto futbola dago; etxekoek Jesus Obrero A gasteiztarrak hartuko dituzte. Arratsaldean, 16:00etan, saskibaloiko lehen mailako kadeteek jokatuko dute; Eskoriatza eta Hondarrribiko Gozodenda kafetegia lehiatuko dira partidu horretan. Hori amaitzean, 18:00etan, euskal ligako areto-futbolaren txanda iritsiko da; Etxe-

koek Tolosala taldea izango dute aurrean.

### GORE ETA SUKALDARITZA TAILERRA GAZTELEKUAN

Asteon bi ekimen izango dituzte herriko gaztelekuak. Bihar, zapatua, gore tailerra egingo dute; eta etzi, berriz, sukaldean sartuko dira.

### KZGUNeko TUTOREA

Astero moduan, eguaztenean, hilak 23, egongo da liburutegian KZguneko tutorea, 10:30etik 13:00etara bitartean.

### IPIUIN KONTALARIA

Eguenean, hilak 24, giza balioak lantzeko umeendako ipuin kontaketa egongo da Udal Liburutegian, 18:00etan.

## PSE-EE haserre dago Diputazioarekin, pinu-beldarregatik

Eskoriatzako PSE-EEK pinu-beldarren izurritearen aurrean dagozkion erantzukizunak bere gain hartzeko eskatu dio asteon, prentsa ohar baten bidez, Gipuzkoako Diputazioari. Horren harira, alderdi horretako zinegotzi Iñaki Pierruguesek salatu du joan den urtean Aldundiak ez zuela pinu-beldarren aurkako hegazkin-kanpainerik egin.

Horrekin batera, gogorazi du pinudietako izurrite "garrantzitsuena" dela, eta kalte handiak eragiten dituela pinuetan eta baita pertsona eta etxeko abereetan ere, urtikaria eta alergiak sortzen dituelako.



MIRIAN BITERI

## Eduardo Gorosarriren plaka

Eduardo Gorosari eskoriatzarraren omenezko plaka jarri dute ostera ere haren jaiotetxean. 1989an jarri zuten lehen aldiz, haren jaiotzaren lehen mendeurrena ospatzeko egindako omenaldi-ekitaldien artean. Orain dela bi urte, Jose Arana kaleko 20. zenbakiko etxe hori zaharberitzeko obrak egin ahal izateko, plaka kendu egin behar izan zen. Esan bezala, bere tokian jarri dute ostera ere.



# Aukera egongo da eskolako patio estalia erreserbatzeko

Kirol eta aisialdigune izango da; pilotalekua, pilotarako

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Hilaren 9ko ohiko osoko bilkuran eskolako patioaren erabilerari buruzko araudia onartu zuen udalbatzak, aho batez. Eskola orduetan eskolaren erabilerarako izango da patioa, baina hortik aurrera erabiltzaileen aukeran geratuko da aisialdigune edo kirolgune izan. Kirolen kasuan, areto-kiroltzat ezagutzen diren kiroltan jarduteko erabiliko da: atletismoa, eskubaloia, saskibaloia, boleibola, areto-futbola... Horrez gain, hileta edo omenaldi zibilak ere egin ahal izango dira aterpean, joan den abenduan onartutako ordenantzaren zehazten den moduan. Udalak izango du patioa erabiltzeko lehentasuna, eta ondoren izango dira: herri ikastetxeak, eskola garaian; herriko erakundeak; herritarrek.

Ordutegia ere izango du patioak: asteko egunetan, eskola orduetan eskolaren erabilerarako izango da patioa; 19:00ak arte lehentasuna izango dute 12 urtetik behar-koek eta 19:00etatik 22:00etara erreserbatzeko aukera egongo da.



Umeak jolasean, eskolako patio estalian. | USOA AGIRRE

Aste Santuan, Gabonetan eta umeen udako oporretan, 09:00etatik 19:00etara erabilerara libre (12 urtetik behar-koek lehentasuna) eta 19:00etatik 22:00etara erreserbatzeko aukera.

## Pilotalekuan, pilota bakarrik

Patioko erabileraren araudia onartuta, pilotalekuko araudian ere aldaketa egon da: orain arte, bes-

te estalperik ezean, pilotalekuan ibil zitekeen, besteak beste, baloia-ekin eta patinekin. Orain, baina, pilotalekuan lehentasuna emango zaio pilota kirolari eta ezingo da baloia-ekin ibili, ezta baloi kirol-lik egin ere.

Eskolako patioaren araudia GAO-n argitaratu eta 15 eguneko epea egongo da erreklamazioetarako.

## Araudiaren zenbait puntu

**ERABILERA** Eskolako orduetan eskolaren erabilerarako izango da. Kultur eta kirol ekintzak egiteko ere erabiliko da; hileta zibilak egiteko ere bai.

**GARBITASUNA** Kantxan, zikinduko duen ezer ez da jango, ezta edango ere. Kantxatik kanpo jan edo edanez gero, garbi lagatzeaz kontsumitzailea arduratuko da.

**ORDUTEGIA** Eskola egunetan 16:30etik 19:00etara eta eguazten arratsalde guztian erabilerara libre izango da; lehentasuna 12 urtetik behar-koek izango dute. 19:00etatik 22:00etara erreserbatzeko aukera egongo da. Zapatu, domeka eta jaiegunetan, erabilerara libre, 09:00etatik 22:00etara (lehentasuna 12 urtetik behar-koek).

**ERRESERBAK** Asteazkenean, 19:00etatik aurrera erreserbatzeko aukera dago. Irailean emango beharko da izena.

## NIRE USTEZ



UGAITZ ITURBE

## Ulertzeko moduko zerbait

Argentinarrak espainola hitz egiteko modu oso italiarra izateaz gain, badituzte Argentina deritzon estatu pseudo-moderno horretan beste hizkuntza ugari ere. Eta ez, ez dira italiarra edo alemana edo beste edozein hizkuntza bezala europar immigranteek eramandako hizkuntzak, bertokoak dira, nahiz eta bertokoak diren gehienek ez jakin ez ze hizkuntza diren ezta non hitz egiten diren ere. Ez gizar-teak ezta gobernuak ere ez dute benetako kontzientziarik bertan duten altxor kultural horretaz, eta zer esanik ez dago, hiztunentzat hizkuntza hauek duten garrantziaz.

Bertan dabilzan europarren artean hain ezagunak diren 100 pesoko billeteetan, adibidez, teuletxeak masakratuz eta hauei lurra lapurtuz Argentina handitu zuen gizona eta bere ekintza gogoangarria ageri dira, *La conquista del desierto*. Lotsa, behintzat, gutxi dute, horrelako astakeria esku artean izanda ere lasai asko dabilta-eta. Geurean ere izan genituen billete espainol lotsagarriak, eta ez naiz ari aurreko Patxiren garaiez!

Baina historiaz hitz egiten hasiz gero, onena atzera egin eta hasierara joatea izango da, Amerika berriaren hasierara, konkistaren garaira, hain zuzen ere. Martinez de Irala antzuolarrak eta berekin batera Buenos Aires fundatu zutenek egindako basakerietara. Zor historikoan sinisten badugu, kostako zaigu zor hau kitatzea!

**"Kostako zaigu Argentinarekiko zor historikoa kitatzea!"**

## OHARRAK

### PIOLET ETA KRANPOI IKASTAROA

Izena emateko aukera egongo da otsailaren 23an eta martxoaren 3an, 19:30etik 20:30era, Arrolaren lokalean, Olanaren etxe 3. gelan.

### KARTEL LEHIAKETA

Martxoaren 8ko kartel lehiaketara lanak aurkezteko epea otsailaren 21ean bukatuko da, 13:00etan. Oinarriak, [www.antzuela.com](http://www.antzuela.com) webgunean.

### FUTBOLA

Antzuolako taldeak Orioren kontra jokatu du zapatuan, 16:30ean, Orioko Mendibeltz futbol zelaian. Antzuola bosgarren dago sailkapenean; Orio, bederatzigarren.

## Paco Morcillo (PSE-EE) ez da alkategai izango

Maiatzaren 22an izango diren udal hauteskundeetarako zerrendak prestatzen ari dira alderdi batzuk. Antzuolako PSE-EE-n, adibidez, zerrenda osoa oraindik zehazteke baldin badute ere, Morcillok adierazi digu ez dela alkategai izango. Gainontzeko alderdietan bilerak egiten ari dira, baina oraindik ez dute ezer zehaztuta. Ezker abertzalea agintaldiko balorazio orokorra egiten ari da eta definizio prozesuan daude; EAJn ere hasi dira bilerak, baina ez dute ezer zehaztu; Aralarrek eta Zutik-ek, berriz, ez dituzte oraindik hauteskundeetarako bilerak hasi.



INIGO RAMIREZ DE OKARIZ

## 25 urteren ostean, erretaula etxera

Duela 25 bat urte eraman zuten parrokiako erretaula Donostiako elizbarrutiko museora eta 1993an zaharberritu zuen Ramon Gudiolek. XVI. mendearen bukaerakoa da, Pizkunde garaikoa, eta berriz ere Antzuolan ikusteko aukera izango dugu. Hilaren 26an joango dira erretaularen bila eta eliza berrituan jarriko dute, pulpitu inguruan.

# EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea  
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

## LARREA

TABERNA

Kalebarren 17  
ANTZUOLA



Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua  
ANTZUOLA.  
Tel. eta faxa:  
943 76 60 89

## ZAHAR BERRITZEAK:

Fatxadak

Bainugela eta sukaldea

Lokal komertzialak

Teilatuak

# Kalte-ordainak jasotzeko bidea ere zailtasunez josita etorriko da

Eguaztenean egindako bileran zalantzak eta ezkortasuna izan ziren nagusi

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Bide mozketak eragindako kalteen ordainak jaso ahal izateko administrazioak batere erraztasunik emango ez duela ulertu ostean joan ziren eguaztenean aramaioarrak osoko bilkura aretoan egindako bilera irekitik. Lepo bete zen aretoa eta kezka eta zalantzak izan ziren nagusi ia bi ordu iraun zuen bileran. Askorako eman zuen bilerak eta herritarrek ezkor joan ziren bileratik, oro har. Luzerako emango du auziak; hona Asier Agirre alkateak eguaztenean esandakoa: "Halako bat egitera beste herriren batera joan behar badute, birritan pentsa dezatela".

Hasteko, Asier Agirre alkateak 2010eko abenduaren 15etik -lur- jausia gertatu aurretik Aramaio-ko Udalak eman zuen Cuatrovientos baserri ondoko lur mugimenduen berri- gaur egunera arte Udalak egindako urrats eta tramite guztien berri eman zuen. Gero, Maribi Joaristi abokatuak Udalarri eta Aramaio-ko herriari sortutako kalteen gainean jardun zuen, eta, azkenik, Mercedes



Udaleko osoko bilkuren aretoa eguaztenean, jendez lepo. | JOKIN BEREZIARTUA

Zulaika abokatuak herritarrei erreklamazioak jartzeko orduan jarraitu beharreko prozedura azaldu zien. Gero etorri zen herritarren galdera saio luzea.

## Erreklamazio bat pertsonako

Zulaikak emandako aholkuetako bat izan zen erreklamazioak indibidualizatzea. Hau da, kasu bakoitza bereiztea "garrantzitsua" da, Zulaikaren arabera: "Erre-

klamazio bakarra eta berbera bidaliz gero, balio sinbolikoetan jausiko dira ordainak, eta hor gehienok galtzaile irtengo zarete".

Beraz, herritarrek ahalegin berezia egin beharko dute, eta Udala gertu dago laguntzeko. Udalak konpromisoa hartu du herritarrek dituzten zalantzak abokatuari helarazteko.

## Ibarratik Azkoagarako bide zaharra zehaztu gura du Udalak

J.B. | ARAMAIO

Udala aspalditik dabil Aramaio-ko bide zaharrak berreskuratu guran, herriko ondare historikoa mantentzeko asmoz. Bada, Ibarra eta Azkoaga auzoak lotzen zituen bide zaharra, Zalgotik hasi eta Inurri baserrira arte doana, ez da salbuespena izango.

Egun, saihesbide ondoan hasten da bidea, eta Udala konturatu zen bidearen nondik norakoak ez daudela behar bezala zehaztuta. Hau da, inon ez da jasotzen bidea hor dagoenik eta ezta non hasi eta non bukatzen den ere. 600 metro inguru ditu bideak, tartean dago Sorrin-zubi deritzon zubia. Bide zahar horrek balio handia duela uste du Udalak. Bestalde, bidea zehaz-

tu barik egoteaz gain, duela gutxi konturatu ziren bidea inguratzen dituen lurak norenak diren ere ez dela zehazten.

## Baserritarren iritzia zain

Udalak espediente bat zabaldu du ibilbidea zehazteko eta astelehenean egindako ezohiko plenoan onartu zen dokumentua, aho batez.

Orain, baserritarren iritzia zain daude, espedientearekin ados dauden edo ez jakiteko. Epe legal bat emango diete baserritarrei euren iritzia emateko, eta, bestela, espedienteak zehaztutako moduan katalogatuko dute Ibarratik Azkoagarako bide zaharra.



Sahiesbide ondotik hasten da bide zaharra; ez dago egoera onenean. | J.B.



**MERCEDES ZULAIKA**  
ABOKATUA

"Herritar orok du aukera kalte-ordaina eskatzeko, baina kalteak ondo justifikatu behar dira. Zaila izango da, oztopoak izango dira-eta nagusi. Eragindako kalteaz konturatzeko aukera bakarra da erreklamazioa jartzea".



**IZASKUN ORMAETXEA**  
DENDARIA

"Hornitzaileari eskaera egin nion joan den astean eta ez da etorri. Niretako bakarrik delako ez da etorri. Erreklamazioa eskatu nuen, baina ez dakit kalteak nola justifikatu; ez dut ordainik jasotzeko esperantzarik".



**MARI JOSE KORTABARRIA**  
HERRITARRA

"Ekonomikoa baino gehiago, arriskua da kalte handiena. Istripua izan nuen bigarren egunean; oso gogorra izan zen. Ez dugu ordainik jasoko, baina salaketa egin behar dugu, oso minduta gaudela erakusteko balio dezala".

## Arriolabenboa eta Agirre bigarren kanporaketan egongo dira, Oionen

J.B. | ARAMAIO

Martxan da 2011ko Arabako bertsolari txapelketa. Otsailaren 12an Laudio-ko Basalarrina elkartearen jokatu zen lehen kanporaketa, eta, 60 bat lagunek bapo afaldu ostean, saioa 80 bertsozale inguruk jarraitu zuten. Xabier Igoa aramaioarrak bigarren postuan amaitu zuen, Oihane Perearen atzetik.

Beraz, Igoak beste kanporaketetako puntuazioei itxaron beharko die finalerdikoetarako sailkatzen den jakiteko. Hona-koa izan zen lehenengo saioaren puntuazioa: Oihane Perea (158 puntu), Xabier Igoa (142,5),

Rikardo Gonzalez de Durana (139), Alberto Martinez *Betto* (134), Ainhoa Comas (132) eta Bingen Sainz (113,5).

## Bigarren saioa ere, afalostean

Hurrengo bi saioak bihar eta etzi izango dira, Oionen eta Ilarduian. Oiongo Azkenak elkartearen jokatu den bigarren kanporaketan Andere Arriolabenboa eta Iker Agirre aramaioarrak hartuko dute parte. Afaria 20:30ean izango da -izenematea [araba.sustapena@bertsozale.com](mailto:araba.sustapena@bertsozale.com) edo 675 707 971 telefonora deituta, 15 eurotan- eta saioa, berriz, 22:30ean.

## Extremadurara irteera antolatu du Alaiak erretiratu elkarteak

Alaiak elkarteak astebeterako irteera antolatu du martxoaren 28tik apirilaren 3ra arte. Extremadura aldera joango dira eta bertan hainbat irteera egingo dituzte.

Erretiratuen egoitzan eman behar da izena, eta martxoaren 5a da azken eguna. 339 euro ordaindu beharko da izenematea.

## 'Shutter Island' filma ikusi ahalko da gaur kultura etxean (21:45)

Martin Scorsese zuzendariaren eta Leonardo di Caprio aktore duen *Shutter Island* pelikula eskainiko dute gaur kultura etxean, 21:45ean. Filmak oso kritika onak jaso ditu.

Bestalde, haurrei zuzendutako *Pepper* pelikula ikusi ahalko da domekan. Euskaraz izango da, kultura etxean, 17:00etan.



**Martxa onean  
doa Korrikako  
herri batzordea**

Hiru aste dira Aramaion Korrika Batzordea sortu zela. Bilerak martitzen egiten dituzte, kultura etxean (18:00). Herriko hainbat kultura taldek eta norbanakok hartzen dute parte. Apirilaren 14an pasako da Korrika Aramaioetik. Martitzeneko batzordeotan, baina, Korrika Kulturala ari dira antolatzen, eta, jakinarazi dutenez, atek zabalik daude edonorendako.

## ELGETA

# Urtea bete da Aixolako zentroa zabaldu zutela

Inkesta baten galdetutako herritarren %54,3k esan dute ez dela herriko bizi-kalitatean nabaritzen

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

"Zentroa zabaldu zenean nahiko zalaparta egon zen. Elgetan baino gehiago, inguruko herrietan, nire ustez", gogoratzen du Oxel Erostarbe alkateak. "Gero, gainera, handik gutxira, Ertzaintza etorri beharra egon zen. Horrek ere nahiko zalaparta sortu zuen". Urtea bete da Gipuzkoako Foru Aldundiak Aixola Goikoa base-rrian etorkin adingabeendako zentroa zabaldu zuela. Herritarrek adierazi dute ez dela herriko bizi-kalitatean aldaketarik nabaritu.

## Herritarrek, lasai

"Nik uste dut horrelako zentroekin normalean pasatzen den moduan gauzak normalizatzen dabilzala", baloratu du egunotan alkateak. "Elgetako Udaletik, behintzat, ez dugu arazo larririk ikusten".

Herritarren iritzia jasotzeko asmoarekin, etorkin adingabeendako zentroaren gaineko galdera bat sartu zuen Udalak berriki telefonoz egindako inkestan. 18 urtetik gorako 234 elgetarri galdetu zaie ea zentroa zabaldu izanak eragina izan duen herriko bizi-kalitatean. Ezetz erantzun dute %11,5ek, ez dela nabaritzen %54,3k eta baietz %29,1ek. Gainerakoek, %5,1ek, ez dute iritzirik eman.



Gipuzkoako Foru Aldundiak Aixolan zabaldu zutako zentroa. | L.Z.

## Auzotarrak

Aixolan auzotar gutxi bizi da egun, baina badaude baten batzuk. Adingabeen zentrotik oso gertu bizi dira, esaterako, Angel Gallastegi eta Arantxa Elkoro senar-emazteak. "Ez dugu kezarik, formal dabilzta aspaldi honetan", esan digu Elkorok. "Ikusi ere gutxi ikusten ditugu", adierazi du. "Tarteka, baloi batekin jolasean ikusten ditugu eta zentrotik iritertzen direnean zaintzaile batekin iritertzen dira beti. Aspaldi honetan formal dabilzta".

## Jarraipen batzordea, martxan

Aixolako zentroa zabaldu eta denbora gutxira jarraipen batzorde bat ipini zen martxan inguruko hainbat udalen ekimenez. "Eibar, Ermua, Elgeta eta Zaldibar gaude jarraipen batzorde horretan, baita Gipuzkoako Diputazioa ere", azaldu du Oxel Erostarbe alkateak. "Hilero elkartzeko gara eta jarraipena egiten diegu zentroaren gorabeherei. Hori izan zen adostutako bidea eta bide egokia dela uste dut", esan du Erostarbek.

Oxel Erostarbe | Alkatea

## "Askotariko proposamenak egon dira, eta nahiko interesgarriak"

L.Z. | ELGETA

Bilerak, inkestak, foroak... amaitu da Foru Aldundiarekin batera Udalak bultzatutako *Elgeta 2020* prozesu parte-hartzailearen lehenengo fasea. Galdera, orain, berez dator: eta orain zer?

### Herritarrek egindako ekarpenekin zer egingo du Udalak?

Herritarrek eta herriko talde ezberdinek egindako ekarpenak txosten baten jasota daude. Asmoa, orain, ekarpen horiek lehenetsun arabera antolatzea da eta 2020ra begira betetzen joatea. Lehenetsunak taldeka antolatuko ditugu: alde batetik, bizpahiru urtean aurrera eramatekoak direnak; bestetik, gauzatu ahal izateko urte gehiago beharko dituztenak; eta, azkenik, Udalaren eskumenak ez direnak. Azken horiek beste erakunde batzuekin negoziatu beharko dira.

### Ekarpen interesgarriekin dituzte herritarrek?

Askotariko proposamenak egon dira, eta nahiko interesgarriak. Askotan, Udaletik urrun ikusten ditugun gauzak herritarrek



Oxel Erostarbe. | L.Z.

gertuagotik bizi dituzte. Nabarmenduko nuke Udaletik ere ikusia geneukan gabezia garrantzitsu bat azaldu dela: garraio publikoa. Herritarrek ere huts horrekin bat egiten dute. Bagabiltza Foru Aldundiarekin horren inguruan berbetan. Ea hurrengo asteetan urte batzuetarako proposamenen bat adosten dugun.

### Parte-hartzea ona izan da?

Foroak, bilera sektorialak, inkestak... Formula ezberdinak topatzen saiatu gara. Parte-hartzea ona izan da, eta gura izan duenak aukera hori izan du.

## OHARRAK

### ANTZERKIA UMEENDAKO

Gaur, barikua, 17:30ean, *Kili kontuak* antzezlan Espaloian. 3-10 urte bitarteko umeendako. Sexualitatea lantzen duen antzezlan. Sarrera doan ludotekako bazkideendako; euro bat gainerakoendako.

### DANTZALDIA

Bihar, zapatua, erretiratuendako dantza saioa Espaloian, 18:00etan hasita. Gardoki taldea.

### KZGUNEAN

Astlehenean, tutoretza KZgunean 09:00etatik 13:00etara.

## Herri Programa osatzeko deia

Elgetan ere martxan da *Zure ahotsa, gure hitza* kanpaina. Herritarren ekarpenak jasotzeko etxez etxe inkestak banatuko dituztela jakinarazi du Elgetako ezker abertzaleak. Sarean webgunea ere zabaldu dute: [www.herriprograma2011.net](http://www.herriprograma2011.net), hain zuzen ere.



ELGETAKO EZKER ABERTZALEA

## LEINTZ GATZAGA

### Ur deposituaren lanak hasi eta pilotalekua inauguratuko dute bihar

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Bihar, otsailak 19, oraintsu eraberritutako pilotalekua inauguratuko dute. Ekitaldia, gainera, ur deposituaren lanei hasiera emateko aprobetxatuko dutela iragarri du Aldundiak.

Landa Ingurunearen Garapenerako diputatu Rafa Urbarren eta Eusebio Villar alkatea udal-letxean elkartu (11:45) eta Gatzaga-

gainera joko dute ur deposituaren lanei hasiera emateko (Landagipuzkoa kartela jarri).

Gero pilotalekura joango dira (12:30) inaugurazio ekitaldirako. Zinta moztu eta berba batzuk esango dituzte Aldundiko, Udaleko eta Etorlurko ordezkariak. Bukatzeko, mokadutxo eskainiko dute kultura etxean.

### Emakumeen Eguneko bazkarirako izena Labidean eman behar da hilaren 28rako

M.A. | LEINTZ GATZAGA

Sorginak emakume elkarteak hasita dago martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Eguna gertatzen. Aste bukaerara pasatu dituzte egun horretako ekitaldiak, eta egubakoitzean, martxoak 11, Kepa Errasti aretxabalekarraren *Maritxu* film laburra eskainiko dute kultura etxean (19:00).

Zapatuan, martxoak 12, bazkaltzeko elkartuko dira herriko emakumeak, eta antolatzaileek iragarri dute umore ona eta giro ezin hobea izango direla Gure Ametsa jatetxean, urtero legez. "Hortaz, anima daitezela emakume guztiak".

Bazkarirako izena aurrez eman behar da Labidea dendan; azken eguna otsailaren 28a da.

**Aperribay, s.l.**

*Marmoldegi  
eta granitoak*

Pagatza indus. z/g.  
Tel. eta faxa: 943 78 90 21  
**20690 ELGETA**

## MENDIKO ESKIA

**Iban Letamendi** | Euskal Herriko mendiko eskiko txapelduna

# "Euskal selekzioarekin egon arren, ez dut aparteko presiorik sentitu"

- ▶ Oñatikoa, bakarka eta bikoteka, Euskal Herriko txapeldun izan da
- ▶ Asteon atseden hartu, eta denboraldiaren bigarren zatiari helduko dio gero

XABIER URTZELAI | BERGARA

Iban Letamendi (Oñati, 1978) mendiko eskian denboraldi erdia bete du, eta ezin zuen hobeto egin: bakarka eta bikoteka –Joseba Tobar tolosarrarekin batera– Euskal Herriko txapeldun izan da, eta joan den asteburuan, Andorran, Espainiako txapelketan bederatzigarren sailkatu zen.

**32 urterekin hasi zara mendiko eskian emaitza onenak batzen. Zaila da bi hilabete hauetako txapelketetan egindako lana hobetzea.**

Garbi nuen denboraldi hasiera ona egin nahi nuela, eta pozik nago, bai. Iaz aurrerapauso handia egin nuen, ondo ibili nintzen, eta horri esker deitu zidaten euskal selekzioetik. Aurten hobeto entrenatzen nabil, eta ez dakit, ba, urteek aurrera egin ahala batzen duzun esperientziagatik izango da, baina gustura nabil. Dena dela, kirol honetan oso ohikoa da 40 urte bete dituztenak aurrean ikustea. Esperientziak balio handia du hemen.

**Iazko Euskal Herriko txapeldun Joseba Tobarrekin osatzen duzu bikotea, eta lasterketetan haren aurretik ere ibili zara. Lasaitasuna ematen du horrek? Igarri duzu selekzioarekin lehiatzearen presioa?**

Ez, ez dut inolako presiorik izan. Batetik, selekzioan ez digutelako emaitzarik eskatzen, konpromisioa hartu eta lana fundamentuz egitea da eskatzen diguten bakarra. Eta Euskal Herriko eta Espainiako zenbait lasterketetan egotea, baina ez gehiago.

Bestetik, iazko denboraldia ikusita, banekien lana ondo eginez gero aurrean egoteko gauza izango nintzela.

**Andorran izan duzue azken lasterketa, asteburuan. Espainiako txapelketa, eta hamar onenen artean (bederatzigarren).**

Bueno, normalean nire aurretik ibiltzen diren hainbat eskiatzailek ez zuten zortetik onena izan, arazoak izan zituztelako materialarekin. Normalagoa izango litzateke 15. postu inguruan sailkatzea, baina lasterketa ona egin nuen.

Oso lasterketa gogorra izan zen, luzea eta teknikoa. Hainbat korridore eta mendi ertz gainditu behar izan genituen, eskiak bizkarrean, kranpoiak jantzita, eta jaitsierak ere nahiko teknikoa ziren, elurra ez zegoelako



Iban Letamendi, aste barruan, Oñatiko plazan. Oraingo astea atseden hartzeko aprobetxatuko du oñatiar eskiatzaileak. | MIREIA BIKUÑA

batere ondo. Hala, horrelako lasterketa baten euskaldun bat 9. sailkatzea ondo dago.

**Inguruan ez dugulako nahi beste elur izaten?**

Hori da. Kirol honetan kataluniarrak dira jaun eta jabe, negu osoa elurretan ematen dute eta hori igarri egiten da. Hiruzpalau eskiatzaile egongo dira profesional moduan lehiatzen dabilzanak, eta aurreko postuetan ibiltzen diren beste bi eskiatzaile Guardia Zibilak dira. Nos-

ki, hauek ere mendiko eskira dedikatzen dira. Guk, berriz, bizpahiru orduko bidaia dugu elurretara joateko, eta aste barruan ez dugu elurretan entrenatzeko aukerarik. Horregatik diot pozik egoteko moduko emaitza dela.

**Zelan entrenatzen zarete?**

Urtarrilean eta otsailean gorputzaldi onean egoteko derrigorrezkoa da irailtik hasita serio lan egitea, oinarri ona egitea. Korrika eginez, bizikletan ibi-

liaz... halaxe entrenatzen gara, eta baita roller-ean ibilita ere. Mendiko eskiko teknika hartzeko modalitate aproposa da, eta Arantzazura igotzen gara roller-ekin [asfalto gainean eskiatzea bezala].

**Euskal selekzioan jardunda, baduzue abantailarik?**

Bai, eta asko eskertzen dira. Jokin Lizeaga teknikariak planifikatzen dizkigu entrenamenduak; denboraldia beste modu baten prestatzen ikasi dut, atse-

den hartzeak duen garrantziaz jabetu naiz.

Horrekin batera, lasterketeko izenematea, hotelak, bidaiak... Ardura horiek eta horiek dakartzaten kostuak federazioak ordaintzen ditu. Eta, federazioak Ternua etxearekin duen hitzarmenari esker, materiala, arropak... oparitzen dizkigute. Hori ere izugarri eskertzen da.

**Asteburuan atseden hartu eta gero, datozen asteotan zer?**

Bost aste egin ditugu batera eta bestera, eta gustura hartuko dut atseden. Bi aste barru, berriz, Aragoiko kopan izango naiz eta martxoaren 13an Formigalen egingo duten euskal kopan.


Bikoteka, berriz, Joseba Tobar eta biok bikain moldatzen gara, eta martxoaren 27an egingo duten Espainiako bikotekako txapelketan lan ona egiteko motibatuta gaude.

**Eta aurten, Pierra Menta eta horrelakorik ez?**

Aitor [Otxoa, Ibanen iazko bikotekidea] badoa, baina ez dut uste ni joango naizenik. Beste lasterketa batzuei eman diet lehentasuna, eta horietarako prestatu naiz. Horrelakoetan ez zait gustatzen hitzorduak inprobisatzen ibiltzea.

**"Urteek ematen duten esperientzia oso baliagarria da mendiko eskiko lasterketetan"**

**"Selekzioarekin egonda, bidaiak, hotelak, materiala... laguntzak ditugu, eta eskertzen da"**



Iban Letamendi, lasterketan. | GOIENA

## ZIKLOTURISMOA



Bergarako zikloturista koadrila bat, 5+3 zikloturismo probako irteera puntuan, iaz, Agorrosin parean. | X.U.

# Gipuzkoako zikloturismo probak kolokan daude

## Maiatzaren 1ean egin nahi zuten Bergarako irteera

XABIER URTZELAI | BERGARA

Zikloturista gehienak kilometroak pilotzen hasi diren honetan iritsi da albiste txarra; izan ere, oraingoz, kolokan daude Gipuzkoako Challenge barruan egiten diren hamaika probak, tartean Bergarako 5+3 proba.

Kontua da Eusko Jaurlaritzak ezarritako araudi berri bat dela eta, proba zikloturista txirringularitzako gainontzeko lasterketekin bateratu dituztela (amateur mailakoak, 23 urtez azpikoak, gazte mailakoak...). Horrek esan nahi du martxa zikloturista bakotza zaintzen Ertzaintzak egon beharko duela, eta hor dago arazoa. Baina arazoa ez da polizia zaintza lanetan egongo dela; kontrara, azken urteotan zirkulazio-

ko arau-hauste bat baino gehiago egon delako arazoak izan dituzte antolatzaileek, eta eurak dira, askotan, Ertzaintzaren prezentzia gehien eskertzen dutenak. Arazoa da ez dagoela nahiko ertzain pro-

ba guztiak jarraitzeko, edo hori egiteak gastu handia dakarrela, Herrizaingo Sailaren arabera. Arazoa, baina, hori baino korapilotsuagoa da, araudiak dioelako asteburu bakoitzeko, lurral-

deka, ezin direla lau lasterketa baino gehiago egin. Hala, zikloturismo martxak lasterketen multzo berean sartu dituztenez, egutegian ez dago denendako tokirik.

### Bergarakoak, haserre

Debagoienean proba zikloturista bakarra dago, iaz lehenengoz egin zuten Bergarako 5+3 proba: "Maiatzaren 1ean egin nahi genuen gure proba, baina oraindik ez dugu erantzunik jaso, eta dena zintzilik dago. Otsail hasieran premiazko batzar batera deitu gintuen federazioak; Herrizaingo Saileko Zirkulazio Departamentukoekin izandako batzarraren berri eman ziguten, baina ordutik hona ez dugu berririk izan", adierazi digu Unai Asurmendik. "Alde horretatik, gure haserrea adierazi nahi dugu antolatzaile garen aldetik ez dugulako informaziorik jaso eta egunak aurrera doazelako".

Araudiak bere horretan jarraitzen badu, denendako lekua ez dagoenez federazioek lasterketen hitzorduak lehenetsiko dituzte, harrobiko ziklismoa sustatzeko, baina ordainean proba zikloturista alde batera uztea hanka-sartze handia izango litzateke: "Gipuzkoan bertan 3.500 zikloturista federatu inguru daudelako eta Gipuzkoan gehien praktikatzen den kirolen artean dagoelako".

Hala, ikusteko dago ze konponbide duen arazo honek, baina denboraldi hasiera gainean dago -Zumarragan da lehen proba, apirilaren 3an- eta ez dirudi konponbide erraza duenik.

### 2011KO CHALLENGEKO BEHIN-BEHINEKO EGUTEGIA

EGUNA	PROBAREN IZENA
<b>Apirilak 3</b>	Zumarragako proba
<b>Apirilak 17</b>	Debako proba
<b>Maiatzak 1</b>	Begarako proba
<b>Maiatzak 8</b>	Egiako proba
<b>Maiatzak 22</b>	Villabonako proba

EGUNA	PROBAREN IZENA
<b>Maiatzak 29</b>	Zarautz-Gernika-Zarautz proba
<b>Ekainak 5</b>	Donostia-Baiona-Donostia
<b>Ekainak 12</b>	Bidasoako Bira
<b>Ekainak 19</b>	Bidasoako Pedal Eguna
<b>Irailak 25</b>	Urretxuko Klasikoa

## FUTBOLA

## Jaitsiera postuak gertuegi dituztenen arteko derbia

Aloñak eta Mondrak indarrak neurtuko dituzte domekan Azkoagainen, 16:30ean hasita

X.U. | BERGARA

Aloña (20 puntu) eta Mondra (25) ez daude lagunaren arteko derbiak jokatzeko. Egia da bi taldeen artean bost puntuko alde dagoela, baina oñatiarrak behetik gora datoz, kolpeka bada ere, eta Mondrari geroago eta gehiago kostatzen ari zaio aldeko emaitzak lortzea -ahazteko moduko hila-betea daramate.

Esandako moduan, larri samar dauden bi talde izango dira domekan aurrez aurre (Azkoagain,

16:30). Joaneko partiduan zuri-moreek ondo hartu zuten mendean talde gorritxoak (3-0), baina domekako derbirako erreferentzia horrek ez du askorako balio. Arrasatekoek jokalarikopuruarri dagokionez justu jarraitzen dute -jokalarikopuruarri gertuegi dituzten urtea, eta lesioek ez dute egoera samurtu-, eta Aloñakoak entrenatzaile aldaketarekin jaitsiera postuetatik irten dira -puntu bategatik baino ez da, baina psikologikoki eragina izaten du-,



Idigoras, Mondraren kontra etxean jokatuak derbietako baten. | GOIENA

baina oraindik bide luzea dute egiteko, beste 20 puntu bai.

### UDA eta Bergara, bikain

Ligan aurrera egin dutenak, berriz, Aretxabaleta (37) eta Ber-

gara (36) dira. Bergarak Pasaia-aren bisita izango du bihar, zapatua, Agorrosin (16:30), eta Aretxabaletak Donostiara egingo du bidaia domekan, Berioeren kontra jokatzera (17:30).

## SASKIBALOA

## Sustrai Aloñak Donostian eta MUK Loion jokatu dute

Lehen Nazional mailan dabil-tzan talde debagoienarrek etxetik kanpora jokatu dute. Arrasatekoek jaitsiera fasean egongo den Urdanetaren kantxara egingo dute bisita bihar (18:00). Easo Pastas taldearen kantxan, berriz, ligako bi oilarrak izango dira zein baino zein gehiago, oñatiarrek liderraren kantxara egingo dute-eta bidaia (18:00).

## GIMNASIA ERRITMIKOA

## B mailako eskola arteko txapelketa egingo dute zapatuan Bergaran

Txapelketa horretako lehenengo fasea egingo dute bihar Labegaraletan, eta bertan lehiatuko dira Bergarako eta Arrasateko gimnastak. Goizeko saioan (11:00-13:00) alebinak eta infantilak lehiatuko dira, eta aerobik erakustaldia ere egongo da. Arratsaldeko saioan (16:45), berriz, benjamin mailako erakustaldia egongo da.

## TRIALSINA

## Aretxabaletan egingo dute domekan hirugarren jardunaldia

Gipuzkoako trialsin txapelketako hirugarren jardunaldia izango da domekan Aretxabaletan -Oñatin izango da hurrengoa-. Txapelketa 10:30ean hasiko da, eta bertan egongo dira, besteak beste, munduko txapeldun Benito Ros eta Jon Areitio. Etxeko pilotuen artean, berriz, Markel Uriarte eta Murua anai-arrebak lehiatuko dira.

## XAKEA

## Arrasate-Arlutzeok puntu bat batu zuten San Vitorren kontra

Euskal ligako A mailan, Arrasate-Arlutz taldeko Fran Miguel, Andoni Miguel, Josu Tornay eta Txema Hernando lehiatu ziren San Vitorren kontra eta puntu bat batzeko gauza izan ziren, bi partidatan berdinketa egin da. Orain, ibarreko ordezkariak zortzigarren daude sailkapenean, zortzi puntu batuta.

## ERRUGBIA

## Arrasate-Durangok etxean jokatu du Baztanen kontra

Arrasateko eta Durangoko jokalariek osatzen duten taldeak Mojategin jokatu du bihar, zapatua, 16:30ean, Baztanen kontra. Etxean izango den norgehiagoka bakarra izango da, gainontzeko taldeek atsedean hartuko dute-eta. Domeka goizean, berriz, errugbi eskolako saioak egingo dituzte Mojategin, 10:30etik 12:00ak arte.

## Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

### Anduaga Jatetxea



Eguneko menua | Bokatak  
Plater konbinatuak | Errazioak

Araba Ibilbidea 31, behea | Aretxabaleta | 943 79 96 54

### BASABE

Menuak eta afariak



Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 77 31 19



Loteria eta kinielak

DORLETA TABERNA  
Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15 ARETXABALETA

### Gurea TABERNA

Lotoak eta kinielak

Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64

### HIRUSTA JATETXEA




Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57

### IOSU taberna harategia

Urdaitegia-gozotegia  
Kroasantegia  
Gertatutako janariak

Mitarte 1  
Tel.: 943 77 03 08



### Matikua jatetxea

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

### OTZETA JATETXEA



Aranburuzabala 9 ESKORIATZA Tel.: 943 71 31 67

hemen bada **arri**

# KULTURA

## 25 urte geroago, indartsu

- ▶ 1986an sortu zuten Bergarako Orkestra Sinfonikoa; 25. urteurrena ospatzen dabilta
- ▶ Lehen talde hartatik 12 lagunek jarraitzen dute orkestran eta 62 partaide dira gaur egun

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Ez da marka makala orkestra sinfoniko batek 25 urte betetzea. Are gehiago, kontuan hartuta herriko orkestra bat dela, musikari amateurrek osatua. Bada, gurean, Bergarako Orkestra Sinfonikoa 25 urte bete dituela ospatuko du aurten.

1986an sortu zuten orkestra Bergarako musikariek. "Proiektu bat bezala sortu zen. Lehenengo, Musika Eskola sortu genuen eta hurrengo proiektua orkestra sortzea izan zen. Lehenengo lana, baina, neska-mutikoei musika irakastea izan zen", gogoratu du Alfredo Gonzalez Chirlaque orkestrako zuzendariak. "Especialitateak etorkizunari begira jarri genituen; hau da, etorkizunean musika instrumentu guztiek oreka izan zezaten", gaineratu du. Orkestra baten, hari-instrumentuek izaten dute pisu handien.



Egubakoitzetan entseatzen dute, Musika Eskolako lokalean. | JULIO CALLEJA

### 45 lagun hasi ziren

Orain dela 25 urte 45 lagun hasi ziren orkestran. Bergararrek eta antzuolarrek osatu zuten lehenengo talde hura. 1986ko uztailaren 5ean eskaini zuten lehenengo kontzertua, Mariaren Lagundiko aretoan: "Zerbait jotzen ikasi orduko", dio Gonzalez Chirlaquek. Eusko-eleskiak eta Feelings izan ziren kontzertu hartarako hautatu zituzten lanak.

Orkestran jotzeko arauetako bat izan zen orkestran jo gura zuenak instrumentua jotzen ikasi behar zuela Musika Eskolan. "Kanpoko laguntzarik ez genuen gura izan", gaineratu du. Taldean hasi ziren neska-mutikoei 13 urte inguru zuten garai hartan. Etorkizunari begira egindako proiektua izan zen: gaur egun dagoen orkestrara iritsi arte.

"Herri askotan daude musika bandak, baina orkestra tradiziorik ez dago; batez ere, hari-instrumentuak jotzeko tradizioz ez delako egon", azaldu du Gonzalez Chirlaquek. "25 urte iraun duen orkestrarik ez da egongo, beste herrietan, gu bezala amateur mailakoak direnak", dio. "Badaude hirietan, eta kontserbatorioen barruan sortutakoak, baina ez amateurrek".

### Benito Lertxundirekin

25 urteotan hamaika kontzertu eskaini dituzte. "Asko gustatzen zaizkit orkestrak bakarrik jotzen



Orkestrak eskaini zuten lehenengo kontzertua, Mariaren Lagundian.

BERGARAKO ORKESTRA SINFONIKOA

dituen kontzertuak", azaldu du. Izan ere, orkestrak hainbat kontzertu bandaren laguntzarekin edo abesbatzarekin ematen ditu; adibidez, Gabonetako kontzertua.

Edozelan ere, bereziki gogoan du Benito Lertxundirekin batera

eman zuten kontzertua: "Euskal Herrian izen handia duen musikaria da. Halako profesionalak gurekin jotzea ohorea da; baina neu, bereziki, orkestrako kideengatik pozten naiz; izan ere, egiten duten lanaren esker ona da", dio. Benito Lertxundiz gainera, Gol-

den Apple Quartet laukotearekin ere jo dute.

Anekdotarik duten galdetuta, Gonzalez Chirlaquek dio kontzertu bat inoiz ez dela irteten nahi den moduan: "Akats potoloak izan ditugu: adibidez, jo behar ez den notaren bat jotzea, edo sarrera eman eta inor ez sartzea... gertatzen diren gauzak dira". Gaineratu du: "Jotzen hasi aurretik berotu egiten dugu. Hala, gogoan dut behin esan niola bati la nota jotzeko. Esaten nion: 'Altuago, altuago...'. Eta, mutikoa, urduritasunagatik, aulkitik jaiki zen nota jotzeko".

### Gaur egun 62 lagun dira

Gaur egun 62 lagun daude taldean, eta orkestra tradizionalan egon beharreko instrumentu guztiak daude ordezkatuta. Hasierako taldetik 12k jarraitzen dute.

### Urteurren kontzertua

"25 urte betetzea oso garrantzitsua da, batez ere guretako, baina ez dira hainbeste urte. Hortaz, ospakizun xumea egingo dugu", azaldu du Gonzalez Chirlaque orkestrako zuzendariak.

Urteurren kontzertu berezia ekainaren 25ean egingo dute, zapatua, pilotalekuan. Orkestraren ibilbidea erakutsiko dute, eta jo zuten lehen pieza ere joko dute: *Feelings*. Ondoren, taldekideek eurek bazkaria izango dute. Urteurrena amaitzeko, Gabonetako kontzertuan, eurendako hain garrantzitsua izan den *La misión* joko dute.

25 urteotan zer-nolako bilakera izan duen galdetuta, amateur mailakoak direla kontuan hartuta aurrerapen handiak egin dituztela dio. "Musikalen inguruan muntaketa handiak egin ditugu -Titanic, Avatar...-, eta profesionalak diren musikariek ere aritu gara jotzen", dio. "Hortaz, maila bat lortu dugun adierazle dira aipatutakoak", gaineratu du Gonzalez Chirlaque orkestrako zuzendariak.

### 'La misión' lana taldearen ikur izan da

1991n hasi ziren *La misión* jotzen eta lan horrek garrantzia izan du orkestraren ibilbidean; ikur izan dela esan daiteke. "Euskadi guztira, Andaluziara, Valentziara... joan gara", azaldu du zuzendariak. "Garai hartan ez zegoen partiturarik, nik egin nuen partitura, musika entzuten", azaldu du.

1993an Huelvara bidaiatu zuten orkestrako kideek, hain zuzen, *La misión* zela-eta. "Huelvako bandako zuzendaria Donostiako Eritira etorri zen. Han esan zioten Bergaran jotzen zela *La misión*. Gurera etorri, eta esan zidan: 'Zer nahi duzu trukean?'. Nik esan nion: 'Huelvara joatea'. Eta halaxe izan zen", gogoratzen du.



Sara Mantxola –Goyarekin– eta Aitor Mantxola atzean lantaldearekin. | GOIENA

## Sara Mantxola: "Asko pisatzen dute Goya irudiek"

'Una caja de botones' eta 'Bon Appétit' filmek saria eskuratu zuten domekan banatu ziren Goya sarietan

**A.EZKIBEL/A.ARBURUZABALA** | OÑATI  
Aitor eta Sara Mantxola aita-alabek eta Aitor Perosterenak Oñatira ekarri dituzte parte hartu duten filmen –*Una caja de botones* (film labur onenaren saria) eta *Bon Appétit* (Zuzendari Berriak

saria eskuratu du David Pinillos zuzendariak)– bi sarien zatitxo bana. Perosterenak *Bon Appétit* filmean atrezzo lanak egin ditu eta Mantxolak argazki zuzendari lanak. "Asko pisatzen du irudiak. Maria Reyesek utzi zidan

Goya, eta Pinillosek ere utzi zidan berea hartzen", azaldu du Sarak, pozik. Aitortu du urduritasuna hasieran izan bazuen ere, behin saridunak zirela jakinda poza sentitu zuela.

Aitorrek dio ez zuela espero bi sariak irabaziko zituztenik: "Batez ere, David Pinillos izen handikoen aurka lehiatzen zelako –Emilio Aragon, Trueba...–. Film ona egin arren, izenek pisu handia izaten dute". Aitorrek ere poza hartu zuen, lantaldearengatik gehienbat: "Lan ona egin dute, eta gogorra izan da".

### Artista ezagunen musuak

Aitak eta alabak besarkada batekin eta patxoekin ospatu zituzten sariak. "Inguruan zinemako jende nagusia zegoen, urte mordoa daramatenak, eta Sarari esaten zioten: "¿Eres tú la artista? Enhorabuena....", azaldu du Aitorrek.

Sarak dio oraindik ez duela autograforik sinatu, baina eskatu, eskatu zituela batzuk: "Aprobetxatu nuen argazkiak ateratzeko, adibidez, Unax Ugalderekin", dio Sarak.

Jaialdirako, Sarak bere soineko kuttunena eraman zuen, "marroi bat". Azaldu du, baina, han ikusitakoen artean batzuk gustatu egin zitzaizkiola, baina beste batzuk ez. Gaua luzea izan zela aitortu dute, eta "parranda" egin zutela.

### Jarraituko ote du?

Aitak dio esperientzia polita izan dela, baina hurrengo *casting* batera aurkeztu edo ez Sarak erabaki beharko duela. Horren harira, Sarak dio "ikusit" egin beharko duela errepikatzen duen edo ez.

Goya sariak curriculumuma betetzen duten galdetuta, Aitorrek dio ez dutela Oscarrek duten indar eta izen bera.

## 21 istorio batuko dituzte Kunka taldeko kideek 'Historias canallas' lanean

Antzezlana Amaia antzokian izango da domekan, 19:30ean, eta 10 euro kostako da

**A.E.** | ARRASATE

Kunka talde gateiztarrek *Historias canallas* lana eskainiko du domekan. Komedia bat da; hain zuzen ere, komedia "kritiko eta garratza", taldekideen esanetan.

Kunka taldeak "emozio askotariko" antzerki lan moduan aurkeztu du antzezlana. Istorio orokorra 21 istorioz osatuta dago; eta, horietan, pertsonaiek eramango gaituzte, era poetikoan, barre egitetik negar egitera eta malkotik, berriro ere, irribarrera.

### Zuzeneko musika

Antzezlanean hiru aktorek parte hartuko dute: bi gizonak –Eloi Beato eta Josean de Migel– eta emakume batek –Angeles Argudo–. Gainera, taula gainean musika zuzenean joko duen musikari bat egongo da: Alejandro Ruiz de Azua *Alex*.

### Ordubete pasako iraupena

Joan-etorriko istorioa da *Historias canallas*, gure bizitzan hain konplexuak eta funtsezkoak diren alderdietan sakontzen duena: adibidez, maitatzea eta ez maitatzea, irabaztea eta galtzea, jaiotzea eta hiltzea.

Ikusle nagusiei zuzenduta dagoen antzezlana da. 2010eko urrian estreinatu zuten Kunka taldekoek lana, Elorrioko Arriola aretoan, eta ordubete eta 20 minutuko iraupena du. Arrasateren ondoren, Getxon eta Basaurin aurkeztuko dute lana gasteiztarrek.

### Kunka taldea

Kunka taldeak hainbat ikuskizun egin ditu dagoeneko. Lehenengoa *Meando fuera de tiesto* izan zen. Arrakasta handia lortu zuten lan harekin. *Sexo gratis* arrakastatsua ere euren antzezlana da.



Kunka taldeko kideak. | GOIENA

## Niños Velcro taldeak girotuko du gaztetxea datorren egunean

**A.E.** | ARRASATE

Arrasateko Kooltur Ostegunak egitasmoaren barruan, datorren egunean, hilak 24, Madrilgo Niños Velcro taldeak joko du gaztetxean.

Kontzertua, beti bezala, 22:00etan izango da eta sarrera 5 euro kostako da.

### Araurik gabeko musika

Funk fusio musika egiten dute madrildarrek. Euren *myspace* atarian diote ez dutela araurik musika egiterakoan, eta euren estiloa estilorik eza dela: "Funka egiten dugu, baina baita metala ere". Sanba, druma eta bassa, reggaea, swinga, rocka eta latin-

darra... Ska eta rapa ere gogoko dutela adierazi dute.

### Araurik gabeko musika

2006an sortutako taldea da Niños Velcro. Adituek diote zuzeneko bortitzak dituztela, "aretoa sutan" jartzeko modukoak.

Egiten duten musikak dantzarako gogoia pizten du, eta taldekideek bidaia amaigabe bat egiteko beste indar dutela diote.

Egueneko kontzertuarekin otsaileko egitaraua amaituko da. Datozen hilabeteetan, besteak beste, Hesian, Norman, Anari eta Malatu izango dituzte gaztetxean.



Sara Mantxola, Unax Ugalderekin. | AITOR MANTXOLA

### ESANAK

"Aprobetxatu nuen argazkiak ateratzeko, adibidez, Unax Ugalderekin"

SARA MANTXOLA | AKTOREA

"Batez ere lantaldearengatik poztu naiz, Pinillosek oso zail zuten-eta"

AITOR MANTXOLA | ARGAZKILARIA



## 'Uharte ezezaguna': sarrerak salgai daude

Markeliñeren antzezlanaren hilaren 27an izango da, 17:00etan, Oñatin

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Oñatiko Udaleko Kultura Sailak antolatuta, Markeliñe taldeak *Uharte ezezaguna* antzezlanaren eskainiko du Oñatiko Santa Anan otsailaren 27an, domekan.

Kultura Sailak adierazi du sarrerak salgai daudela kultura etxean. Interesa dutenek kultura etxetik bertatik pasa beharko dute asteleheneretik egubakoitzera,

16:30etik 20:30era. *Uharte ezezaguna* antzezlanerako sarrerak 3,5 eurotan jarri dituzte salgai.

**Jose Saramagoren ipuina**

*Uharte ezezaguna* Jose Saramagoren ipuinean oinarrituta dago. Neska batek erreginari itsasontzi bat eskatzen dio uharte ezezagunera joateko. Hori da antzezlanaren abiapuntua. Erreginak

ez dio ezetzik esango neskari; horren aurrean, erreginaren zerbitzariak neskaren atzetik joatea erabakiko du, abentura bila.

Markeliñek keinuetan eta ikusmenean oinarritutako antzezlanaren proposatzen du, zerumugara egiten duen begirada aldarrikatzen duen abentura. Antzezlanaren, potentzialtasunak garatzeko

eta jomugarekin dugun ardura aurrera eramateko dugun esku-bidea defendatzen da.

**Jose Saramagoren ipuina**

Bestalde, Kultura Sailak adierazi du martxoaren 4ko *Ecografias* lanerako sarrerak ere salgai daudela. Sarrerak eskuratu gura dituztenek kultura etxetik pasa beharko dute, 16:30etik 20:30era. Sarrerak 10 eurotan daude salgai. *Ecografias* lana Makiescenica taldeak taularatuko du, Emakumeen Nazioarteko Egunaren barruan.

## 'Pésame mucho' antzezlanerako sarrerak salgai daude

Datorren egubakoitzean, otsailaren 25ean, Elgetako Espaloia Kafe Antzokian Pez en Raya taldeak eskainiko duen *Pésame mucho* antzezlanerako sarrerak salgai daude dagoeneko. 10 eurotan daude salgai; egunean bertan, leihatilan, 12 eurotan salduko dituzte. Denboraldiko ikuskizunik onenaren saria irabazi du taldeak aipatutako antzezlanerakin.

## Aitor Borobia bergararra Tartufoko antzezlanean aktore

Domekan, 19:00etan, Tartufon (Bergara) Yonunka antzerki taldeak eskainiko duen antzezlaneko protagonistetako bat Aitor Borobia bergararra izango da. *Ambición* umorezko lana eskainiko dute Borobia, Alex Igartua eta Olatz Ganboak. Antzezlanaren William Shakespeare-ren testuetan oinarrituta dago, eta *clown* ukituak izango ditu.

Borobia Zerrajerako lana utzi zuen aktore izateko. Domekako lehenengo aldia izango da bergararrak herritarren aurrean antzeztu duena. Getxoko antzerki eskolan dabil Borobia.

## Amodiozko gutun onenen irabazleak, sariekin

San Valentín egunez banatu zituzten amodiozko gutunen lehiaketako sariak Bergaran. Ezkerretik eskumara: Jaione Isazelaia, 50 urtetik gorakoen irabazlea; Alaine Agirre, bigarren saria; Idoia Galan, irabazlea; Deiane Lage, gazteen saria; eta, Elene Etxaniz, bergarar onena.



ARANTZAZU EZKIBEL

## ARRASATEKOBASERRIKO PRODUKTUENAZOKA

09:00 - 14:00 Seber Altube Plaza

## HILEKO 3. ZAPATUAN

# 2011

otsailak 19  
martxoak 19  
apirilak 16  
maiatzak 21  
ekainak 18  
uztailak 16  
irailak 17  
urriak 15  
azaroak 19



Edurne Elkoro | Gimnasia erritmikoko entrenatzailea

# "Azken 5 urteotan asko hazi den kirola da, gaur egun 120 gara Arrasate Dragoi taldean"

Edurne Elkoro, gimnasia egiteko maza eta uztaia eskuetan dituela.

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Edurne Elkorok (Arrasate, 1984) urte asko eman ditu Arrasate Dragoi taldeko gimnasta moduan. Orain, berriz, entrenatzaile lanetan dihardu. Otsailaren 5ean, Arrasateko Uarkape pilotatekuan bertako taldeak antolatutako txapelketan hasi zuten denboraldia. Bada, Elkororekin egon gara, horretaz gehiago jakiteko.

**Zer da gimnasia erritmikoa gehien gustatzen zaizuna?**

Denetik lantzen den kirola dela. Oreak, malgutasuna edo gorputzaren espresioa asko lantzen den kirola da eta hori lantzeko zorrotasun handia behar da. Gainera, bizitzarako balio duten balioak erakusten ditu; adibidez, jendarrera beldurrik gabe ateratzen jakitea.

**Dantzaeginez musika interpretatzen duzue. Inprobisaziorako lekurik badago gimnasia erritmikoa?**

Orain dela urte batzuk gimnasia erritmikoa izandako aldaketa batzuen ondorioz, ezin da inprobisatu. Ariketa egin baino lehen gimnastek egin behar duten ariketa fitxa baten idatzita eman behar diote epaimahaiari. Fitxan idatzitakoa betetzen ez baduzu, gutxiago puntuatzen da.

**Zer nahiago duzu: helburua finkatzea eta hori betetzea ala inprobisatzea?**

Egia esan, ez dakit. Inprobisaziorako lekurik ez badago, ariketa oso landuta eraman eta ondo eginez gero, badakizu zein izango den zure puntuazioa. Eta kale egiten baduzu, badakizu non egin dituzun akatsak.

**Zergatik eskatzen du zorrotasun handia gimnasiak?**

Egiten ditugun ariketak jendeak uste duena baino askoz ere zailagoak direlako. Denok ezagutzen dugu espagata. Baina hori lortzeko malgutasuna asko landu behar da, ez da egun batetik bestera ikasten den teknika. Horretaz aparte, orekari ondo eustea eta birak ondo egitea oso zaila da.

**Gimnasta izatetik entrenatzaile izatera pasatu zara. Zer-nolako aldaketa da?**

Kanpotik gauzak beste modu baten ikusten dira. Egiten dituzten mugimenduak zorrotasunez begiratzen dituzu, egiten dituzten akatsak identifikatzeko eta zuzentzen saiatzeko. Askotan, gimnasta izatea baino gogorragoa da entrenatzaile izatea.

**Kirolariak motibatzea zaila da?**

Kirol hau maitatzen laguntzea da gure helburu nagusia. Normalean, neskatila bat gimnasia egiten hasten bada, gustuko duelako da. Horrek asko laguntzen du, baina guk gimnasia egiteko zaletasuna handitzea nahi dugu. Gehienetan, lehiaketa baterako ariketak prestatzen direnean kirolariak asko motibatzen dira, helburu zehatz batekin lan egiten dutelako.

**Bakarkako eta taldekako kirola da. Zeintzuk dira bien arteko desberdintasunak?**

Biak lantzen ditugu. Normalean, gazteekin taldeka hasten gara eta, maila bat lortzen dutenean, bakoitzaren arabera da, batzuek bakarka hobeto egiten dute eta beste batzuek, berriz, taldeka. Biak egitea posible da, baina oreka hori behar da.

**Nola ikusten duzu gimnasia erritmikoa Arrasaten?**

Egoera onean dagoela uste dut. Azken 5 urteotan asko hazi den kirola da eta gaur egun 120 gara Arrasate Dragoi taldean.

**Ez duzu bueltatzeko tentaziorik izan?**

Txapelketetan tentazioa izaten dut. Gimnasiak ordu asko eskatzen ditu eta gaur egun, ez dut astirik. Hala ere, oso lan polita dan entrenatzaile izatea.

**Duela astebete Arrasaten egindako txapelketa antolatu zenuten. Nola joan zen?**

Ondo. Nahiz eta aurten, pilotalekuan izandako arazo teknikoengatik, bi egunean egin behar izan dugun txapelketa. Horrelako ekitaldiak antolatzeko, ikusten ez den lan asko egin behar da, eta, horretaz aparte, zure taldearen ardura eraman behar duzu.

**Gimnasia egiteko elementuetatik, zein duzu gustukoena?**

Denak; jendeak zinta du gustukoena, elementurik ikusgarriena delako, baina baita zailena ere.

## MARRA AZKARREZ

**Ikasketak:** Diseinu Grafikoa.

**Liburu bat:** *Los hombres que no amaba a las mujeres* (Stieg Larsson).

**Zaletasun bat:** Lo egitea.

**Amets bat:** Bidaia asko egitea.

**Gustuko gauza bat:** Txokolatea.

**Bizi izateko leku bat:** Arrasate.

**Bisitatzeko leku bat:** Mexiko.

**Gimnasta bat:** Anna Besonova.

**Gimnasia egiteko elementu bat:** Zinta.

**Musika talde bat:** Edozein, denetik entzutea gustatzen zait.





## ASTEAGOIENAN



## Aloña Mendiren eta Mondraren arteko derbia

Domekan Azkoagainen jokaturiko derbia komentatuko dugu eta bertako irudiak ikusi ahal izango dira. Iban Letamendi banaka eta binaka Euskal Herriko mendiko eskiko txapelkun oñatiarrarekin ere izango gara.

**'Harmailatik'**  
Astelehena, 20:45



## Politika kontuak jorratuko ditugu 'Tertulia'-n

Politika kontuak izango ditugu hizpide aste honetako *Tertulia* saioan; Sorturen legalizazioari buruz hitz egingo dute solasaldian, baita Nafarroa Bairi buruz ere. Julen Iriondoren gidaritzapean izango da hori.

**'Tertulia'**  
Eguaztena, 20:45

## GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 18	ZAPATUA, 19	DOMEKA, 20	ASTELEHENA, 21	MARTITZENA, 22	EGUAZTENA, 23	EGUENA, 24
13:15 Marrazki bizidunak	08:00 Marrazki bizidunak	08:00 Klik	13:15 Marrazki bizidunak	13:15 Marrazki bizidunak	13:15 Marrazki bizidunak	13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Kantari	09:30 28.Klip	08:35 Leku txiki bat	13:35 Kantari	13:45 Kantari	13:35 Kantari	13:45 Kantari
14:15 Onein	10:00 Ipupomamua	08:55 Ipupomamua	14:15 Berbetan	14:15 Onein	14:00 Harmailatik	14:15 Onein
14:45 Berriak	10:30 Leku txiki bat	09:20 Marrazki bizidunak	14:45 Berriak	14:45 Berriak	15:45 Berriak	14:45 Berriak
15:15 Ur eta lur	10:45 Goiena Magazinea	10:45 Kantari	15:15 Lamien artean	15:15 Harmailatik	15:15 Onein	15:10 Nire Herria
15:45 Kulturzulo	11:45 Ur eta lur	11:15 Bertso saioa	15:45 Ikusmira	16:00 Kulturzulo	15:40 Bi tartean	15:35 Bi tartean
16:00 Leku txiki bat	12:15 Onein	11:45 Iragana gogoratu	16:15 Gipuzkoa kultura	16:15 28.Klip	16:30 Leku txiki bat	16:30 Ikusmira
16:10 Danbako	12:45 Berriak	12:15 Berbetan	16:45 Berriak	16:45 Berriak	16:45 Berriak	16:45 Berriak
16:45 Berriak	13:00 Kantari	12:55 Ur eta lur	17:10 Marrazki bizidunak	17:15 Marrazki bizidunak	17:10 Marrazki bizidunak	17:15 Marrazki bizidunak
17:15 Marrazki bizidunak	14:00 Leku txiki bat	13:30 Esatea libre	17:45 Klik	17:45 Harmailatik	17:30 28.Klip	17:45 Ipupomamua
17:45 Gipuzkoa kultura	14:15 Marrazki bizidunak	14:30 Onein	18:15 Marrazki bizidunak	18:25 Marrazki bizidunak	18:30 Marrazki bizidunak	18:15 Marrazki bizidunak
18:15 Ipupomamua	15:45 Esatea libre	15:00 Berriak	18:45 Berriak	18:45 Berriak	18:45 Berriak	18:45 Berriak
18:45 Berriak	16:45 Gipuzkoa kultura	16:45 Bi tartean	19:15 Kantari	19:15 Kantari	19:15 Kantari	19:15 Kantari
19:15 Kantari	17:15 Kulturzulo	17:30 Ikusmira	19:45 Goiena Magazinea	19:45 Goiena Magazinea	19:45 Goiena Magazinea	19:45 Goiena Magazinea
19:45 Goiena Magazinea	18:30 Filma	17:50 Esatea libre	20:45 Harmailatik	20:45 Danbako	20:45 Tertulia	20:45 Iragana gogoratu
20:45 Gipuzkoa kultura	19:30 Ikusmira	18:50 Klik	21:30 Goiena Magazinea	21:30 Goiena Magazinea	21:45 Goiena Magazinea	21:15 Goiena Magazinea
21:15 Goiena Magazinea	20:20 Danbako	19:20 Marrazki bizidunak	22:30 Harmailatik	22:30 Iragana gogoratu	22:45 Tertulia	22:15 Gipuzkoa kultura
22:15 Danbako	21:20 Berriak	20:15 Danbako	23:15 Gipuzkoa kultura	23:00 Goiena Magazinea	23:45 Lamien artean	22:45 Danbako
23:45 Goiena Magazinea	21:35 Goiena Magazinea	21:15 Goiena Magazinea	23:45 Goiena Magazinea			23:45 Goiena Magazinea
	22:35 Nire Herria	22:15 Tertulia				
	23:00 Gipuzkoa kultura	23:15 Filma				
	23:30 Bi tartean					
	23:59 Bertso saioa					

## ARRASATE IRRATIA

## 'Aitona Matias' haurrendako antzerkirako sarrerak

Otsailaren 26an, zapatuan, *Aitona Matias* antzezlan eskainiko dute, 17:00etan, Arrasateko Amaia antzokian. Bada, Arrasate Irratian sarrerak ditugu zozketan. Deitu 943 25 05 05-era edo idatzi [irratia@goiena.com](mailto:irratia@goiena.com) helbidera.

## Sareko azken berriei buruzkoak martitzenean

Amaraurari begira jartzen gara *Geektonic*-ekin martitzenetan, *Igo autobusera* irratsaioan. Bertan, sarean gertatzen ari denaren azken berriak jasotzen ditugu. Horretarako, Maider Arregi izaten dugu 107.7ko uhinetan zehar.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE			
Zapatua, 19	ERKUDEN ETXEBERRIA	Zarugalde 42, 44	943 77 16 30
Domeka, 20	ALBERTO AZCOAGA	Ferrerias, 1	943 79 15 15
Astelehena, 21	M. FCA. AZCOAGA	Iturriotz, 17	943 79 79 99
Martitzena, 22	ANA FDEZ. CORCUERA	Aranbarri plaza, 1	943 79 22 26
Eguaztena, 23	JUAN ANTONIO IRIZAR	Erguin, 11	943 79 12 39
Eguena, 24	LOURDES AMEZUA	Sta. Marina, 32	943 79 09 74
Egubakoitza, 25	ANA ESPAÑOL MORALES	Araba Etorb., 14	943 79 18 65

BERGARA			
Zapatua, 19	IÑIGO ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Domeka, 20	IÑIGO ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Astelehena, 21	MERCEDES GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Martitzena, 22	JAVIER ESTELLA	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Eguaztena, 23	L. ALVAREZ-M. MOZOS	Iparagirre	943 76 12 15
Eguena, 24	A. URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza, 4	943 76 11 74
Egubakoitza, 25	IÑIGO ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87


OÑATI			
Zapatua, 19	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Domeka, 20	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Astelehena, 21	ANDUAGA	San Lorenzo, 3	943 78 21 16
Martitzena, 22	ANDUAGA	San Lorenzo, 3	943 78 21 16
Eguaztena, 23	BARRENETXEA	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Eguena, 24	BARRENETXEA	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Egubakoitza, 25	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58

ARETXABALETIA			
Zapatua, 19	M. VICTORIA ANITUA	Belorrieta auzoa, 1	943 08 11 43
Domeka, 20	M. VICTORIA ANITUA	Belorrieta auzoa, 1	943 08 11 43
Astelehena, 21	JUAN FRAILE	Herriko plaza, 1	943 79 21 99
Martitzena, 22	JUAN FRAILE	Herriko plaza, 1	943 79 21 99
Eguaztena, 23	JUAN FRAILE	Herriko plaza, 1	943 79 21 99
Eguena, 24	JUAN FRAILE	Herriko plaza, 1	943 79 21 99
Egubakoitza, 25	JUAN FRAILE	Herriko plaza, 1	943 79 21 99

Farmazien eskuko telefonoetarako 2010 egutegia eskuratzeko, bidali **FARMA 25600** zenbakira. Gehienezko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altitia TICek kudeatuta ([www.althitia.es](http://www.althitia.es)).

## EGURALDIA ASTEBURUAN

## DEBAGOIENA



Max. 14°  
Min. 5°



Max. 13°  
Min. 5°


## ZAPATUA, 19

Zapatuan euria egingo du, bai goizaldean, bai gauean. Hego-mendebaleko haizea ibiliko da eta tenperaturak ez dira igoko.

## DOMEKA, 20

Ostarteak zabalduko dira; ateri egongo da eta giro atsegina izango dugu. Tenperatura antzekoa izaten jarraituko dugu.

## EUSKAL HERRIA



## GAZTE INFORMAZIOA

## BEKAK

**Ibercaja.** Ibercaja Fundazioa. Doktoratu osteko 5 beka deialdi. Atzerrian dauden unibertsitateetan eta goi mailako ikerketa zentroetan ikerketa proiektuak egiteko. Ikerketa alorrak izango dira: biologia, medikuntza eta teknologia. Epea: martxoak 31.

## Arte sorkuntza. MUSAC

(Museo de Arte Contemporáneo de Castilla y León); Siglo para las Artes de Castilla y León fundazioa. Bekak arte plastikoaren proiektu onentzat: pintura, eskultura, grabatu, marrazketa, fotografia, bideoa, arte-bideoa, arte elektronikoa, eta abar. Zebatekoa: 15.000 euro. Epea: martxoak 15.

## LANA

**Telekomunikazio teknikariak.** Bilboko Udala. Telekomunika-

zioetan bi teknikari behar dira Bilboko Udalerako. Epea: martxoak 2.

**Langile, enplegu, industria eta merkataritzako laguntzailea eta ikuskatzailezako administrari laguntzailea.** Urretxuko Udala. Epea: martxoak 2.

## LEHIAKETAK

**Elkar.** Elkarren 3. ilustrazio eta ipuin lehiaketa. Hurren, eskolako ikasmailaren arabera, hiru mailatan parte hartzeko aukera izango dute lehiaketan: HH 2/3, LH 1/2 eta LH 3/4. Epea: apirilak 15.

## IKASTAROKAK

**UEUren udaberriko ikastarokak.** Moodle 2.0-ren oinarriko erabilera; Interneten baliabideak erabiltzen ikasteko baliagarria; argazkigintza dokumentala...

## INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:

Arrasateko Gazte bulegoa: Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | [gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net](mailto:gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net)  
Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea: Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | [gazteinformazioa@oinati.net](mailto:gazteinformazioa@oinati.net)





### Felix eta Libe

Felix Barrutiak eta Libe Mendi-zabalek otsailaren 7an 50 urte bete zituzten elkarrekin. Merezki zuten ospatzea. Eta ondo ospatu gainera! Larunbatean familiako guztiak elkartu ginen Felix eta Liberen urrezko ezteiak ospatzeko. Zorionak eta mila esker urte hauengatik guztiengatik. Zure seme-alaba, iloba eta biloba guztien partetik.



### Esther eta Iñigo

Esther Maskariano eta Iñigo Madina oñatiko udaletxean ezkonduko dira bihar, zapatua. Etxekoen partetik zorionak eta urte askotarako, bikote.

### HILDAKOAK

**Dolores Santiago Morales.** Bergaran, otsailaren 10ean. 79 urte.  
**Manuel Martin Gomez.** Arrasaten, otsailaren 10ean. 56 urte.  
**Migel Angel Fernandez Matias.** Bergaran, otsailaren 11n. 49 urte.  
**Francisco Lizarribar Jauregi.** Arrasaten, otsailaren 11n. 97 urte.  
**Dioni Tejado Nogales.** Bergaran, otsailaren 12an. 86 urte.  
**Ignacio Beitia Iburguren.** Oñatin, otsailaren 12an. 86 urte.  
**Benedicta Gallastegi Lete.** Elgetan, otsailaren 13an. 89 urte.  
**Orlando Hernandez Aguado.** Arrasaten, otsailaren 14an. 78 urte.  
**Rosario Agirregomezkorta Arregi.** Arrasaten, otsailaren 14an. 79 urte.  
**Sabina Aperribai Madinabeitia.** Bergaran, otsailaren 15ean. 88 urte.

### ESKER ONA

### Rosario Agirregomezkorta Arregi



Arrasaten hil zen 2011ko otsailaren 14an, 79 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerririk asko sendikoen izenean.

Arrasaten, 2011ko otsailaren 18an.

### OROIGARRIA

### Rosario Agirregomezkorta Arregi



Arrasaten hil zen 2011ko otsailaren 14an, 79 urte zituela.

*Alaitasunaren iturritik edan genuen elkarrekin oroimenean izango zara zu beti gurekin.*

Muruamendiaraz gozotegiko betiko lagunak Arrasaten, 2011ko otsailaren 18an.

### URTEURRENA

### Jabier Bikuña Urriategi



Lehen urteurreneko meza domekan, otsailaren 20an, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian ospatuko da.

Elizkizunera joango zaretenoi, alde zuretik eskerririk asko sendikoen izenean.

### URTEURRENA

### Jesusa Etxezarraga Goikoetxea



Antonio Kortabarriaren alarguna

2010eko otsailaren 27an hil zen.

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailaren 20an, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian ospatuko da.

*Urak dakarrena, urak darrena; lurrak emandakoa, lurrean gelditzen da. Zuk emandakoa, gugan geratu da. Betiko, betira arte.*

Elizkizunera joango zaretenoi, alde zuretik eskerririk asko sendikoen izenean.

### URTEURRENA

### Maria Dolores Lete Aranguren



Lehen urteurreneko meza domekan, otsailaren 20an, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian ospatuko da.

Elizkizunera joango zaretenoi, alde zuretik eskerririk asko sendikoen izenean.

### URTEURRENA

### Vicente Inza Iñurritegi



Lehen urteurreneko meza domekan, otsailaren 20an, 12:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian ospatuko da.

Elizkizunera joango zaretenoi, alde zuretik eskerririk asko sendikoen izenean.

### URTEURRENA

### Jose Luis Miner Garate



Lehen urteurreneko meza domekan, otsailaren 20an, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian ospatuko da.

Elizkizunera joango zaretenoi, alde zuretik eskerririk asko sendikoen izenean.

### URTEURRENA

### Angel Milikua Iarza



Lehen urteurreneko meza zapatuan, otsailaren 19an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian ospatuko da.

*Begira nago, begira bizitzaren jirabira, Kristau-fedeak argira; Kristo piztu denez gero, geroak argiak dira.*

Elizkizunera joango zaretenoi, alde zuretik eskerririk asko sendikoen izenean.

GOIENAN ESKELA JARTZEKO  
 DEITU EGUEN EGUERDIA BAINO LEHEN: 943 25 05 05.  
 EDO ZATOZ ORDEZKARITZA BATERA.



Eskelaren prezioa: 126 euro.  
 Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 168 euro.  
 Goiena: astero, 34.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.

Babeslea:

**Euskalduna**  
 Hileta Zerbitzuak

Beilatokia  
 Etengabeko zerbitzua  
 Lore koroak  
 Eskelak  
 Tramite guztien bideratzea

Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99  
 e-posta: euskalduna@harrespil.net




**ESKORIATZA** Go Chick taldearen kontzertua

Proposamen ezberdina eta oso urrutitik datorrena izango da gaur Inkernu tabernan. Taiwanetik dator Go Chick taldea, elektro pop doinuekin. Emakumezkoak nagusi dira protagonista eta biran datoz. Euskal Herrian bi kontzertu besterik ez dute emango, Ondarroan eta Eskoriatzan. Gaur, Inkernu tabernan, 23:00etan.



GOIENA



GOIENA

**ARRASATE** 'Historias canallas' antzezlan

Arabako Kunka antzerki taldearen eskutik *Historias canallas* antzezlan ikusteko aukera egongo da. Barrea eragitea eta tarteka ikusleari pentsaraztea du helburu antzezlanak. Gainera, poesiak ere izango du bere pisua. Domeka, Amaia antzokia, 19:30ean.

**MUSIKA****ARRASATE** 'La Mejicana clandestina' taldearen kontzertua

Arrasateko gaztetxeak eta Deba-goieneko Askapenak antolatuta, *La Mejicana clandestina* taldeak kontzertua emango du. Zapatuan, bestalde, dokumental ikusteko aukera egongo da gaztetxean bertan, hori ere Mexikon inguruan (18:00): *Zapatistas. Cronica de una rebelion*.

Gaur, egubakoitza, 22:00etan, gaztetxean.

**ARRASATE** Arrasate Musikaleko Big Bandaren kontzertua

Leioako Big band taldeak kontzertua emango du Amaian. Kontzertu horretan ere Arrasateko Big band taldeak bere lekua izango du. Kontzertuak bi zati izango ditu: lehenengoan Arrasatekoak arituko dira eta lau pieza interpretatuko dituzte eta ondoren Leioako taldearen txanda izango da.

Gaur, egubakoitza, Amaia antzokian.

**NON-ZER**

Emaguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.  
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13

OTSAILA 18  
OTSAILA 24**ARRASATE** Jai berezia aratusteen bezperan

Los Galerna taldeak kontzertu berezia emango du aratusteetako lehen aste bukaeran, Los Moonstones taldearekin batera. Hala, garaje eta surf doinuak izango dira nagusi. Sarrera lau euro ordaindu beharko da. Martxoak 4, egubakoitza, gaztetxean, 22:00etan.

**ANTZUOLA** Txistularien diana

Domekeroko diana  
Otsailaren 20a, domeka Herrian 10:00etan

**BERGARA** Lobo Electrico eta NCC Txapa Irratiaren urteko lehen musika hitzorduan

Lobo Electrico eta Nuevo Catecismo Catolico taldeen emanaldia iragarri du Txapa Irratiak otsailaren 19rako. Martxoaren 19an, berriz, Fiachras bergararrak eta Norman eibartarren rock psikodelikoa zuzenean entzuteko aukera izango da Bergarako gaztetxean. Apirilaren 2an Bizardunak talde nafarra izango da. Bihar, zapatua, Bergarako gaztetxean, 22:30ean.

**BERGARA** Bigott bakarariaren kontzertua

Bigott izen artistikoaren azpian Borja Laudo musikaria ezkutatzen da. Zaragozakoa da Bigott eta western, folk eta pop giroak nahasten ditu, entzuleari musi-

ka koktelera bitxi bezain interresgarri eskainiz. Bihar, zapatua, 23:00etan, Tartufo jatetxean.

**ESKORIATZA** Go Chick taldearen kontzertua

Taiwanetik Inkernura. Elektro popa lantzen duen taldea eta emakumezkoak dira protagonista. Euskal Herrian bi kontzertu bakarrik emango dituzte: Eskoriatzan eta Ondarroako Kafe antzokian. Gaur, egubakoitza, 23:00etan, Inkernu tabernan.

**ANTZERKIA****BERGARA** Yonunka Teatro taldearen 'Ambición' lana

Aitor Borobia bergararrak lehen aldiz herritarren aurrean antzertuko du. *Ambición* antzezlanarekin dator: komedia bat da eta beraz, umorea izango da nagusi. Olatz Ganboa antzezle algortarra da zuzendaria. Sarrera sei euro ordaindu beharko da Otsailaren 20an, Tartufo jatetxean, 19:00etan.

**BERGARA** Panta Rhei taldearen 'Tira aurrera' antzezlan

5 eta 10 urte arteko umeendako da. Sarrera hiru euro dira. Otsailaren 19a, zapatua Zabalotegi aretoan 18:00etan

**ARRASATE** 'Historias canallas' antzezlan

Arabako Kunka antzerki taldearen eskutik *Historias canallas* antzezlan dator. Barrea eragitea eta tarteka ikusleari pentsaraztea du helburu antzezlanak. Poesiak ere izango du bere pisua. Etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:30ean.

**ELGETA** 'Kili kontuak' antzezlan

Udalak antolatua 3-10 urte bitarteko umeendako. Sexualitatea lantzen duen antzezlan. Ludotekako bazkideendako sarrera doakoa da, gainerakoek euro bat ordaindu beharko dute. Gaur, egubakoitza, Espaloian, 17:30etan

**IKASTAROKAK****ARRASATE** Hikan berba egiten ikasteko ikastaro

AED elkarteak hikan egiteko ikastaroa antolatuta du. Martxoaren 11 eta 12ko aste bukaeran hasiko da ikastaroa eta 20 ordu iraungo du. Izena ematen dutenek adostuko dute ikastaroa egubakoitz arratsaldetan edo zapatu goizetan egin. Izena emateko azken eguna da martxoaren 4a. Izena emateko: Pablo Uranga kalea 4 behea, [aed@aedelkartea.com](mailto:aed@aedelkartea.com) helbidea edo 943 77 12 28 telefonoa. Martxoaren 11eko aste bukaeran hasita, AEDn

**ARRASATE** Emakumeentzako autodefentsa ikastaroa


Tailerraren helburuak dira norberarengan dugun konfiantza sendotzea, autoestimua hobetzea, emakumeen arteko elkartasuna bultzatzea eta defentsa pertsonaleko oinarriko teknikak ikastea. Ikastaroan ikasiko da indarkeria matxista guztiei aurre egiteko baliabideez hornitzen. 18 edo 23 euro ordaindu beharko da matrikula. Egubakoitzean 16:00etatik 20:00etara izango da eta zapatuan, berriz, 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era. Martxoak 18 eta 19an, Emakume txokoa.

**ERAKUSKETAK****BERGARA** Nekane Lazkano argazkilararen erakusketa

Nekane Lazkano argazkilaria erakusketa zabaldu du Nahikari tabernan. *La porbreza de Roma* du izenburu erakusketak eta zuri beltzeko argazkiak erakutsiko ditu. Otsail osoan zehar, Bergarako Nahikari kafetegian

**HITZALDIK****ARETXABALETA** Gernikako Akordioaren aurkezpena

Herritarrei aurkeztuko diete Gernikako Akordioa horren bultzatzaile diren eragileek. Gaur, egubakoitza, Arkupen, 19:00etan

**ARETXABALETA** Juan Antonio Urbeltzen hitzaldia, aratusteen gainean**BONOFOTOA****GARMENDIA ARDOEK EMANDAKO BOTILA ARDO PACKA\***

ZOTZ EGINGO DUGU, GALDERA ZUZEN ERANTZUN DUZUENON ARTEAN:

\* Larchago iskillarapeko ekologikoa: botila bat. Larchago beltz berezia: botila bat. Larchago kriantza: botila bat.

ERANTZUNA:

IZEN-DEITURAK:

HERRIA: TELEFONOA:

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzatara

Nahiz eta gure eskualdean ez egon, oso bisitatua izaten da urtean zehar. Non gaude?

Argazkia eta galdera: Jose Fernandez

Zorionak aurreko zenbakiko irabazleari:

Arrasateko Juanita Lasa

Erantzun zuzena:

Untzeta etxea

ETXEZ ETXEKO BANAKETA  
Larchago ardoak eta produktu ekologikoak.  
943 76 98 51





# goiena

2011-02-18

HARPIDETZA: ARETXABAETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

BUKATZEKO

## Euskarak Polonian ere baditu hiztunak

- Poloniako Poznan hiritik iritsita, bederatzi ikasle euskara ikasten ari dira Arantzazun
- Linguistika eta Etnografia ikasten ari dira Polonian eta hirugarren hizkuntza euskara dute

ARRITXU BARRUSO | OÑATI

Arantzazuko Sindika hotolean Poloniako bederatzi gazte aurkitu ditugu liburu artean. Zertan? Harri-garria badirudi ere, euskara ikasten ari dira.

Poloniako Poznan hiritik etorri dira; unibertsitatean Linguistika eta Etnografia ikasten ari dira eta ikasketa horietarako aukeratu duten hirugarren hizkuntza euskara izan da. Bilboko Ulibarri euskaltegiko Elu Garate dute irakasle eta hark kontatu digu Poznan-eko unibertsitateko ikasleekin barnetegia egiten duten bosgarren urtea dela: "Unibertsitatean astean bi orduz izaten dituzte euskara eskolak; hemen, berriz, hamabost egunean 65 ordu inguru. Hizkuntza bera ikasteaz gain, euskal kultura eta euskara inguratzen duen edozer ezagutzera da helburua". Irakasleak kontatu digu, horren harira, oso kezkatuta daudela euskarak bizi duen egoerarekin: "Euskararen diglosi egoerak asko kezkatzen ditu, eta jendeak euskara jakin eta ez erabiltzeak".

### Arantzazutik gaueko girora

Liburu artetik irten eta Euskal Herriko txokoak ezagutzeko aukera ere izan dute egunotan. Donostian izan dira, Gipuzkoako kostal-



Poloniako ikasle taldea Elu Garate irakaslearekin, euskarazko eskola amaitu berri dutela. | AMAIA TXINTXURRETA

dea zeharkatu dute eta Oñati eta Arrasate ere bisitatu dituzte. Joan den astean Arrasateko gaztetxean izan ziren eguneneko Kooltur kontzertuan. "19 eta 23 urte bitarteko gazteak dira; beraz, gaueko giroa ere erakutsi behar zaie. Azkenengo egunean Bilboko gaua eza-

gutzeko aukera izango dute", kontatu digu Garatek.

Eta bai, aditzak eta gramatika ikastez gain, bestelako gauzak ere ikasi dituzte. Anna Andersz Arantzazura datorren hirugarren aldia da eta inolako arazo barik hitz egin ahal izan dugu harekin eus-

karaz. Zer ikasi duen galdetuta, honakoa erantzun digu: "Patxarana edaten ikasi dugu, euskal kantua abesten eta gramatika apur bat ere bai [Barre]."

Patxarana edaten ez dakigu, baina Mikel Laboaren *Txoria txori* abesten *bikain* atera dute.

AZKEN HITZA

AINTZANE OIARBIDE



Lady Gaga

Ez naiz haragi puska bat", zioen Lady Gaga kantariak haragi xerraz egindako soinekoa jantzita zuela. Gauzak muturreraino eramatea izango da, eszentrikoa erabat, baina artista honek lortu du dagoeneko 15 milioitik gora disko saltzea. Lady Gagaren jantzi eta espektakulu harri-garrien gaitetik, edo azpitik, musikari artista dugu. 4 urterekin pianoa jotzen ikasi, 13 urterekin musika konposatzen... itxurak itxura, sekulako prestakuntza musika duen 24 urteko emakumea. Bere abestien bertsio akustikoetan ikusten da bere artea biluzik, ederra benetan. Euskal kultura krisian omen dago... diru falta! Aitzakiak ere pittin bat. Sorkuntzaren krisi galanta dugu. Euskal edukiak sortu behar ditugu mundu zabalean saltzeko. Horrela ere eraikitzen da herria. Erakundeen zain egon baino hobe dugu gure Lady Gaga sortzea... kolore politikoaren gaitetik, gizarte loturen gaitetik, sasi guztien gaitetik eta laino guztien azpitik... Espiritu librea, kreatibitate librea, askatasun osoz. Euskal kulturak ikono bat behar du. Euskal Herria marka saldu behar dugu...

Gora Lady Gaga!

ORAINDIK ...

# EZ DUZULA?

goienakluba<sup>™</sup>  
Abantailaz betetako kluba!

- GOIENA TXARTELAK askotariko abantailak eskaintzen dizkizu 48 euroren truke.
- Gainera, otsailean 350 euro irabaz ditzakezu!

goienakluba<sup>™</sup> 2011

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com |  
www.goienakluba.com | Urteko kuota: 48 €.